

**UR APALATEGI**

# **Fikzioaren izterrak**



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2010 Ur Apalategi

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2010eko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

# Azken fandangoa Buenos Airesen

Gaztaroak ez ditu maite garaituak.  
SIMONE DE BEAUVOIR

Argi samar neukan Katxalyn sasizena zuela. Izan ere, gezurrezkoa dirudi izenak, batez ere «y» horrekin. Bere blogean botatzen zituenak botatzeko anonimatusa ezinbestekoa zuelakoan nengoen. Azkenik, euskal idazleen gremiokoon aurkako bere purrustada lotsagabeen estiloa ikusita, gizon bat ere izan zitekeela pentsatzera iritsi nintzen. Idazle frustratu eta jeloskor horietako bat, goizegi burusoildua.

Gutxitan egiten dudan gauza, interneten nenbilen neure izenari asoziatuiko sarrerak begiratzen, Katxalynen hitzekin behaztopatu nintzenez. Estekaren laburpenezko esaldi zatia izan zen irakurri nion lehen gauza, Googlen bilaketaren emaitzen orrialdean. «...horregatik, Gal-

tzada jaunaren bular oparoekiko obsesioa...» zioen laburpenak. Zauritzeko asmoa nabarmena zen, *jauna* ironiko horrek argi adierazten zuen moduan. Irribarrea eragin zidan. Literalki. Eta ez mespretxuzko irribarrea, poz nartzisistak eragindakoa baizik. Pozik nengoen, irakurle bat nirekin kezkatu zebilelako.

Katxalyn izenekoaren blogean zeuden bost erantzun edo iruzkinak irakurri eta poza harrotasun bihurtu zitzaidan. Jende hori ez nuen ezagutzen eta, halere, nire eleberriaz ari zen, jo eta su, batzuk kontra, bestetuk alde, beraien bizitzetarako arduratzeko orde. Egia da ez zihardutela nire obraren alderdi literarioenaz. «Falokrata titimaniakoa» ote nintzen zuten eztabaidagai. Blogazale horien begiradapean, nire lauhun orrialdeko nobela gotorra -lan neketsu bezain luze baten emaitza- fikziozko pertsonaia baten bular oparoz nire narratzaileak egindako ohar batera mugatzen zen. Gaitz erdi.

Blogean mezu bat gehitzeko tentazioa izan nuen. Bakoitza bere lekuan jarri eta gauzak argitzeko gutizia. Esan nahiko nien instantzia narratiboa zela bularrei buruzko iruzkina egiten

zuena, eta ez ni, hezur-haragizko autoreia, Ander Galtzada. Erantsiko nukeen, baita ere, eleberria bere osotasunean harturik nagusitzen zen ikuspegia feminista zela, zerbait izatekotan; nire pertsonaia nagusiak, gainera, estereotipo femenino behinenak hautsi egiten zituela eta halako pertsonaia bizkor eta anbiziotsu gutxi aurkituko zizutela, baita emakumezkoen obrak miatuz gero ere.

Ez dakit zerk gelditu ninduen. Ohartzen ote nintzen neure irakurleak zirela finean? Kontua da ez nuela mezurik idatzi. Une batez, sasizenez izenpetzeko aukera haztatu nuen. Haatik, sasi-zen baten atzean gordeta neure burua defenditzen ibiltzea ez zitzaidan oso duina iruditzen. Banekien badagoela halakorik egiten duenik idazle on artean. Entzunda neukan idazleren bat modu horretan bere obraren kritikak -positiboak, nola ez- argitaratzera ere iritsia zela. Eskrupuluek gelditu ninduten ordea. Eta gehiagotasun sentimendu lauso batek, aitor dezadan. Beste maila batean ikusten nuen neure burua. Inoiz libururik argitaratzera iritsiko ez zirenen frustrazioen oihartzun kutxak begitantzen zitzaizkidan

blogak. Idazle gisa, degradagarria neritzon bloga edukitzeari. Suposatzen dut garai batean zinemako antzezleak telesailetan agertzen hasi zirenean eragiten zuten errukiaren antzeko bat sumatzen nuela sasidazle horiekiko.

Emazteari erakutsi nion blogekoa, elkarrekin irri egin genezan. Irri egin genuen. «Idazle marxista naizela uste duzu?» galdetu nion, barruan ernatu zitzaidan zalantza kimua erauzteko. Ez zuen erantzuteko lanik hartu. Eta dena ahantzi nuen. Harik eta, hilabete zenbait geroago, nire auzoko liburu-dendan Katxalynen liburua ikusi nuen arte.

Katxalyn Orue deitzen zen, osorik. Segituan jakin nuen -barruak esan zidan- blogaren egilea eta liburu horrena bat bera zirela. *Ikea batean xuxurlaka* zuen izenburua. Ipuinak ziren. Azalaren solapatxoan bere argazkia zetorren. Neska gazte bat. 1987koa. Espresio kokina zeukan. Inolaz ere ez feminista ozpinduarena. Ez zen itsusia. Horrek ere laguntzen du.

Bi egunetan irakurri nuen, laneko zereginak bazterturik. Ondo zegoen. Bazuen zerbait. Tonua, ikuskera. Ez dakit. Txundigarria izan

gabe, bereganatzen zintuen. Garbi zegoen bizkorra zena. Bazekien zertan ari zen luma eskuan zerabilela. Ez da gutxi idazletzan sartu nahi duenarentzat. Emazteari gomendatu nion. Bere iritzia izatearren. Izan ere, jada ez nekien ongi objektibotasunez epaitu nuen liburua edo neska bera erakargarria zitzaidalako iruditu zitzaidan ona. Baieztatu zidan ez zegoela gaizki. Eta emaztearen gustuaz fio naiz. Ohean geunden, itzali aurreko gure irakurketetan murgilduta. «Hau ez al da bere blogean aipatzen zintuen neska?» galdetu zidan. «Bai ba» erantzun nuen, *in fraganti* harrapatutakoaren keinuaz. «Ez zara ariko neskatxa bihurri honekin fantaseatzen, ezta?» bota zidan, jeloskortasunaren aitortza eta zigorraren gaztigua nahasten ziren tonu bikoitzaz. Eta saihetsean atximur egin zidan, nahiko gogor.

Katxalyn Orue modan zegoen. Egunkari eta aldizkari guztietan elkarrizketatu zuten, behin guxtienez, hilabete gutxitan. ETBko tertuliakide egin zuten, bigarren kanalekoa gainera. Gaztela-

niaz eroso ari zen, ez zerion, beste hainbati bezala, euskalduntasuna poro guztietatik. Pertsonaia interesgarria zen elkarrizketaz elkarrizketa, agerpenez agerpen, konposatzen jakin zuena: neska ikasia baina ez pedantea, arina baina ez hutsa, idazlea baina ez *idazlea*, sentsuala baina ez eskainia, euskal politikari zegokionean agnostikoa...

Pixka bat sorpresaz harrapatu baninduen ere, pozik onartu nuen berarekin eta hirugarren idazle batekin batera egunkari bateko zutabea konpartitzeko aukera. Idazleak nekez irabazitako estatusa eta izena defendatu beharra dauzka eta ibilbide luzeagoko idazle bat merezi nuela alboan ere bururatu zitzaidan une batez, ezin nindutela nahasi dena frogatzeke zeukan hasiberri batekin, alegia. Banintzen nor gure letren mundutxoan, bestalde, Katxalyn bazterrarazi eta kalibre handiagoko idazle bat exijitzeko zutabearena aipatu zidan kazetariari. Baina onartu egin nuen proposamena. Kitzikaturik nengoelako, jakina. Beste gazte bat izan balitz, ziurrenik ez nukeen onartuko. Zailena emazteari erabakiaren berri ematea izan zen. «Behartuta al zeunden



onartzera?» galdetu zidan, ondo oharturik zer-nolako salbuespena egitera nindoan nire ohiko logikarekiko. «Ez zait gaizki etorriko nire irudia apur bat gaztetzeko» desenkusatu nintzen, erdizka baino egia ez zen aitzakiaz.

Muturreko galanta eman zidan Katxalyn Oruek bere lehen zutabea. Nire aurreko zutabe bati erantzutea tokatu zitzaion lehen txandan, eta barregarri uzten ninduen bere testuak. Barregarri, ironiaz eta erdeinuz hartzen zituelako nire argudioak. Barregarri, bere idazteko moldeak nirearen alboan jarrita ageri-agerian uzten zuelako idazkera zaharkitu batean ari nintzela, moda zaharreko idazlea nintzela, nire gainbehera hasia zela. Errespetu falta nabarmenez zuzentzen zitzaidan. Bere blogeko oharrak gogoratu zitzaizkidan. Ez ninduen sorpresaz harrapatu behar bere erasoak.

Lanetik sartu zenean emazteak zekartzan begi isekariak ikusi eta segituan ulertu nuen irakurria zuela zutabe kriminal hura. Ez zeukan ezer esan beharrik. Banekien hanka sartu nuela, leporaino. Ez nuen onartu behar zutabe konpartituaren proposamena. Emaztea fina zen eta ez

zidan ezer esan. Nik ezarri nuen gaia mahai gainean. Halabeharrez. Isilik geunden afaria hasi genuenetik. Normalean hain gogoko ditudan espageti txinatar kurruskatsuek ez zidaten grazia-rik egiten. Egoerak ez zeukan gozo-garratzetik ezertxo ere. Arrunt zen mingotsa. Horrelako uneetan botatzen dut faltan haurrik ez izatea etxean. Otorduetako isilune luze horiek betetzeko, arrebaren etxe zaratatsuan bezala. Kezkak builan itotzeko. «La muy perra» bota nuen, nire duintasunaren ardura guztiz galdua. «Zer maittea?» galdetu zidan emazteak, erretorikoki, gaia ez aipatzeko azken aukera utzi nahian. Baina ez. Aipatzea zegokidan. «Ikusi duzu nola sartzen den nirekin?», bildu nahi izan nuen nire aldera. «Nortaz ari zara?». «Mesedez. Katxalyn Oruez». Ez zidan elkartasunezko adierazpenik egin, ezta kontrakorik ere. Nire errua onar nezan nahi bide zuen. Emaztea nuen, betidanik, manager bakarra, leiala bezain ziurra, eta ez zidan barkatzen, antza, zutabeen proposamena berari batere aipatu gabe onartu izana. «Bai, badakit, suarekin jolastu naiz eta hori da modu hoberena erretzeko». «Zerorrek esan duzu». Orain ni nengoen isi-

lik, zer esan ez nekiela. Gogoeta goibel bezain mutuan hondoratu nintzen. «Eta orain?» atera ninduen emazteak neure baitako errekatik. «Orain zer?». «Jarraitu behar al duzu?». «Jarraitu beharra daukat. Nola erretiratuko naiz, ba, hasi berritan!? Hitza hitz. Sei hilabeterako hartu dut konpromisoa. Zutabeak hemendik sei hilabetera geldituko dira». «Neska horrek bere inspirazioari eusten badio, hemendik hiru hilabetera lurperatua zaitu idazle gisa» bota zidan. Arrazoi zuen. «Agian hurrengo zutaberako normalduko du tonua. Ingurukoek ere esango zioten, ez da ona bere irudirako nire tamainako idazlea horrela egurtzen aritzea. Ander Galtzada naiz. Litekeena da lasaitzea». «Edo ez». Komunera joan nintzen, lotaratu aurreko azken pixa egitera. Zakila eta barrabilak zimurtu zitzaizkidan pixa egin bitartean, esku hotzarengatik. Nire aitonaren zakil zimur eta laburraz oroitu nintzen, neguan baratzeko pikua enborra pixaz belzten zuenetan. Lurruna. Usai gozo eta epela gorantz egurats hozkirrian. Sudurrak eta belarriek bizitza osoan handitzen jarraitzen dute. Zergatik gertatzen zen alderantziz zakilarekin? Berrogeita hamarre-

tan sartu berria nintzen. Emaztea bezalaxe. Denbora gutxi geratzen zitzaigun «benetako bizidun» legez hemengo egonaldiaz gozatzeko.

Hurrengo zutabea ez zen samurragoa izan. Ni infantilizatu nahian zebilen Katxalyn. Talentuz. Alta, nire aurreko zutabeen liskarra ekiditeko eginahalak egin nituen. Okerrena zen hirugarren zutabegileari adeitsu zuzentzen zitzaiola beti. Hirugarrena, nire adineko idazlea bera eta aspaldiko ezaguna, ni defenditzen saiatu zen bere zutabeen. Baina horrek okertu baino ez zuen egiten nire egoera: errukarri bihurtzen ninduen.

Sutan jarri nintzen. Erasoei erantzun beharra neukan. Gerla nahi bazuen izango zuen. Sarkasmoz betetako zutabe bat idatzi nuen, guztiz iraingarria ondo irakurtzen zekienarentzat. Eta nire ordenagailuaren zakarrontzian amaitu zuen. Ez zen nire estiloa. Jendea zauritzea ez zettorren bat nire izateko moduarekin, nire idazle irudierekin. Edo besterik gabe, koldarkeriak gelditu ninduen. Zutabea bidaltzeko epea agortzen ari zitzaidan eta, presaka, beste zutabe bat egin

nuen, homosexualen eskubideak goraki defen-  
datuz. Bidali bezain laster damutu nintzen. Tonu-  
tik kanpo nengoen. Ate irekiak zabaltzen nihar-  
duen, modu arranditsu eta bortxatuan. Eta ma-  
niobraren helburu bakarra postmodernitatearen  
abangoardian agertzea zen, Katxalynek zabaldu-  
tako nire irudi zaharkitua zuzentze aldera.

Hirugarren zutabegileak oniritzia eman zion,  
beste behin ere, nire aurreko zutabeari, eskuza-  
bal.

Katxalynek, berriz, modu paternalistan iruz-  
kindu zituen nire ideia aurrerakoiak. «Garai be-  
rrietara egokitzeko» erakusten nuen borondate  
ona txalotu ondoren, *cultural studies* edota  
*queer theory* direlakoan autore eta erreferen-  
tzietan bermatuz, errepaso bat ematen zidan.  
Moda pasarela batean galtzontzilo zuritan ager-  
tu izan banintz bezala sentitu nintzen. Intelek-  
tualki umiliatu ninduen.

Ondoko egunetan, aipatzen zituen autore ho-  
rien liburuen bila ibili nintzen amazon.com web-  
gunean. Baina gehienak jatorrizko bertsioan ze-  
tozen eta nik ez nuen aski menderatzen ingele-  
sa maila horretako abstrakzioak irakurtzeko.

Nire gazte denboran ingelesa ikastea ez zen hain erraza. Etsi nuen fronte horretan. Dena den, sentitzen nuen halako erreferentziak nireganatzea ez zatekeela aski izango. Gizona nintzen, zuria, ezkondua, abertzalea. Normalegia.

Eta horrela igaro ziren sei hilabete amaiezin horiek. Hiru astetik behin nire jipoiaren zain egoten nintzen. Eta ez zuen inoiz huts egin nire borreroak. Azkenerako ulertu nuen Katxalyni berdin zitzaiola erabat nor nintzen benetan. Bere irudia eraikitzeko berme bat baino ez nintzen. Instrumentalizatu egin ninduen eta, besterik gabe, ondo zetorkion nik errepresentatzen nuena, bere jokaldia egiteko. Idazle kontsaktua nintzen, idazle hasi berriak tokia egiteko hil behar duen aita. Eta ulertu nuen, baita ere, alferrik zela bere ideietara hurbiltzea, egokitzea edo *igotzea*. Kontua ez zetzala gure iritzien edukian. Izan ere, berea izan zitekeen ideia bat formulatzera iristen banintzen, antizipazioz edo, segituan mugitzen zen kontrako norabidean. Kontrastea egitea zen bere logika, ni jokoz kanpo uztea eta, batez ere, nire gagnetik agertzea. Eta eginkizun horretan tonua zuen baliabide nagusi.

Ez zen larderia, ezta ironia, ezta trufa zuzena ere, baizik eta hirurak aldizkatzen zituen tonu arin bezain eraginkorra. Neure egin nahiko nukkeen tonua, bidenabar. Inoiz izan ez nuena. Literatura gauza serioa zen garai urrun eta zurrun batekoa bainintzen.

Nire azken zutabearen aurreko berea ez zen hain suntsitzailea izan. Egia esan, batere ez. Tamalez. Lurrean odolusten ari den zezenari begiratu eta azken ezpatakada barkatzen dionaren pare jokatu zuen: krudel. Nire aurreko zutabea inoratu eta hirugarren zutabegilearen iritzia baino ez zuen aintzat hartu. Despedidako zutabea erremindurik idatzi nuen, hartara, nire iritzia jada arbuiatua izateko ere balio ez zuelako sentipen etsigarriarekin. Katxalyni bere ordaina itzultzen saia nintekeen azken txanda horretan, baina, esan dudanez, ez da nire estiloa. Neuk ere bera inoratzea pentsatu nuen hurrena, eta hirugarren zutabegilea bakarrik agurtzea, Katxalyn existitu ez balitz bezala. Baina nire samina agerian jarriko zukeen halako jokamolde bortxatuak. Azkenean, dotorezian aterpetu nintzen ahal nuen neurrian, eta nire bi zutabekideak adeita-

sunez agurtu nituen, gure artean gertaturikoak aztarnarik utzi ez balit bezala, dena joko alfer eta ondorio gabea izan bailitzan, jolas bat. Emazteak ere erabakiaren zuhurtzia onartu zidan.

Eta horrela joan ziren asteak, hilabeteak, eta urtea kasik.

Hondarribiko aireportuan, maletaren fakturazioa egiten nengoela, ikusi nuen Katxalyn aurrenekoz, hezur-haragiz. Ilaran nire aurrean zihoan. Ez nengoen ziur bera zenik, atzetik baino ez nekakeelako ikusi, baina bera izan behar zuen, maleta handia baitzeraman, nire antzera. Biok ginen parte hartzekoak Argentinan egingo zen bira literario batean. Bost euskal idazle geunden gonbidatuta gure testu zenbait irakurtzera, unibertsitario biren hitzaldiekin tartekaturik. Euskal literaturaren promozio *tournée* loriatsu horietako bat izango zen, hemengo prentsan zertxobait aipatuko zena, Buenos Airesekoan batere ez. Ez zen lehena niretzat eta banekien zertara nindotan: turismo pixka bat egitera, doan. Egia da,



bestalde, Katxalyn ere bidaide izango nuela jakiteak ezohiko zirrara sortzen zidala.

Aspaldiko adiskide dudan Juan Olabarria katedradunak bidaiaren xedea telefonoz aipatu zidanean, baietz erantzun nion birritan pentsatu gabe. Katxalyn Orue ere etortzekoa zela gehitu zuenean, ordea, ondo pentsatzeko esan zidan, banuela denbora. Ez omen zuen berak bakarrik erabakitzen nor zetorren eta nor ez. Bere EHUKo lankide Amaia Tudelak aukeratu omen zuen Katxalyn espediziorako. Olabarriak ondo zekien -baina nork ez zekien?- zeinen zakar sartu zen Katxalyn nirekin bere zutabeetan. Biharamunean deituko niola esan nion, erantzuna emateko.

Eskegi eta gutxira Katxalynen deia jaso nuen. Etxera deitu zidan. Bere ahotsa segituan ezagutu nuen. Telebistako tertulietatik zitzaidan ezaguna. Ez dakit zergatik, ahotsa apaldu eta nik deituko niola berriro esan nion. Eta eskegi egin nuen. «Nor zen?» galdetu zidan emazteak sukaldetik egongelarako bidean, biluzik, erortzen ha-

sitako bularrak paseatuz. «Zera, Euskal Idazleen Elkartearen zen, nire datuak eta argazki bat behar dituzte beraien webgune berrituan jartzeko. Baina eten egin da komunikazioa» erantzun nion, lasterregi, zehatzegi. Hitz batean, susmagarriki. Ez zirudien, halere, emazteak ezer arraroa antzeman zuenik nire ahotsean. Telefonoan afixaturik zirauen zenbakia post-it batean markatu eta kanpora irten nintzen.

Erreka ertzera joan nintzen, egunero lez, bazkalondoko ibilalditxo egitera. Mugikorra jakaren sakelan neraman. Baina ez nuen berehala deitu. Oraindik txokaturik nengoen eta ez nekiela zer pentsatu. Nola ausartzen zen ni deitzera, egin zidanaren ostean! Eta etxera gainera... Haserrea sentitu beharko nukeen. Eta sentitzen nuen. Pixka bat. Gutxiegi.

Urtebete neraman ia ezertxo ere idatzi gabe. Gogorik gabe. Zutabegintzan igarotako sei hilabete haiek hamar urtez zahartu ninduten. Tokia idazle gazteagoei uzteko unea zela pentsatzera iritsi nintzen, nire aldia pasatua zela. Azken liburuetan errepikatu baino ez nituela egin nire betiko obsesio eta leloak. Ofizioz ari nintzela jada,

eta ez afizioz, beharko lukeen moduan. Eta ez zela harritzekoa, ikusita zer-nolako bizitza neraman. Idazteko zerbait bizi behar dela irizten dutenetakoa izan naiz beti eta ez nuen jada deus ere bizi. Ez nintzen bizi. Aspalditik. Nire nortasuna moldatu zuten esperientzia gehienak oroitzapen urrunak ziren eta fosiltze fasean sartua nintzen. Jakina, inguruko lagunak ezetz esaten zidaten, halako kezkek azaltzera ausartzen nintzaien bakoitzean, banuela oraindik gauza franko kontatzeko, gaur egun berrogeita hamar urterekin, baita hirurogeirekin ere, gazteak garela. Eta ez dut uste gezurretan ari zitzaizkidanik. Ordea, nire adinekoak dira lagun horiek guztiak, edo zaharragoak. Eta, jakina, interesatu egiten zitzaien ni bizirik ikustea, idazle gisa beraiena ere bazen belaunaldiaren ispilu eta bozeramaile nintzelako. Baina zer inporta zitzaiokeen *benetako* gazte bati nik esan nezakeena? Katxalynen adineko bati, esaterako.

Banekien oroien buru deitu egingo nuela eta deitu nuen azkenean, nire ohiko ibilbidean etxetik urrunen zegoen lekura iristean. Txandakako zutabegintzan parte hartzeko proposamenari

baiezkoa eman nion egunean bezain itxaropen lauso eta inozoaz egin nuen deia, eta, okerrena, oharturik. Edo, are, onarturik.

«Galtzada jauna. Zure laguntza behar dut» esan zidan itzuli-mitzulirik gabe. Damu nintzen deitu izanaz. Eta *jauna* horrek deseroso sentiara-zi ninduen. Oraingoan, baina, bere blogean edo zutabeetan ez bezala, ez zitzaidan ironikoa iruditu, baizik eta banatzen gintuen adin tartea azpimarratzeko modua. Errespetua zor zidala, gutxienez, esan beharko niokeen orduan. Ez adinagatik, nire ibilbide literarioagatik baizik. Hemengo eleberrigile sendoenetakoa nintzen, autore irakurria, saritua, best-sellerra izandakoa inoiz-gure eskalan, jakina-, itzulia, maitatua, zenbaitzuek miretsia. Eta ez nion esan. Horren orde, haren hurrengo lotsagabekeriaren zain geratu nintzen. Mutu. «Badakit aireportu ondoan bizi zarena. Berdin litzaizuke nire autoa zure etxean aparkatu eta utziko banu? Badakizu, hamar egunerako goaz Argentinara, eta aireportuko aparkalekuak garestiak dira...». Ezetx erantzun nion. Ezinezkoa zela. Baina ez nion esan hori errespetuaren kontuagatik. Baizik eta ezinezkoa ikusten

nuelako halako zerbait nire emaztearen aurrean justifikatzea. Katxalynek egin zidanaren ostean Argentinako bidaiaren ideia bera ere ez zen erraza izango emaztearen aurrean defendatzea. Horregatik, emazteak hamar egunez Katxalynen autoarekin topo egitea goizean etxetik irtetea ez zegoen irudikatzerik.

Nire duintasunaren nozioa guztiz galdurik, zera proposatu nion Katxalyni, bere bila joatea hegaldiaren egunean. Ez zen gure etxetik hain urrun bizi -berrogei bat kilometro ziren, joan-etorria- eta egingarria ikusten nuela argudiatu nuen, goiz abiatuz gero. Eskertu zidan proposamena eta uko egin zion. Aurkituko ei zuen modua Hondarribira hurbiltzeko. Eta horretan geratu ginen. Alegia, ezertan ez. Berriz ere gaina hartu zidalako sentrazio garratzarekin geratu nintzen elkarrizketaren ostean. Eta bere eskakizuna bueltaka ibili nuen buruan hainbat egunez. Ez nuen ondo ulertzen zergatik deitu zuen eta zergatik egin zidan halako eskaera bitxia. Ez nion zentzurik ikusten. Nahasita nengoen. Telefonoko gure elkarrizketak, bestalde, dialogo gaizki idatzia zirudien. Zapuztuta nengoen.

Neure burua konbentzitu gura izan nuen ageriko arrazoiaren atzean beste arrazoi aitorrezinago edo bihurriago bat zegoela. Hori pentsatzeak ametserako parada ematen zidan behintzat. Iru-dimena martxan ezartzen zidan. Aspaldiko partez idazteko gogo lauso bat sentitu nuen. Olabarrari deitu eta Argentinara nindoala baieztatu nion, emazteari kontsultatu gabe.

Bere maleta fakturatu eta nire norabidean zeto-rrela ikusi nuen, beraz, Katxalynen aurpegia lehenengoz. Telebistako irudietan baino oraindik erakargarriagoa iruditu zitzaidan. Berak ez ninduen ikusi eta aireportuko kafetegira zuzentzen begiratu nuen, mugikorraren entzungailuak belarrietan sartzen zituela. Ni ere kafetegira hurbildu nintzen. Dei labor bat egin eta sms-ak idazten jardun zuen une luze batez. Ondoren epeldua zeukakeen kafea edan eta zutitu egin zen. Jantzkerak eta orrazkerak ez zuten salatzen bere jatorria. Frantsesa izan zitekeen, edo italiarra. Edonongoa. Aireportuaren dekoratua ez zen nabarmentzen bere figura, ez bada ederra zelako.

Ez dut maite sorpresaz harrapa nazaten eta enbarkatze gelan aulkia bilatu ordeztu nahiago izan nuen liburu-dendan ibili, bera jesarri arte. Ni agertuko nintzaion, neurea izango zen agerpena. Ez nuen nahi sustoa eman zekidan, nire atzetik ustekabea etorri eta lotsagabekeria berri bat boteaz aurpegira. Euskarazko libururik ez zegoen salgai eta gaztelaniazkoetan euskal idazle itzulirik ote zegoen egon nintzen bila, bitartean. Neure azken eleberria aurkitzea sorpresa ederra izango zatekeen. Baina ez. Zaharregia zen. Lau urte ziren gaztelaniazko bertsioa agertu zela, Al-faguaran. Nire lorpenik handiena, Espainiako liburu-dendetan arrakastarik izan ez bazuen ere. Idazle bizitza oso baten saria. Lau urte jada. Hots, aro geologiko bat merkatu editorialarentzat. Gomutan neukan, nostalgiaz, nola hainbat hilabetez ia toki guztietan ikusten nuen nire liburuen gaztelaniazko edizioa. Egia esan, uste dut ez naizela inoiz garai hartan bezainbat ibili liburu-dendetan. Hipermerkatuetan ere ibiltzen nintzen, liburuen sailean araka.

Nobedadez gainezka zeuden erakusmahaiak nahiz apalak. «Honen bila ari zinen?» galdetu

zidan Katxalynek, ulertzen ez nuen moduan nire alboan agerturik. Eramandako sustoa ahal bezala gorde nuen. Bere liburua seinalatzen ari zitzaidan, berriki gazteleratua, antza. Beheko apalaren mutur batean zegoen. Lengua de Trapo argitaletxeak argitaratu zion. Bere lehen liburua eta, zegoeneko, itzulita. Nik hogeitun urte itxaron behar izan nituen hori lortzeko. Ez zeukan Alfaguaran, baina itzulpen bat zen. Jakina, oso bestelako egoera zen euskal literaturak bizi zuena, ni idazten hasi nintzenean. Ni bezalakoetan lan isil eta nekezari esker lor zezakeen berak, egun, hain erraz itzulia izatea.

Irribarre zabal bezain isekariak begiratzen zidan. Zerbait asmatu beharra neukan. «Lehen itzulpena gauza garrantzitsua da. Aldatu egiten du norberak bere buruaz duen ideia. Zorionak. Erosi egingo dut, hegazkinean irakurtzeko». «Ez al duzu irakurri euskaraz?». Galdera lotsagabea zen, jakintzat jotzen baitzuen irakurria neukala. Eta hala zen. Ez zuen, beraz, zentzurik berriro irakurtzeak, ezta ere, hortaz, berriro erosteak. Gezurra esan niezaiokeen, alegia, oraindik ez nuela irakurri. Baina erdeinuzko jarreratzat har



zezakeen nire neurriko idazle batengandik. «Bai, bai, irakurria daukat. Baina beti merezi du itzulpenak irakurtzea. Jakiteko nola geratzen den beste hizkuntza batean. Euskara tronpagarria izan daiteke, gaztelaniaz hobeto ikusten da obraren *benetako* maila». Ez dakit ironia harra-patu zuen. Eta alea hartu nuen, eroatera etsitu-rik. «Et et et, gizona, emango dizut nik ale bat. Utzi hori hor, mesedez». Eta bere larruzko motxi-latik liburua atera zuen. «Dei nazazu Ander» au-sartu nintzen, unea egokia zelakoan hesiak bota-tzen hasteko, eta liburua nire zorroan sartzeko keinua egin nuen. «Itxaron, izenpetu egingo dizut». Bere buruaz zuen ziurtasuna txundigarria zen. Idazle kontsokratua bera balitz bezala joka-tzen ari zen. Ez nuen ikusterik izan zer idazten zuen. Liburua itxi eta berriro luzatu zidan. Ahalik eta neutroena nahi nuen tonuaz ahoskatu nuen lehenengoz bere izena: «Eskerrik asko, Ka-txalyn». «Nirea da plazera, gizona».

Ez ginen luzaz bakarrik egon. Handik gutxira batu zitzaigun losu Galarreta poeta, bera ere Do-nostia aldean bizi zena. Taldeko gainerakoak Loiutik abiatuko ziren eta Barajasen elkartzeko-

ak ginen denok, hegaldi handirako. Katxalyn baino ia hogeitaz zaharragoa izan arren, Galarrreta beti gazte itxura mantentzen tematzen diren idazle antikonformista autodeklaratu horietakoa zen. Solasean hasi ziren, Ilunben ikusi berri zuten hip-hop kantari bati buruz, ulertu ahal izan nuenez. Artistaren izena ezezaguna zitzaidan, artista dei badakioke hip-hop praktikatzen duenari. Ez nuen, hortaz, aukerarik izan elkarrizketan sartzeko eta, gaiari eusten ziotenez, bada, nire zorroan gauza baten bila banenbil bezala aritu nintzen, joko kanpo nengoela disimulatzearen. Hegazkinaren aurrealdean neukan jarlekua, beraiek atzealdean. Aldi berean frustraturik eta lasaiturik sentiarazi ninduen horrek. *El Diario Vasco* hartu nion besterik eskaintzen ez zidan azafatari. Nire ondoko gizon gorbatadun gizona eztulka hasi zen, gelditu ezinik.

Iberiko hegaldi transatlantikoa hamaika ordukoa zen eta, joanekoa egunez egiten zenez-egun hilezina, eguzkiaren lorratzean-, denoi denbora eman zigun eserlekuetatik altxatu eta

elkarrizketatxoak izateko. Gehienok elkar ezagutzen genuen, bakar batzuek ez. Bi katedradunak elkarren ondoan zeuden, erdiko eserlekuetan, eta ni lerro berean, baina leiho aldean. Juan Olabarria arduratu zen nire txartela hartzeaz -baita ordaintzeaz, unibertsitateko ikerketa proiektu baten diruarekin- eta bidaia ondoan egin genezan eskatu bide zituen tokiak. Gainerako lau idazleak, ni baino gazteagoak guztiak, binaka zihoazen: Galarreta «betiereko gaztea» Agurtzane Endikaren ondoan, eta Katxalyn, berriz, Kermin Minerren alboan.

Segurtasun uhala ken genezakeela adierazi zigun doinua entzutearekin batera, goialdeko maletategitik zorroa jaitsi nuen, tentsioaren aurkako pastilla hartzea ahortzi zitzaidala oroitu nintzelako bat-batean. Mia eta mia aritu nintzen une batez, baina ez nuen aurkitzen Lisinopriila. Ahortzi egingo zitzaidan? Bitartean, Olabarriak ikusi egin zituen bertan neramatzan hiru liburuak. Vasili Grossmanen *Vida y destino*, Robert Musilen *El hombre sin atributos*, eta Katxalynena. Eskua motxilan sartu eta, nola ez, hirugarrenari oratu zion. «Zer, kompetentziaren lanak az-

tertzen?» heldu zien batera gaiari eta liburuari. «Berak eskaini dit, gaur goizean» desenkusatu nintzen. «Ez dago batere gaizki» iruzkindu zuen Amaia Tudelak. «Itzulpena ala obra?» galdetu zion Olabarriak. «Biak». Olabarriak «puf...» esan nahi zuen begirada bota zidan, nirekiko konplizitate sortu nahian eta, bide batez, argi utziz bere lankideak gonbidatu zuela Katxalyn, ez berak. Olabarriak liburuaren alea eskuartean zerabilen, hizketan ari zen bitartean. Urduri jarri nintzen. Liburua lehenbailehen berreskuratu gura nuen, ez zezaten irakur Katxalynek idatzi zidan eskaintza. Ezin nuen arreta jarri bi katedradunak gurutzatzen ari ziren iritzietan, nire begiek liburuaren mugimenduak jarraitzen baitzituzten, nola katuak bere aurrean dantzan ari den pilotarena, atzaparra bota aurretik. Olabarriak liburua luzatu zidan orduan, besoa alboratuz, txikle bat proposatzean egiten den keinu beraz. Hartzera nindoanean, baina, berriro liburuari heldu eta, Tudelak emandako argudio bati erantzuteko, liburuaren aurkibidera jo zuen Olabarriak. Iruditu zitzaidan eskaintza begien aurrean eduki zuela une batez, baina, antza, ez ohartua-

rena egin zuen. Nire susmoa baieztaturik geratu zen Tudela komunera joateko altxatu zenean: oraindik eskuan zatxikan liburua ireki eta, hatz erakuslea eskaintzan jarriz, begirada galdetzailerak bota zidan Olabarriak. Egia esan, ez nekien zer pentsatu «Asaba zaharrak rockero zaharrak bezala dira, ez dira inoiz hiltzen» zioen eskaintza horretaz. Garbi zegoen ez ziola erreferentzia egiten liburuaren edukiari eta, hortaz, nirekiko zer edo zer bide zen. Bere blogean eta zutabeetan masakratu ninduen idazlearengandik zetorrela aintzat hartuz gero, zaila zen jakitea trufa ironiko bat gehiago ote zen edo mirespenezko adierazpen kriptikoa, alegia, barkamen eskaera inplizitua.

Buenos Aires hiri zabala da, izugarri. Kilometroak egin genituen lehen ateraldian, guztiak oinez. San Telmo auzo koloniala eta bere giro *bourgeois-bohème*-an murgildu ginen goizean. Kontzertuak nonahi kaleetan, zaharki merkatua, doako besarkada emaileak. Troupelean ibili ginen, koadrila euskaldun petoari dagokionez, Tudela

anderea gidari genuela. Argentinan familia zeukan eta ondo ezagutzen zuen hiria. Bazkarian egonaldiko lehen milanesa jan genuen, ilusio handiz bertako idi haragia dastatzeko. Gure arteko giroa ona zen, normala denez halako oporraldi mozorrotuaz profitatzen ari direnen artean. Ez nuen izan aukerarik Katxalynekin bakarka hitz egiteko, eta ez nuen bilatu ere abagunerik, ageriegiko interesik ez erakustearren. Gurutzatu genituen hitz bakarrak Galarretarekin batera galdera bat egitera etorri zitzaizkidanean izan zen. Merkatuko zaharkien artean *Martin Fierro* klasiko argentinarraren edizio horitu bat aurkitu zuten eta irakurria ote neukan hurbildu zitzaizkidan, kontsulta egitera. Ezetz esan nien, literatura argentinarraren zaharrari buruz ez nekiela ia ezer, hurbilagotik jarraitzen nituela egungo idazleak, «Conti, Neuman eta hauek, edota komiki argentinarraren garaikidea». Bota nizkien izenak ez zituzten ezagutzen eta pozik geratu nintzen. Lasaiturik ere, zeren izen horiek bezperan hotelean aurkitutako *Los Inrockuptibles* aldizkariaren edizio argentinarraren ale batetik nekizkien, eta beldur

nintzen Galarretak ez ote zidan usainduko bluffa.

Arratsaldean Boca txiroko etxe koloretsuak bisitatu genituen. Turistentzako tangolandia folklorikoa begitandu zitzaidan Caminito famatua, eta Donostiako Bulebarra irudikatu nuen, poxpolinez beteta, diru truke fandango bat dantzatzeko prest. Hotelera autobusez sartu ginen, aho batez erabakita. Sartu eta etzanaldi ongi merezia egin nuen, CNNko finantza krisiari buruzko berri kezkarriei begira. Ingelesezi ari ziren eta erdia baino ez nuen ulertzen, baina larria zirudien gertatzen ari zenak. Kate argentinarretan ere ekonomialariek zuten protagonismoa. Erreskate plan eskergak aipatzen zituzten, bilioika dolarrekoak, finantza erakundeak salbatzeko.

Afaltzeko hitzartuak ginen denok sarrerako hall-ean, eta dutxatu beharra neukan. Orduantxe konturatu nintzen emazteari ez niola oraindik deitu. Aireportura iritsitakoan saiatu nintzen, bezperan, baina mugikorraren sareak ez zidan deia baimendu. Emaztearen haserrea jasan be-

harko nuen, ondo merezia. Eta jasan nuen. Eguneko e-mail bat aginduz, eta hiru egunean behin telefono dei bat, egin genuen bake akordioa, halere.

Biharamun arratsaldean baino ez genuen lehen irakurraldia, Buenos Aireseko Laurak Bat zentroan. Hortaz, gauetz irteteko aukera ona zen, nahi zutenentzat. Nekatu samar geundenez, jetlagarengatik eta egunean zehar irentsitako espaloi kilometroengatik, hoteletik hurbil jatea hobetsi genuen katedradunek eta hirurok. Gainerakoek ez zuten protestarik egin eta otzan jarraitu ziguten. Janari argentinar tipikoa ematen zuten jatetxe bat aurkitu genuen, merkea -europarrontzat-. Milanesa eta bifea baino ez zuten ematen kasik, eta eguerdikoaren errepikapenak sabel txarra utzi zidan. Afariaren amaieran Olabarriak pattarra eskatu zuen eta «gazteak» batera altxatu ziren, hura seinalea izan balitz bezala. Galarretak izenez ezagutzen zuen pub batera zihoazen, Palermo viejo auzoan. Agurtzanek, Katxaly-ni besotik helduta, «Zer, bazatoz?» bota zidan, kortesiaz, nik uste. Eskertu nuen, nolana ere, ez nintzan sar erabat katedradunen taldean. Ez



nintzen Olabarria eta Tudela baino gazteagoa, egia da, baina -idazle izatearen pribilegioak- irudi gazteagoa bide neukan.

Ez genituen berriro ikusi «gazteak» hurrengo eguneko bazkalordura arte. Ordu gutxiko loarengatik begitarte uhertuez agertu zitzaizkigun mahaira. Bederen, Agurtzane, Kerman eta Galarreta. Katxalyn hotelean geratu omen zen, arratsaldeko saiorako testua ez zeukalakoan erabat prest. Berriro ere milanesak eta bifeak baizik zerbitzatzen ez zituzten jatetxe batean geunden, Corrientes etorbidean. Barazkiak jateko beharra neukan, komunera joan gabe bainengoen iritsi ginenetik. Hesteen lana errazteko zerbaiten bila ibili nintzen, goizaldean, nire bidaideen begiradatik urrun. Errezetarik ezean, farmazian ez zidaten berriro nahi izan tentsioaren aurkako Lisinoprilak. Estresa gehitu zidan horrek. Gaueko afaria argentinarra ez zen toki batean egitea proposatu nuen. Denek bat egin zuten nire eskaerarekin. Tudelak oroitarazi zigun, ordea, Laurak Bat zentrokoek emango zigutela afaltzen, saioaren ondotik. Biharamunerako utzi genuen, etsiturik, beste janari mota bat aurkitzeko xede utopikoa.

Nazioarteko liburu azokaren garaia zen -uda-berria guretzat, udazkena han- eta, aitzakia horrekin, egungo «euskal literaturaren panorama bizi bat» eskaini behar genuen Laurak Bat zentroko euskaldun jatorriko argentinarren aurrean. Olabarriak egitaraua eman zigun, postrea jaten ari ginela. Lehenik Katxalyn arituko zen, ipuin batekin, ondoren Olabarria bera, «Euskal literatura globalizazioaren aroan» izeneko hitzaldiarekin, hurrena Galarreta, bere bidai liburuen zatiak irakurriz, ondoren Kerman Miner, bere olerkiekin, gero Tudelak jarraituko zuen, «Emigrazioaren irudiak XX. mendeko euskal testuetan» aipatuz, eta Agurtzanek eta neronek emango genion amaiera saioari, ipuin banarekin. Dena gaztelaniaz, jakina. Testu zatiren bat edo beste euskaraz irakurtzeko aukera aipatu genuen eta katedradunek esan ziguten posible izango zela, are, komeni zela, neurrian eginez gero.

Saiora arteko orduak Corrientes kaleko saltoki eta liburu-dendetan igaro genituen. Bazegoen zer begiratua. Agurtzane eta Kermanekin ibili

nintzen, pozik katedradunak atzean utzi nituelako. Agurtzane neska zintzoa zen, txit angustiatua, baina argia. Bere ipuingintza ezagutzen nuen apur bat, prentsan zatiren bat edo beste irakurtzetik. Tematika femenino-feminista zen berea, ipuin intimista konprometituak. Kerman olerkari neo-sentibera horietakoa zen, pertsona larrietzako problematika serioei baino gauza txikiei erreparatzea nahiago zuena, bere «nitasunetik». *Not my cup of tea*, esaten denez. Baina mutil ona. Eta, batez ere, miresmena zidaten. Biek ala biek. Nabari nuen errespetua zidatela. Ziurrenik ikastetxean nire liburuak eman zizkietelako irakurtzeko, eta horiekin hasi zirelako literaturara hurbiltzen.

Ordu pare bat igaro ondoren liburu zahar nahiz berriz jositako apalen artean, gustu guztietarako liburu-dendak baitzeuden han, eta ehunka gainera, atsedentxo bat hartzea deliberatu genuen. Etorbidearen perpendikularrean patioa zeukan bar bateko terrazan jarri ginen, udazkeneko eguzki printza ahultzen hasiez gozatzeko. Coca-Cola Zero bana hartu zuten. Garagardoa nik. Agurtzanek deia jaso zuen mugikorrean. Ka-

txalyn guregana zetorren. Agurtzaneri galdetu nion ea bere mugikorrek hasieratik funtzionatzen zion, alegia bidaiaren hasieratik. Baietz esan zidan. Nirea motxilatik atera nuen eta piztu. Funtzionatzen zuen. Emazteari sms bat bidali nion, dena ondo zihoala esanez eta telefonoa bazebilela. Bidaltzeko botoiari sakatzean konturatu nintzen Donostian gaueko hamarrak izango zirela. Ez zen beranduegi mezua bidaltzeko.

Katxalyn atsedena hartuta zetorren, siestaren onura aurpegian. Ederra zegoen, saiorako jantzita. Hau da, *oraindik* ederrago. Hain ederra ze ez nekien nola begiratu hertsagarria edo pisua bihurtu gabe. Begirada neutro bat aurkitzen saiatu nintzen, trisomiko baten aurrean egokitzean hartzen dugunaren antzekoa. Horrez gain, tarteka, begiak beste zerbaitetan finkatzen ahalegintzen nintzen, bere hazpegi harmoniatsu eta gorputz ikusgarriaren erakarpenari erresistituz. Batere ez begiratzea ere baneukan. Baina hori sakrifizio handiegia zatekeen, sufrimendu iturria, eta, funtsean, naturari egindako iraina. Berak harridura apur batekin begiratzen nindue-

la ohar tu nintzen bat-batean. «Non utzi dituzu katedratikoak?» galdetu zidan, zirika. «Arinegi doaz ni bezalako zahar batentzat» erantzun nuen, borroka dialektikorako prest. «Zer moduz dago hemengo garagardoa?». «Tira...». «Nahi al duzue beste edari bat?» galdetu zigun denoi jarraian. Agurtzanek eta Kermanek ez zuten ezer nahi. Bigarren garagardoa eskatu nuen, ez baka- rrik uztearren. Berak Coca-Cola Zero bat. Saioa- ren nondik norakoez eguerdian adostutakoa ai- patu genion. «Hortaz, ni hasiko naiz?» ondorioz- tatu zuen, pozik. Altxatzeko ordua iritsi zitzaigu- nean gure azken bi edariak ordaindu nahi izan nituen, baina ez zidan utzi. «Nirea da plazera, gi- zona» bota zidan.

**Laurak Bat** euskal etxea zen, esapidearen zen- tzu literalean. Euskal estiloko etxea, alegia, zu- rezko egitura, armarri eta guzti. Bertako jendeak harrera beroa egin zigun. Adinean sartuak ziren gehienak, euskara zekiten askok, kurioski gurea baino egiazkoagoa zirudien euskara, ederragoa behintzat, hitz batean esateko: euskara batua

baino lehenagokoa. Bisita eginarazi ziguten lehenik, eta aurkezpen zeremoniatsua izan zen denona. Argentinan estilora: hitzez oparo, diruz urri. Politikariek erabili ohi duten moduko atril bat zeukaten jarria aretoaren erdia estaltzen zuen oholtza finkoaren erdian. Ikurrina margotu bat zen atzealdeko pareta osoa. Pixkanaka, jende gazteagoa ere hurbildu zen, laneguna amaituta. Baita argentinan ez-euskaldun batzuk ere, gerora jakingo nuen. Literaturzaleak.

Zutabeen garai mingotsenera itzuli ninduen Katxalynek saioari hasiera emanez irakurri zuen ipuinak. Sentsazioa, gainera, are mingarriagoa izan zen gaztelaniaz irakurri baitzuen bere ipuina, adostu moduan. Militante gazte baten atzetik desesperaturik dabilen buruzagi abertzale heldu eta masokista bat zuen hizpide. Eta beste inor ohartu ez bazen ere -kontakizuna euskal politikagintzaren munduan kokatzeko lana hartu baitzuen-, nik ondoegi nekien nori zuzenduta zeuden gezi pozoitu haiek. Tarteka burua atriletik altxatu eta niri begira geratzen zen, irribarretsu. Orduan, irakurketak lehortutako bere ezpain

pulpatsuei miaskada batez distira itzuli eta jarraitu egiten zuen.

Ipuineko politikari adinduak inpotentzia erabatekotik ikusten zuen nola bere erretorika supituki zaharkituta geratzen zen, neska militante ezezagun hark hitza mitin batean lehenengoz hartzen zuen egunean. Eta okerrena zen berak ematen ziola hitza begiz joa zuen neskari, pentsatuz erabaki eskuzabal horren bitartez bereganazakeela. Hortik aurrera, buruzagi politikoa-ren gainbehera patetikoaren kontakizuna bihurtzen zen Katxalynen testua. Gizona erdibiturik zegoen: alde batetik, neskari alderdiko promozio bideak ixteko gogo mendekatzailea hauspotzen zion deabrutxoa, bestetik, sedukzio ahaleginari eusteko aholkatzen zion bigarren deabrutxoa. Eta neskak irabazten zuen, nola ez, isileko gerla hura, maisuki erabiltzen jakinen baitzuen balizko harreman sexualaren promesa nahi zuen oro lortzeko gizonarengandik, umiliazioraino.

Laurak Bat zentroko jendeak txalotu egin zuen ipuina, baina ez gustatu zitzaiolako, baizik eta Katxalynen figura gazte eta limurtzaileak emozio *fisikoa* eragin zielako han bildutako gizon

zaharrei. Ondo nekien hala zena, pertsonarik egokiena bainintzen zirrara hori identifikatzeko. Inoiz Euskal Herriko lurra zapaldu ez zutenei ere herrimina sentiarazi zien Katxalynek. Irakurketa bukatu bezain laster, nola erleek erregina inguratu zuten, «bárbaro!»-ka.

Niri ipuina bera ere gustatu zitzaidan, norberaren zigorra maitatzea baldin badago. Ez nuen txalotu, ordea, nire gogoeten zurrunbiloan sartu baininduen irakurketak. Jendaurrean biluztu nindutelako sentrazioa neukan eta ez nintzen ausartzen gure delegazio txikiko beste kideei begiratzerara, beraiek ere gauza bera ulertu zutela konprobatzeko beldurrez.

Dena zeukan ipuinak, hots, idazle gisa bilatzen nuen oro. Pertsonaia sinesgarriak, Katxalynek hain berea zuen idazkera ironiko bezain arin hura, probokazioa, eta batez ere tentsioa... Eta, gainera, onartu beharra neukan euskal mundu politikoa erabiltzea ideia aparta zela, modu horretako drama sexuala girotzeko. Ez zen inoiz ikuspegi horretatik tratatua izan gaia. Damuara zi ninduen. Aurretik ideia neroni bururatu ez zitzaidalako.



Txaloak bildu eta nire ondora etorri zen Katxalyn, Olabarria bere hitzaldia emateko altxatu zenean. Beste toki batean ere eser zitekeen. Agurtzaneren ondoan, esaterako, bi aulki libre zituen, baina nire ondora etorri zen. Delegazioko guztiek zoriondu zuten. «Oso ondo», «Earra, hi», «Hau ez dago argitaratuta, ezta?», «Pikantea, neska, zu bezala». Zerbait esan beharra neukan. Esatea zegokidan. Jendetasunez, besterik ez bazen. Horretarako etorria zatekeen nire albora, erramu koroa niregandik jasotzera. Ez nekien, baina, zer esan. Nola esan. Eta, oroz gainera, zenbat esan... «Enhorabuena. Fue un agasajo para mis oídos escucharla a vos» hartu zidan aurrea atzeko lerroan zegoen euskaldun-argentinar agure batek. «El placer fue mío, señor» erantzun zion Katxalynek. Hari ere.

«Dedikatzea baino ez zitzaizun falta» esateko gogo bortitzak hartu ninduen bat-batean, baina lapsus nabarmenegia zatekeen eta definitiboki jokoz kanpo utziko nindukeen halako portaerak. Horren orde, «Zer, gustatu da, ezta?» hotz bezain narritagarria atera zitzaidan. Oheratu arte eduki nuen buruan bueltaka nire iruzkin hori.

Ezin nuen trenkatu egoki jokatu nuen ala ez. Egoki moralki -berriro ere haginak sartu baitzizkidan suge hark, eta min egiteko asmoz gainera-, eta egoki taktikoki -bere eraso horien bitartez *beste* zerbait adierazi nahi zidalako itxaropena ez bainuen erabat galdua.

Oro har, gure saioa nahiko ondo joan zen. Luzeegi, aukeran. Katedradunak «pasatu» egin ziren beraien hitzaldiekin. Ordu erdi luze bakoitzak. Agurtzane eta Kerman poliki aritu ziren, beraien mailan. Hasiberrienean, esan nahi dut. Agurtzaneren ipuina, alabaina, kurioso samarra izan zen. Harreman safiko bat kontaktzen zuela iruditu zitzaidan, baina ez nengoen seguru. Euskaraz irakurri zuen eta narrazioko izenordainak ez ziren, hortaz, lagungarri anbiguotasuna argitzeko. Kerman bere amonaz aritu zen, emozioa sortu nahi bide zuen testu batekin. Galarretaren bidai kontakizunak ez zuen interes handiegirik piztu. Poztu nintzen. Saharako tuaregen artean egindako egonaldia zuen kontagai. Han aurkitu omen zuen «gure mendebaldeko munduan gal-

dua dugun egiazkotasuna». «Bejondeiala, eta gelditu han, izan hadi txit egiazkoa, gure partez» pentsatu nuen neure artean. Eta nirea, bada, pasiorik gabe joan zen, baina ondo hartu zutelakoa nago. Olabarriak nire izenari dagokion ponparekin aurkeztu ninduen, eta biolentzia politikoa-ren zeharkako salaketa zen aspaldi samarreko kontakizun argitaragabe bat irakurri nien, ordenagailuko disko gogorraren zokoren batetik erreskatatua. Laurak Bat zentroko gizon trajedunak niregana hurbildu ziren bukaeran, zoriontzeko eta bat egiteko terrorismoaren gaitzespenarekin. «Ése no es el camino». Bekaizti ikusi nuen nola jende gazteagoa, baita han zegoen kazetari bakarra, Katxalynengana joaten ziren. Ulertu ahal izan nuenez, gazte horiek aldizkari literario bateko erredaktoreak ziren, ez zuten euskal jatorririk, eta elkarrizketa bat egin nahi zioten. Argazkiak ateratzen ibili ziren han bertan. Ez nuen jakiterik izan, belarria luzatu arren, aurretik Katxalynen berri zuten edo saioa entzun ostean aukeratu zuten beraien elkarrizketarako.

Afarian nigandik urruti jarri zen Katxalyn, Tudela bere babeslearen alboan. Agurtzane eta

Kerman «fan»ek eutsi behar izan zioten, hartara, nire aldarte eroriari. Atera zizkiguten milanesez ez zidaten lagundu, bestalde, animoa altxatzen. Hotelera sartzean, berandu izanik ere, telebista piztu nuen, nire ideia ilunei izkin egitearren. *Der blaue Engel* UFA estudioetako klasikoa ematen ari ziren, eta Katxalynen aurpegia ipini nuen Marlene Dietrichenaren tokian, masturbatzen nintzen bitartean. Aingeru urdinaz zoroki maite-mintzen den literatura irakasle zaharraren tokian nor ikusi nuen esatea soberan dago.

Hurrengo eguneko txango turistikoari uko egin nion. Gaizki lo eginda nengoen, oheratu aurretik masturbatzeak, lasaitu beharrean, urduritu ninduelako. Edo jet-lag-a zen, besterik gabe. Gosarira azaldu eta han bilduak zeuden taldekideei -batzuk oraindik lo bide baitzeuden- esan nien ni gabe joan zitezkeela. Taldea bitan banatu zen. Katedradunek Ateneo liburu-denda ezagunera joateko asmoa zuten eta ondoren shopping pixka bat egitera, Florida kalera edo Pacífico galerietara. Euroa indartsu zegoen eta profitatu

behar omen zen, dixit Olabarriak. «Eurorik izanez gero, noski» lerratu zidan belarrira Kerma- nek. Agurtzanek adierazi zigun gainontzekoek itsasontzia hartu eta Uruguaiako Colonia hirixora joatea erabaki zutela, egunpasa. Gaueko afarira- ko denok batzea adostu genuen. Jendea agurtu, egun ona opa eta gelara itzultzeko asmoz altxa- tu nintzenean, Agurtzanek gelditu ninduen: «Ander, galdera bat. Atzo irakurri zenuen testua aipa dezaket? *Berriarako* gure egonaldiaren kro- nika bat idazten ari naiz eta jakin nahi nuen ea aipa dezakedan zure atzoko ipuina. Badakit argi- taragabea dela eta, horregatik...». «Noski aipa dezakezula. Ondo jartzekotan, hori bai». «Oso ona iruditu zitzaidan». «Lasai, txantxetan ari nin- tzen. Besterik?». «Ez. Beno, bai. Zera, nahi baze- nu etor zintezke gurekin Coloniara». «Ez, ez. Es- kerrik asko, Agurtzane. Hemen geratuko naiz. Ez kezkatu».

Pena ematen nion. Neska jatorra zen Agur- tzane. Formal samarra, baina jatorra.

Gelara sartu eta berriro puska bat lo egiten saiatu nintzen. Alferrik. Hoteleko mugimendua handia zen ordu horretan. Dutxatu eta janzte

erabaki nuen, kanpora joateko. Paseatuko nintzen, eguraldiak uzten bazidan, goibel baitzegoen zerua. Beharbada zinemara joango nintzen. Ondo hartzen ninduen loak zineman, eskuarki. Errezepziora iritsi eta, bertan zegoen bezeroentzako ordenagailua libre zegoela ikusita, aurrean eseri nintzen. Buenos Aireseko jatetxe asiaticoen bila hasi nintzen. Edo italiarrak. Edo errusiarrak. Berdin zitzaidan. Kontua zen milanesarik zerbitzatzen ez zuten toki bat aurkitzea. Paper txo batean markatu nituen zenbait helbide. Ordenagailuaren mahaitxoan Colon antzokiaren prospektu bat ikusi nuen, beste batzuen artean. Bisita nezakeela bururatu zitzaidan. Eta emaztea ekarri zidan horrek gogora, operazalea baitzen. Emazteari sorpresa egitea erabaki nuen, telefonoz deituz, nahiz eta ez izan adostutako eguna. Normalean e-maila igortzea zegokidan egun hartan. Nik neuk jarriak ziren arauak. Baina pozik jarriko zen, ziur. Eta, edozelan ere, banuen beharra berarekin hitz egiteko, nahiko apal sentitzen bainintzen. Mugikorra jakaren sakelatik atera eta zenbakia markatzeari ekin nion. Ez zuen erantzuten. Mugikorraren ordularia begiratu eta Do-

nostian arratsaldeko laurak zirela ikusi nuen. Lamera itzulia zatekeen. Erantzungailua. Mezu bat utziko nion. «Kaixo maitea, zer moduz hor? Badakit ez dela adosturiko eguna, baina bat-batean zure ahotsa entzuteko gogoia izan dut...». Esaldia burutu gabe eten nuen. Katxalyn neukan nire aurrean, ordenagailua hatz erakusleaz seinalatzeko zidala. «Deituko dizut geroago» laburtu nuen mezua, nire ahotsak eduki zezakeen kutsu intimoa ezabatuz. «Hartu, hartu. Bukatu dut» esanez laga nion tokia Katxalyni. «Zer, esnatu berria?» galdetu nion, zerbait gehitzearren. «Keba. Footing egitera joan gara goizean goiz, Galarretarekin, ondoko parkera» erantzun zidan. Ez nuen jakiterik izan adarra jotzen ari zitzaidan. «Beno ba, ondo ibili Colonialan» itxi nuen elkarrizketa, berari plazer hori ez uztearren. «Ez goaz Agurtzane eta Kermanekin» zehaztu zidan, e-mail bat idazten ziharduen bitartean, begiak pantailari itsatsita. «A, ez?» harritu nintzen. «Evita Peron ehortzia dagoen kanposantura joateko asmoa daukagu Galarretak eta biok. Ederra omen da, badakizu, Père Lachaise argentinarra. Eta gero hortik bazkalduko dugu. Nahi duzu gu-

rekin etorri?». «Beno...» hasperena atera zitzaidan. Benetako proposamena zirudien, ez adeitazuneko esaldi bat. Ez nuen ulertzen, baina, zergatik egiten zidan. Dutxa izoztua eta dutxa beroaren alternantzia etengabea. Bazirudien horizela nirekiko estrategia. Estrategiarik baldin bazuen. Ezetz esan beharko niokeen. «Zergatik ez. Baina ez dakit, ez nuke neure burua inposatu nahi...». «Ixo, gizona. Proposatzen badizut...».

Ez zen plan ona. Nekatuta nengoen eta Galarreta ez nuen maite. Antipatia zidan berak ere. Deklaratua eta aspaldidanikoa. Esan dudanez, zimurtzen hasitako «beti errebelde» horietakoa zen, abenturazalearen hiru eguneko sasi bizar kalkulatu egia zeraman beti, «gazte» jan zuten... Eta, oroz gainera, gaizki idazten zuen. Nahiko saltzen zuen arren, bere mailan. Klasiko egitza nindukan berak, akademikotzat. Ez bide nintzen aski «alternatiboa» bere gusturako. «Idazle dezimononiko»tzat jo ninduen orain dela hamarkada pare bat ia, *Susa* aldizkarian atera zuen erreseina batean. Afera da ezin eraman zezakeela ni goragoko kategorian egotea, alegia, benetan profesionaltzea lortu duten euskal idaz-



leen klub hertsian. Ez nion ikusten emakume gazteak maitemintzeko adina kalitaterik -espero nuen Katxalynek gustu hobea izatea-, ezta asmorik ere, itxuraz. Nahiz eta, egia esan, Katxalyngatik ez bazen, ez nuen ulertzen zergatik zihoan Galarreta halako toki bat bisitatzeraz. Katxaly ni behintzat bazirudien ondo zetorkiola Galarreta ondoan edukitzea.

Hilerriak bazuen bere xarma, baita Recoleta auzoak ere. Toki lasaia zen eta ez zigun euririk egin. Hilobia bera sinplea zen, nahiz ez xumea. Duarte familiaren izena zeraman marmol eta brontzezko etxetxo bat zen, ateduna. «Ba al zenekiten Evita gure Oteizarekin oheratu zela, oraindik Peron deitzen ez zenean?» irakatsi zigun Galarretak. Gogoratu nintzen aurreko urtean Evitaren euskarazko biografiatxo bat argitaratu zuela. Enkarguzko lanak ziren, idaztetik bizitzeko onartu beharrekoak, azaldu zigun aitortu beharraz lotsaturik.

Jatetxe baten bila hasi ginenean, argentinarra ez zen zerbait bilatzea iradoki nuen, beste behin. Galarretari berdin zitzaion eta Katxaly bat zetorren nirekin. Baina auzo hartan ia dena

zen milanesaduna. Azkenean, ikusirik ni nintzela bakarra beste janari mota bat aurkitzearren urrutirago joateko prest zegoena, bada, amore eman behar izan nuen. Eta jan gabe geratu nintzen, alegia okelarik jan gabe, ondo nekien arren maniatikotzat hartuko nindutela. Entsalada bat hartu nuen, eta zuzenean postrera igaro nintzen, fruta mazedonia. Mahaira ekarri zuten ogi guztia lapurtu nuen, hori bai. Itxura oso tristea izan behar nuen, ezen, kafea hartzen ari ginela, Katxalynek esan baitzidan, bere eskua nirearen gainean utziz: «Nekatuta, ezta? Zoaz lasai hotelera, nahi baduzu. Afalorduan batuko gara denok». Kontsolatu nahi ninduen, indarge ikusten ninduelako. Bizkarra zuzendu, sorbaldak atzera bota, burua altxatu eta nekea ukatu nuen. «Ez da nekea, asperdura baizik». Lehorregi erantzun nion beldurrez, segituan gehitu nuen: «Hemengo janariarekin nago gogaituta». Terraza batean geunden eta Galarretak bere hanka luzeak zabaldua zeuzkan, cow-boyen antzera, orduantxe agertu zen eguzki errainuaz narrastiaren antzera gozatu nahi bailuen. Zigarro bat piztu eta Katxaly ni ere beste bat luzatu zion. «Zuk ez duzu

nahi izango, ezta?» bota zidan, hamar segundo geroago. «Hotelera joango naiz. Izan ere, bihar-ko ipuina bukatzeke daukat» asmatu nuen gezurra, erretirada mozorrotzearren.

Kostatu zitzaidan autobus bat aurkitzea. Hogei minutu igaro nituen auzoan itzulika, alde-rrai, zehazki non nengoen jakitera iritsi gabe, nekatuta. «Cuadra» batetik bestera bidaltzen ninduten bidea galdetzen nien porteñoek. Langarra hasi zuen eta ez neukan aterkirik. Hotelera melamela eginda iritsi nintzen, eta hozturik. Eskertu nuen gelako berogailua piztuta egotea. Emaztea deitza ahantzi zitzaidala ohartu nintzen, baina ez nuen adorerik. Eta, dena den, berandu zatekeen Donostian, beranduegi deitzeko. Bustiak nituen jantziak erantzi, erradiadoreen gainean jarri eta loak hartu ninduen, irekitzeko indarririk izan ez nuen hoteleko ohearen gainean.

Esnatu nintzenerako arratseko bederatziak ziren. Zortzi eta erdietarako finkatua genuen afaltzera joateko hitzordua. Armairuan aurkitu nituen lehen arrokekin jantzi eta errezepziora jo nuen. Han zeuden denak, Tudela izan ezik. Ez

nenbilen, agi zenez, oso atzeraturik. Tudela hortik gutxira elkartu zitzaigun.

Azkenean, jatetxe ez argentinar batean jatea lortu genuen. Mexikarra zen. Baina, ondo begirata, egon bazeuden kartan betiko milanesak, guakamole, tako eta antzekoen artean disimulatuturik. Behingoz, gustura jan nuen gastronomiko-ki hain maila apalekoa iruditzen zaidan janari mexikarra. Baneukan premia aldatzeko. Umortsu egon nintzen, gozatu nuen, lehenengoz abiatu ginenetik, konpainia onean egotea eta etxetik urrun. Ustekabeko lo kuluxkaren ondotik sasoiarenengoan, goiz bati dagokion energiaz kargaturik. Beste guztiak, aitzitik, neka-neka eginda zeuden, lotara lehenbailehen joateko irrikaz. Inork ez zuen nahi izan nirekin arratsa luzatzea. Biharamunean egun luzea izango genuen, Buenos Airesetik autoz ordubetera zegoen La Plata hirira joatekoak baikinena bi egunerako. Hango unibertsitatean hitzordua zuten gure katedradunek, bertako ikasleei hitzaldi bana egin eta hurrengo urterako kongresu baten antolakuntza negoziatzeko. Hotelera sartu beste aukerarik ez nuen izan, hortaz, afalostean. Errezepzioko ordenagailuan

egon nintzen nabegatzen eta e-mailak ezker-eskuin bidaltzen. Emazteari ezin nionez deitu ordu horretan, bada, mezu luze bat idatzi nion.

Ez nintzen logale, baina, zer egin ez nekienez, gelara igo nintzen. Nire gelako atea irekitzen ari nintzela, Katxalyn ikusi nuen, Agurtzane-  
ren gelatik ateratzen. Bere gelara iristeko nire aurretik igaro behar zuen. Oinutsik zetorren eta pijaman, hau da, gaurko neska gazteen pijaman: short estu bat zeraman behealdean eta bularraldea doi-doi estutzen zion tirantedun elastiko zuria goialdean. Odola berotu zitzaidan lipar batean. Ilea harrotu zitzaidan, literalki. Urteak ziren nire gorputzak ez zuela horrela erreakzionatzen. Harrituta nengoen. Itxarotea erabaki nuen. Indarberrituta sentitzen nintzen eta, abagunea ikusiz, egoera baliatu nuen: «Eskerrik asko goizeko txangoagatik... Egia esan, jet-lagarengatik porru eginda nengoen, baina ederki pasa dut» aitortu nion, ahapeka ia. «Ez horregatik» erantzun zidan, ozen, aharrausi eginez. «Gonbidapen bat zor dizut» ausartu nintzen. «Ez zaude zorretan, gizona. Gure literaturaren historia puska batekiko adeitasuna gutxienekoa da. Gabon». Eta

bigarren aharrausi bat egin zuen urruntzen zen bitartean. Dutxa hotza.

Short estuek ikusten uzten zuten bere ipurmasail perfektuen dantzarena izan zen nire gelara eraman nuen eguneko azken irudia. Ahoa eskuaz estaltzeko lanik hartu gabe egin zituen aharrausi horiek, egiazkoak ziruditen arren, narritatu ninduten, zera esan nahi baitzuten, bost axola nintzaiola. Bere hitzek ere ez zuten besterik adierazten, hotzean aztertuz gero. Amorratzen nengoen. Oroitu nintzen Recoletan geundenean nola utzi zuen bere eskua nirearen gainean. Ar-mairuko ispiluaren aurrean paratu nintzen, gal-tzetan baina soin-hutsik. Oraindik ere lerdena nintzen arren, arnasa moztu eta tripa sartu behar izan nuen soslai onargarria lortzeko. Beso, abdomen nahiz bularretako giharrak batera uz-kurtu nituen hurrena, eskuak izterren parean el-kartu eta besoez pintza bat osatzen nuela, kultu-risten antzera. Behialako muskulazio saioen arrastoek hor zirauten. Baina horixe ziren, arras-toak. Laurogeiko hamarkadan, gimnasioak modan jarri zirenean, astean bitan joan ohi ginen emaztea eta biok. Bereziki harro egoten nintzen

nire bular giharrez. Egia esan, ez zuten bolumenik batere galdu. Bai ordea tentsioa. Horregatik, indar egiteari uzten nion unean berean nire bularrek itxura femeninoa hartzen zuten, behe-ranzko joera nasaia. Titiak neuzkan. Haatik, ez nengoen txatarreriarako. Irritsek bizi ninduten oraindik. Nire baitako gizontasuna hiltzen zihar-duen Katxalynek, gupidagabe, eta arrazoirik gabe. Aurpegia gorritzen hasia zitzaidala ispi-luan ikusita, kolpez hustu nituen birikak. Tripak kanporanzko joera nasaia berreskuratu zuen. «Urdanga» atera zitzaidan. Eta masturbatzeari ekin nion, begiak itxiz bere ipurmasailen dantza hobeto bisualizatzearren.

Baina laster utzi nuen ekina. Lanen zorroan nituen orri zuriak hartu eta idazten hasi nintzen. Aspaldiko partez ideia on bat bururatu zitzaidan. Idatziko nuen ipuin berriaren bukaera etorri zitzaidan. Gainerakoa asmatzea baino ez zitzaidan falta, eta ez zen zailegia izango, hain bukaera bikaina edukita.

Gauaren zati luzeena igaro nuen idazten, kafearen beharrik gabe, amorruaren laguntza hutsaz. Egunabarrak idazten harrapatu ninduen. Ordulariari begiratu eta ohartu nintzen ordu bat bakarrik geratzen zitzaidala gosaldu aurretik. Uste baino luzeagoa ateratzen ari zitzaidan ipuina. Saiatu nintzen lo apur bat egiten, baina ipuinaren egiturari buruzko kezka eta ideia berriak dantzan zebilzkidan buruan. Azkenean lorik batera egin gabe azaldu nintzen gosarira. Berriz ere kale egingo niela adierazi nien taldekoei. Alegia, ez nindoala La Platara. Barkatzeko, ipuin berri batekin lanean ari nintzela, eta ostegun gaueko irakurraldian aurkezteko asmoa neukala. Esan zidaten pozten zirela inspirazioa berraurkitu bide nuelako. Zoro baten itxura izan behar zuen nireak, ikusita nola begiratzen zidaten. Ohartu nintzen jertsea alderantziz jarrita nerama, Benetton logotipoa bizkarraldean. Abiatu ziren. Lotara joan nintzen.

Ordu batak aldera jaiki nintzen. Egun ederra zen. Airearen epel zatorren itsasaldetik, ipar-ekialdetik beraz, ondorioztatu nuen. Hotelaren ondoko supermerkatu batean edateko jogurta, lau



sagar, almendrak, ogia, eta izokin keztatu xaflak erosi nituen. Gelara itzuli, CNN aurrean jan eta astearte zela jakin nuen. Erreskate plan esker-gak iragartzen ari zen George Walker Bush. Finantza erakundeek diru injekzio ikaragarriak behar omen zituzten krisitik irteteko. Hortaz, ia bi egun neuzkan ipuina bukatzeko. Kalkulatu nuen Centro Vasco Euskaltzaleak-en emango genuen saiorako lehen bertsio irakurgarria bukatua izango nuela. Testuaren orrazketa, berriz, bi-daiaren ondoren egingo nuen, presarik gabe.

Biharamun gauean itzuli ziren taldekideak La Platatik eta ondoko eguneko gosarian baino ez nintzen elkartu beraiekin, ostegun goizean beraz, berriro lotara sartu aurretik.

Saio aurretiko azken arratsaldea lasai joan zen. Edo ni nintzen, hobeto esatearren, lasai nengoen. Goizeko loaldiak berri ninduen. Baina, batez ere, azken hirurogeita hamabi orduetan burututako lan eskergak urte osoan ez idazteagatik pilatutako kontzientzia txarraren bihotzereera kendu zidan. Ez neukan tentsiometrorik,

baina apustu egingo nukeen apaldu zitzaidala tentsioa, pastillarik hartu gabe hiru egun, osoak, neramatzan arren. Aspaldiko partez idazle sentitu nintzen berriro. Katxalynek sartu ninduen zultotik ateratzeko modua aurkitu nuen azkenean. Ipuin berriarekin, gainera, ezohikoa zitzaidan idazteko modu bat esperimentatu nuen, estilo desberdin bati hasiera eman nion, neure burua berrasmatu nuen. Baten bat bere aulkitik erorazteko moduko testua zelakoan, irrikaz nengoen taldekideen aurrean irakurtzeko. Katxalynen aurrean bereziki.

Argentinako lehendakaritzaren egoitza den Casa Rosadaren inguruak bisitatu genituen. Puerto Deportivoa, Catedral Metropolitana neoklasiko ikusgarria. Hiriko metro linea zaharrean itzuli ginen gero hotelera, garaiko zurezko bagoi batean. Arropaz aldatu, gure testuak hartu eta abiatu ginen.

Centro Vasco Euskaltzaleak ez zegoen hoteletik urruti. Autobusez iristea zegoen, aldaketa bakarra eginda. Halere, taxia hobetsi genuen. Merkea zen guretzat, eta uste baino justuago genbiltzan denboraz. Euskaldunak ote ginen gal-

detu zigun gidariak. Berak ere euskaldun jatorria omen zuen. Guztiz sentimentala jarri zen Kermanek Ataun aipatu zionean. Bere birraitona ataundarra zen. Ez nekien, jada, zer pentsatu, ordura arte hartu genituen taxista guztiek zutelako familia euskalduna. Bezeroari gehiago ordainarazteko jukutria ote zen? Eusketxe-Casa de la Cultura Vasca jartzen zuen eraikin baten aurrean gelditu ziren gure bi taxiak. Ezetz esan genion gure txoferrari, Centro Vasco Euskaltzaleak zela gurea. Baina hark, larritu gabe, hau zela esan zigun, «México 1880, ¿viste?». «Zer dio honek? Iraultza mexikarraz berba egin nahi du, ala?» urduritu zen Kerman. Baina, Olabarria bigarren taxitik jaisten ikusi genuenean, dirua atera eta ordaindu egin genion gidariari.

México, kalearen izena zen, eta 1880, berriz, zenbakia. Luzeak ziren hemengo kaleak. Eta El-karte mordoxka baten egoitza zen eraikin hura, besteak beste Eusketxe deitzen zuten Casa de la Cultura Vascarena eta Centro Vasco Euskaltzaleak-ena. Giro gaztea topatu genuen, Laurak Bat zentrokoa baino ezkertiarra goa, nolabait definitzearren. Ibarretxeren autodeterminazio eskubi-

deari buruzko kontsultaren aldeko afixak zituen eraikinak kanpoko erakusleihoan, eta euskara ikasten ziharduen bertan jendeak, seriocki, ziru-dienez. Hortik, apika, irakurketen erdia euskaraz egiteko eskakizuna.

Olabarriaren hitzaldiarekin hasi zen saioa. Gaztelaniaz jardun zuen, sarrera hitzak kenduta, euskal narratiba garaikidearen lorpenez. Gure sari nazionalak, gure autore itzuliak, gure best sellerrak, gure sistema literarioaren garapen azkarra... Lehen lerroan eserita geunden delegaziokoen arteko begirada nahiz irribarre gurutzatuek bertakoeck ikusi ahal izan ez zuten iruzkin isila osatu zuten. Rabinoak elkarri begira bezala geunden, barrutik irriz. Ez zegoen Olabarria bezalakorik euskal literatura munduan saltzeko. Tudelak hartu zuen segida. Bere aspaldiko tesi gaiaz aritu zen -ohiturazko eleberria- pilotu automatikoa jarrita eta kontestura zertxobait bat egokituz: emigrazioa eta indianoaren irudiaren ikuspegitik heldu zion gaiari. Gero, Kerman eta Agurtzane aritu ziren, euskaraz. Harrera beroa izan zuten, nahiz ez dakidan zenbateraino ulertu zituzten entzuleek. Egia da Kermanen testuak

errazak zirela, iluntasunik gabeak, xumeki idatziak. Horrek ere lagunduko zuen. Bere herriko gauzez mintzo zen, bere familiaz, bere sentimenduez. Ez nuen oso ondo ulertzen *zertarako* idazten zuen, zer interes izan zezakeen, baina bazirudien gustagarria egiten zela. Beste behin ere, oraingoan inolako anbiguotasunik gabe, Agurtzanek emakumeen arteko harreman bat izan zuen hizpide bere irakurketan. Ez zirudien taldeko besteak harriturik zeudenik. Ni nintzen, antza, bere lesbianismoa deskubritzen zuen bakarra. Pausa bat eskaini ziguten ondoren. Eusketxeko gazte ilehori eta bizarluze *cool* batek kanta pare bat bota zuen, gitarra lagun zuela eta euskara txukun batean, neo-lparragirre kanutozalea bailitzan. Euskal dantzarik ez ziguten inposatu, pintxo txit goxoak eta ardo balekoa atera zizkiguten, eta berriro ekin genion saioari.

Katxalyn mikrofono aurrean paratu zenean, eskuak izerditzen sentitu nituen. Jipoiaren beldurra zen. Zenbait egunez ahaztea lortu nuen beldurra. Ezagunegia nuen beldurra. Gaztelaniaz hasi zen eta adi zituen denak. Nola ez. Bataz

besteko edertasun maila aise gainditzen zuen neska izateaz gain, karisma zeukan deabru hark.

Bere irakurketaren azken hitzeraino beldur-raren menean egon nintzen, esaldi sastakaien peskiza ikaratian. Baina ez. Ez ziren etorri esaldi horiek. Ez naiz ondo gogoratzen zertaz zihardu-  
duen ipuinak, baina ez zegoen inolako erasorik nire aurka, ez literalki ulerturik ipuina, ezta alegorikoki ere. Txalo zaparrada luzea bildu zuen Katxalynek eta bere jarlekura itzuli zen, nigandik urrun, lerroaren beste muturrean. Lasaitua hartu nuen, oraindik sinesgogor nengoen arren. Baina laster atsekabe txiki bezain mikatzak gaina hartu zion lasaituari. Gutxietsia sentitu nintzen. Inoratua. Eta okerragoa zen sentipen hura. Nire jipoi dosiaren faltan ikusi nuen neure burua, us-  
tekabean. Laster nire txanda zetorren eta horrek bakarrik kontsolatzen ninduen.

Galarretaren irakurketa ona izan zen. Ez da gozoa onartzea, baina ona izan zen. Hark ere, nire moduan, Laurak Bat-eko saioan erdipurdi aritu ostean, tiroa zuzendu nahi izan bide zuen. Bidai kontakizunena utzi eta bere behialako oler-  
kigintzaz akordatu zen. Eta ez zen poeta txarra.

Euskaraz eta gaztelaniaz irakurri zituen, tarteka itzulpena eginez, bestetzetan lan hori hartu gabe. Gauza berriak ere sartu zituela zin egingo nuke. Eta osotasunak bazuen halako xarma berezi bat, *sintzeritate* bat. Eusketxeko gazteei izugarri gustatu zitzaien, txistuka eta oihuka agurtu baitzuten performancea, hura rock kontzertua bailitzan. Galarretaren *look* narrats-zainduak bazukeen zeresanik, noski, harreraren beroan, baina ez zen hori bakarrik izan, aitor dezadan.

Ez zizkidan gauzak erraz jarri Galarretaren arrakastak. Ni nintzen azkena eta aurrean neukan jende gaztea poltsikoratzea erronka handia zen. Baina prest nentorren. Munizioz kargatuta.

Eztanda egiteko prest zegoen artefaktua nekarraren. Katxalyni zuzendutako bonba. Hiru egunez, hoteleko gelatik ia irteteke, muntatu berri nuen mekanismo narratibo bat zen, bukaeran *pum* egiten zuena. Eta eztanda horri su artifizialek jarraituko zioten, denak ooo luze bat egitera behartuz. Edo hala uste nuen.

Euskaraz aritu nintzen. Haatik, testuak ez zeukan zailtasun linguistikorik. Nire ohiko estiloa -esaldi korapilatsu sasi-proustiano hornitua-

baztertu eta esaldi labur bezain zorrotzak zizelatu nituen. Testuak gure bidaia zuen inspirazio iturri, eta apenas hartu nuen jatorri hori moztzeko eskrupulurik. Idazle talde baten gorabeherak nituen aipagai, *tournée* literario batean idazleen artean gertatzen edo gertatzen ez ziren talka eta igurtziak, herrak eta irritsak. Tartean idazle beterano bat zegoen, Rafa, eta idazle gazte bat, Matxalen. Bien arteko harremana zen ipuinaren muina, nahiz bidenabar euskal literaturaren mixeriak azaleratzeko ere baliatzen nuen abagunea. Viagra hartzen hasitako idazlea zen Rafa, idazle handia, nahiz ez zen bere belau-naldiko mediatizatuena, eta bere gainbehera biologikoarekin obsesionaturik bizi zen. Matxalen kosta lain kosta arrakasta lortu nahi zuen idazle hasiberria zen, bere erakargarritasuna oso modu zinikoan erabiltzen zuena literatur sisteman gora egiteko. Bien artean harreman sado-masokista bat ernetzen zen, non gizonak gaztetasun berri bat bilatzen zuen Matxalenen bitartez eta neskak, berriz, idazle handiaren prestigioaz baliatzea bere irudia eraikitzeko. Sexu harremanaren promesa erabiliko zuen Matxalenek



Estatu Batuetara egindako bidaiari, Rafarengandik laudorio publikoak eskuratu eta editore amerikar baten argitalpen promesa erdiesteko. Baina idazle handiari *zorra* ordaintzeko unean Matxalenek barre egingo zion aurpegira, Viagrarengatik erekzio alferrikako bezain amaigabearekin utziz Rafa, hoteleko gelan. Taldeko idazle gazte batekin oheratuko zen Matxalen gau hartan, eta bidaiari guztiei jakinaraziko zien biharamunean.

Ipuinaren puntu horretara iristean, ura edateko gelditu nintzen. Arnasa hartu eta gelari behakoa eman nion. Jendea adi neukan. Baita gazte argentinarrak ere. Neo-Iparragirrea bera ere kontzentraturik nekusan. Edo, apika, euskara ulertzeko egiten ari ziren indarra zen bertakoen aurpegietan nekusana. Katxalyni begiratzeko tentazioa izan nuen. Ordurako ohartua zatekeen bere ipuinaren *remake* bat zela nirea, erantzun bat. Baina eutsi egin nion. Lehen lerroko taldeki-deetako bakarrari begiratu nion, Agurtzaneri, nire *fan*-a, bidaiari horretako itsasargia. Deseroso zirudien.

Boiseko unibertsitatean irakurraldia egin ondoren, ipuineko idazle taldeak Renora jotzen

zuen, bidaiako azken saioa egiteko. Rafak testu berri bat irakurtzen zuen saio horretan, bidaiari idatzitakoa. Testu hura mendeku bat zen, baita Matxalenekin noizbait zerbait gertatzeko ametsari egindako azken agurra. Hotelean, kabletik pasatzen ari ziren *American beauty* filma ikusten ari zela, bururatu zitzaion Rafari istorioaren ideia. Kevin Spaceyk interpretatzen zuen pertsonaiekin erabat identifikatuta sentitu zen Rafa idazlea eta Matxalenen bertsio ilehoria ikusi zuen neska perbertsoaren paperean. Matxalenen antza zuen pertsonaia baten deskribapen sarkastiko eta iraingarria burutzen zuen Rafak bere testuan.

Harrigarriro, baina, Matxalenek azken saioaren gauean Rafaren gelara jotzen zuen hotelean. Aitortzen zion gustatu zitzaioela publikoki iraindua izatea, ohartu zela beharbada, inkontzienteki, horren bila ibili zela, horregatik izan zela hain krudela Rafarekin, bere erreakzio bortitza itxaroten zuelako, desiratzen zuelako umilia zezan. Rafak, orduan, ikusten zuen nola eskaintzen zitzaion Matxaleni, arima eta gorputz, gehiago eskatuz, irainduz larrua jo ziezaion eskatuz. Eta,

mirakulua, «Viagraren laguntzarik gabe hanpatu zitzaion zakila. Irmo zeukan aginte makila, aterik pisuenak kolpeka botatzeko prest».

Nire bihotz taupadak entzun nituen irakurketaren une horretan eta horrek gelditu egin ninduen une batez. Mikrofonotik entzun ote zitezkeen galdetu nion neure buruari, kezkaturik. Txarra iruditzen zitzaidan, supituki, idatzi nuena. Zabor hutsa. Erridikulua. Edo geniala. Ez nekien. Arnasa lasaitzen ahalegindu nintzen orduan, behiala emazteak eramaten ninduen yoga klaseetan ikasi moduan, tripatik hartuz. Alferrik zen. Azeleratua nengoen. Jarraitzea zen hobereena. Hurbil nuen bukaera.

Matxalen bortizki biluzten hasi zen Rafa. Jertsea erauzi eta ohe gainera bultzatu zuen. Ahuspez jarri eta gona kendu zion hurrena, gogor tiratuz. «Urdanga!» egiten zion oihu behin eta berriro. «Esan ezazu ni naizela inoiz irakurri duzun autore hoberena, oihukatu! Ozenago!» agintzen zion. «Nire testuek alua umeltzen dizutela esan!» exijitzen zion. Eta Matxalenek hori eta gehiago esaten zuen, oihuka, benetan beroturik. Eskuez bularrak inguratu, ferekatzera bailihoan,

eta bularretakoak erditik hausten zizkion Rafak. «Rafa, Rafa, Rafaaa... Nobel saria merezi duzu, larru jole onenaren Nobel saria!» esaten zion Matxalenek orduan. «Noski merezi dudala, urdanga analfabetoa!» egiten zuen orro Rafak, kuleroa ere urratzen zion bitartean.

Azken arnasa hartu nuen, esaldiko azken paragrafoari ekin aurretik:

*Matxalenen pubis ilegabea ikusi zuen orduan Rafak. Pelatua zeukan. Interneteko porno aktorezen moduan. Eta zakila erori egin zitzaion. Ez zituen maite alu soilduak. Ez zen, ez, alferrik beste belaunaldi batekoa. Berriro janzteko esan zion Matxaleni eta bidali egin zuen gelatik.*

Alkoholezko errekaak dira nire zainak. Argi more eta gorrien joan-jinak saguzar anfetaminatuen hegaldia dirudi. Eta zeinen ondo mugitzen duen gorputza Katxalynek. Ziur nengoen. Bane-kien dantzari aparta zela. Ni ez nago dantza pisttan. Ezta beharrik ere. Banketa bigun batean nago, hanka bat luze eginda banketaren gainean eta gaueko laugarren gin-tonicari eusten dion

besoa Kermanen sorbalda gainean bermaturik. Hogei urte ditut berriro. Ezin dugu hitz egin, dezibelioz puztuta baitago lokala. Berdin dio, oiha dihardugu, onomatopeiak onomatopeiei josiz. Agurtzane ere dantzari da, ez Katxalyn bezain ongi, baina poz berberaz. Euren adinari dagokion gorputzaren berezko pozaz. Galarretak badaki mugitzen, kabroi halakoa. Tipo jatorra da azkenean. Sutsuki zoriondu nau orain dela lau ordu, nire irakurketa bukatu dudanean. «Putamadrekoa, hi» izan da bere analisi literarioa. Ezin zaio askoz gehiago eskatu. Kerman ere etorri zait zoriontzera, baina ez dut uste entusiasmaturik dagoenik nire ipuinarekin. Nire ipuina ez bide da konpatiblea bere olerkari sentiberatasunarekin. Triste samarra da mutikoa. Agurtzane ere ez dut oso liluratua ikusi ipuinarekin. Nire ipuina ez bide da konpatiblea bere feminismoarekin. Apika berriek eginda zeukaten nire irudia apurtu egin diet. Idazle handiaren papera jokatzeari utzi diodako, inolako aurreseinalerik gabe. Olabarria eta Tudela deseroso ikusi ditut, baina Centro Vasco Euskaltzaleak-eko arduradunen ondoan zeudenez, ez da harritzekoa. Eusketxeko neo-

Iparragirreak bere gitarra gainean autografoa jartzeko eskatu dit. Niri bost, halere, hauek guztiek pentsatzen dutena. Katxalyn zen inporta zitzaidan bakarra. Eta malezia ikusi dut bere begietan. Eta irribarrea ezpainetan. Ez dit deus ere esan. Baina hemen nago. Eta horrek dena esan nahi du. Palermo Viejo auzoko gauean, katedradunengandik urrun, gazteen tribuarekin, eureka bat bihurturik. Bataila bat irabazi dut. Klasikoen hilkutxatik ateratzea lortu dut.

«Hik ez al duk dantzatu behar?» animatu dut Kerman. Bosgarren Cosmopolitana du, nire burmuin blaituek ez banaute traizionatzen, eta ez bide du nahikoa gorputza askatzeko. Are, gero eta urduriago sumatzen dut gizajoa. A ze *fans*-ak nireak! *Total losers*. Ondo nago. Oso ondo. Bero-bero. Bizirik. Eta ez dakit haluzinazioak diren, baina iruditzen zait Katxalyn niretzat ari dela dantzan. Tarteka begiratzen dit, ez luzaz, baina arestian ikusi diodan malezia berarekin, irribarre berberarekin. Uste dut. Ziur ez zuela pentsatzen gai nintzenik horrelako gauzak idazteko. Hori behintzat zor diot: oroitarazi dit zergatik hasi nintzen idazten. Jendea harritzeko, ha-

rrapatzeko, botere hori izateko irakurlearengan. Hitzen boterea. Hitzak arantzak dira, esaldiak muturrekoak, literatura mehatxu bat. Urtetako lozorrotik aterarazi nau. Kobazulotik atera da hartza. Eta gose da.

«Zigarro bat erretzera noa» azaldu da Kaxalyn mahaira. Banketaren muturrean utzitako bere txamarraren sakelatik paketea eta txiskeroa atera ditu. Ez da baieztapen soila izan, gonbidapen inplizitua baizik. Eta ezin esan izan dio hori Kermani. Gizajoa, eusten ez badiot eroriko den beldur naiz. Niri zuzendutako esaldia izan da. Altxatu naiz. Ez dudala erretzen gogoratu zait... Baina gaztetan erretzen nuen, zer arraio. Kanpora jarraitu diot.

Airea hozkirria da, ortzia izartsua. Placita Julio Cortazarren gaude. Borobila da. Jatetxeak eta ostatuak, ez dago han besterik. Eta gazteak. Trumilka.

Zigarroa luzatu dit. Hartu dut. Piztu dit. Atxiki luzea. Oso aspaldiko lehena. Eztularen bulkada. Eutsi diot nola edo hala.

Nor hasiko da hitz egiten? Ez dut gauza arruntik esan nahi. Esaldi asko probatzen ari naiz

neure baitan. Ez naute konbentzitzen. Ez bide dauka berak ere presa handirik. Zigarroa gozatzan ari da. Besterik gabe.

«Sartu barrura!» oihu egin digu Agurtzanek klubaren atetik. Madarikatu dut nire fana. «Oraintxe, ze atek ixtera doaz. Ordaindu egin beharko duzue sartzeko, ez bazarete etortzen». Zigarroa ezin izan dut amaitu eta lotsa ematen dit horrela botatzeak. Konturatuko da ez dudala erretzeko ohiturarik. Hiru atxiki eman dizkiot jarraian, ahalik eta luzeenak, laster kontsumitzearen.

Berriro sartu gara. Agurtzanek azaldu digu, «Hau karaoke bihurtuko da orain, eta sarrera ko-bratu egiten dute hemendik aurrera». Jendearen berbak nabarmentzen dira musikarik gabe generaturiko lokalean. Mahaitxoak paratzen dihardute zerbitzariak orain arte dantza pista izan den eremuan. Jende mordo dago atarian, karaoke saiorako sartu nahian. Eztabaida daukagu. Galarretak beste leku batera joan nahi du. Katxalyni nagikeria ematen dio mugitzeak. Agurtzane han gelditzearen aldekoa da eta, ez hori bakarrik, abesteko asmoa du. Niri gustatzen zait kara-



kearen ideia. Ez naiz inoiz halako batean izan. Eta beste abantaila bat ere ikusten diot kontuari: gure arteko adin tarteak ez da hain nabarmena suertatuko dantzarik ez dagoen toki batean. Ker-  
manek ez du iritzirik. Geratuko gara.

Shakirarena omen den kanta batekin hasi da karaokea. Aurkezleak eta guzti ditu saioak. Bi argentinarrak dira, gorbata eta trajedun gaztetxoak. Uniformea ironikoa da, jakina. Baina darabilten hizkeragatik eta umore motagatik, ezagun dute familia onekoak direna, burgeskumeak, errebeldealdia bizitzen. Bosgarren gin-tonica eskatu diot denon eskariak zerrendatzen ari den Galarritari. Ez dakit gorputzak nola erantzungo didan. Ohitura galdua daukat. Baina buruak baietz esaten dit. Izena eman dut gero kantatzeko. Zoratuta nago. Ez dut inoiz kantatu jendaurrean. Agurtzanek eta Katxalynek elkarrekin abestuko dute, eta Ker-  
manek ere izena eman du!

Kanta gehienak ez ditut ezagutzen. Euskal kanta berriaren ugatzetatik edoskiz hazi nintzen 70 urrunetan, Rock Radical Vasco-ak zaharregi harrapatu ninduen gutxigatik, eta klasikora zein

jazzera pasatua naiz aspalditik. Agurtzane guztiz urduri dakusat, saltoka ia banketan, laster txanda datorkielako. Katxalyn gerritik hartuta dauka. Gomutan hartu dut nire gazte denborako koadrilako giroa. Gu ere elkar ukituz ibiltzen ginen uneoro, neskekin uzkur, baina mutilen artean promiskuitate handiaz. Txaplakoak, bostekoak, lepo estutzeak, boxeo saio alegiazkoak. Kontua elkar ukitzea zen, taldeko partaide ginela sentiarazten gintuen horrek. Neska koadriletan, aldiz, beste kode batzuen bitartez adierazten zuten elkartasuna. Ferekak, ile orrazketak, dantza, eskujokoak... Agurtzane eta Katxalyni begira oharitzen naiz ez direla gauzak hainbeste aldatu. Neskek neskekin komunera joaten jarraitzen dute.

Igo dira taula gainera. Abestu dute maitasun kanta lelo bat, espainola edo hegoamerikarra, ez dakit. Licor del polo, Kermanek esan didanez. Hartzorea bezala. Edo Jarabe del polo esan al dit? Koreografia antzeko bat egiten dute, eskuaz borobilak eginez airean. Eta gero elkarri begira kantatzen dute errepika, bekokia bekokiaren aurka. Agurtzanek hamabost urteko nerabea dirudi, txiribita ireki berria, ihintzaz bustia orain-

dik. Bere depre airea haizatu zaio, behingoz. Kaxalynek ez, ez dirudi nerabea. Bere-berea duen malezia definigaitz horrek beste maila batean jartzen du. Desiragarria egiten duen maila. «Gustatzen zaizu?» galdetu dit, Kermanek.

Ez dakit zer erantzun. Ezustean harrapatu nau galderak. Baina ez nago erabat ziur galderaren zentzuaz. Musikaz ari ote zait galdetzen, abestiaz alegia, edo *besteaz*? Galarretak eragozti dit pauso hutsa ematea: «Hiri ez zaik gustatzen akaso? Muzin egingo hioke halako moka-duari, eskura jarriz gero?». Orain Kerman da mutu geratu dena, bera ere ezustean harrapatu-rik, harrigarriki deseroso.

Neskak badatoz guregana, oholtzatik jaitsita, eta horrek libratu du Kerman Galarretari eranztutetik. Bere Coca-Cola Zeroa luzatu diot Kaxalynei. Begi keinu bat egin didala iruditu zait. Baina ez nago ziur. Itzalargitan dakusat. Urdanga. Nirekin jolasean jarraitzen du. Ez du alkoholik edan arrats osoan. Egia esan ez dut ikusi ezer edaten bidaiaren hasieratik. Tabakoa du bizio bakar, antza. Baina bere buruaren kontrola galaziko liokeen substantziaz ez da fio. Edo behin-

tzat hala interpretatzen dut nik bere jokamoldea. Dominatzaile sena duen jende gehiena halakoxea da. Alkoholaren menperatuen droga da. Ez ninduke harrituko, ordea, lerro zuri bat sudurreratzeko ikusiko banu geroxeago, komunitara dararman pasabide ilunean.

Hasi da Kermanen kanta. Gauza arraro bat. Galarretak ez du ezagutzen. Katxalynek argitu dit: «Hercules and love affaire». Txineraz esan balit berdin izango zatekeen. Oso disco sonatzen du. Oso... gay. Eta ahots hori. Noski. Babo alae-na ni. Kermanen deserosotasuna arestian, Galarretak Katxalynengatik galdetu dionean. Bere jarrrera barrenkoia, bere aldarte malenkoniatsua, edaten dituen emakumeentzako cocktail horiek. Hezur-haragizko estereotipoa. Eta ni ohartu gabe. Hortaz, nire fan guztiak homosexualak dira. Hau da hau. *Blind* da abesten ari dena, Katxalynek bere ezpainak nire belarrira arrimatuz zehazten didanez. Eta plazer ikara batek kordokarazi nau, haren gorputzaren eremu magnetikoan sartu naizenean. *Blind*. Itsua, ingelesez. Ni izan naizen moduan.

«Begiraiok, motel» bota dit orduan Galarretak. «Zer?». «Begiraiok gizajoari kantatzen duen bitartean, bihotza puskatuta zeukak». Kermanen begiak bilatu ditut baina urrutiegi daude ezer ikusteko. Galarretaren begiak, aldiz, bustiak daude. Garagardoak gainezka egiten bide dio begietatik. «Kermanen bihotza puzzle desegin bat da» jarraitzen du Galarretak, mozkorraldia eta inspirazio poetikoa nahasiz. Besoaz sorbaldak inguratzen dizkit, konpasioa adierazi nahi balit bezala. Espero dut besteek ez dituztela aditu Galarretaren komentarioak. Lotsatuta sentitzen naiz. Irainduta nire gizontasunean, nahiz irrazionala izan, nahiz ez nukeen behar. Katxalynen begiei ironia txinpartak darizkie, ala beste zerbait.

Bukatu du Kermanek. Denek inguratu eta zorriondu dute. Ondo kantatu du. Sentimenduz. Katxalynek atzetik bere besoez inguratu du, arreba nagusiak neba txikia hartuko lukeen moduan.

«Iepa» da atera zaidan hitz bakarra. Eta bizkarrean txaplakoa egiten diot, bere Cosmopolitana luzatuz. Ez dakit zer esan. Nire hitzen zain dagoela iruditzen zait. Denak daudela nire hitzen

zain. Beharbada ez da hala. Nire irudimena baino ez da. Halere, zerbait esatera kondenatua sentitzen naiz. «Laster nire txanda izango da» diot. Eta komunera noa.

Komunetik bueltan, gin-tonica kolpez bukatu eta bokalizazio bat egin dut, ozen, txantxa giroa berreskuratze aldera. Aurretik gertaturikoa ezabatu nahiz. Izan ere, Kermanen istorioa interferentzia galanta da nire Katxalynekiko asmoetan. «Aupa Caruso!» bota dit Galarreta hordituak. Estimaten dut une horretan bere gizontasun sinplea. Astazakil bat da, hippy hatxebero zahar-mindu bat, idazle petrala baino petralagoa, baina badu zerbait lasaigarria hura ondoan edukitzeak. Prebisiblea da.

«Erakutsi nor den hemen nagusia, *Rafa*, adi daukazu *Matxalen*» murmurikatu dit Katxalynek, edalontzi hustua eskutik kendu eta oholtzarantz bultzatzen nauela. Bidearen erdia egin eta jiratu naiz. Atzeraka nabil orain eta begietara begiratzen diot, urrundu bitartean, baina ez naiz ausartzten esatera beretzat abestuko dudala. Amets zoroenек setiatzen dute nire arrazoiaren gotorlekua. Gogor nago.

Oholtza gainera desberdin ikusten da tokia. Zeinen gazteak diren denak... bertigoa sentitzen dut. Zorionez, musika hasten da. Jazz orkestraren doinu leunak hedatzen dira, aurreko kanta guztien arrunkeria lurperatuz. Klarineteak lehenik, bateria arin baten laguntzaz, eta Frankie handiaren izpiritua nire gorputzera sartu da, zuzenean zerutik erorita, oinaztargia bailitzan: *I've got you under my skin...* Ez dakit Sinatraren izpiritua den edo gin-tonica, baina eroso darabilt ahotsa, crooner petoa dirudit. Letra ezagutu ez arren, aurrera egiten dut, lotsarik gabe, simili-inglesez, nire aurrean dudak hitzen paperari begiratu gabe. Errepika perfektu atera zait, eta darraion faltsetea Bono-ren bertsioko marikoikeria bat dela oroitzeko, atzean dago jada, eta ez zait gaizkiegi atera. Ez dit ezerk erresistitzen. Azken aurreko crescendoa izugarria da, eta amaierako pianissimoak atea zabaltzen die gau osoko txalo beroenei. Aurkezle gorbatadunen zorionak ere irabazi ditut, saioko bakarrak, eta banoa, garaile, nire lagunengana, nire Katxalyngana.

«Un aplauso para nuestro veterano» entzundut bozgorailutik, gure mahaira iristen ari naizela. Putasemea. Hi ere zahartuko haiz, eta uste baino lehen, gaitzesan dut neure kolkoan. Denek zoriondu naute, Kermanek izan ezik. Galarreta nire adiskide onena bihurtu bide da. Bere garga-gardoa luzatu dit, egarri izango naizelakoan.

Bukatu da karaokea. Ixtera doaz. Kaleratu gara. Hotelera sartu ala ez da galdera. Bihar arratsaldean daukagu itzulerako hegazkina. Goizeko hirurak dira. Hotza egiten du. Argazki bat atera nahi digu Agurtzanek. Hor dabilen gazte bati eman dio aparailua eta klixek bat ateratzeko eskatu dio. Han paratu gara denok, Julio Cortazar plazatxoaren ertz batean, *patata* ahoan.

Bagoaz hotelera.

Nire gelan nengoen. Hortzak garbitzen. Goizeko laurak ziren. Dutxa bat hartu berria nintzen, iritsi bezain laster. Bizarra ere egin beharko nukeen, baina ez zidan astirik ematen, eta neure burua salatuko nukeen halako gehiegikeriarekin. Kaxalynen atea jotzeko asmoa neukan. Gau osoan



zehar keinuak egin zizkidan. Edo hala iruditu zitzaidan behintzat. Hala interpretatu nituen hainbat gertaeratxo. Mugikorrek sms baten iritsiera gaztigatu zidan. Katxalynen mezu bat zela otu zitzaidan eta segundo batzuek ez nuen irakurri nahi izan, zorte txarrik ez erakartzeko. Galarretarena zen. «Hi haiz hi crooner-a» zioen. Emaztearen sms bat ere bazegoen, orain dela ordu mordoxka bat, iluntzeko bederatzi eta erdietan iritsia. Kalkulua egin nuen. Donostiatik gaueko ordu bat eta erdietan bidaliko zuen. Hortaz, itzarrita egon zen, niri mezua bidaltzearren. Nire irakurketa nola joan zen jakin gura zuen. Errudun sentitu nintzen. Bi egun eta erdi neramatzan mezu bakar bat ere bidali gabe. Erabat ahanzi zitzaidan emaztea ipuin berriaren idazketarekin. Berriz ere kalkulua egin nuen. Goizeko zortziak ziratekeen orain etxean. Dei niezaiokeen. Gosaltzen egongo zen.

Baina ez neukan astirik. Huraxe nuen azken aukera. Eta gainera orduan deitu edo sms bat igorriko banio, jakingo zukeen esna nengoela, hau da, kanpoan ibilia nintzela ordura arte. Mugikorra gau-mahaitxoan pausatu eta gelako atea

ireki nuen. Pasilloa hutsik zegoen, larrialdietarako ihesbidea seinalatzen zuen ikur orlegiak soilik argiturik. Ilunabar horretan isiltasuna ozena egin zitzaidan. Arestiko irakurketan bezala, nire bihotzaren taupadak senti nitzakeen, oraingoan kaskezurraren atzealdean, bonboa bailitzan.

Katxalynen ate aurrean dardarka sentitu nintzen. Odola buruan bildurik, izoztuta neuzkan gorputzaren muturrak. Alkoholaren eragina gutxituz zihoakidan, eta berarekin batera kemena. Haatik, zerbaitek bultzatzen ninduen atea jotzera. Beharbada, azken aukera serioa zelako kontzientziak. Hiltzeko orduan gogoratzea merezi duten une horietako bat bizitzeko azken aukera, esan nahi dut.

Atea azkazalaz igurtzi nuen. Barruan pauso batzuk entzun nituela iruditu zitzaidan. Kolpetxo bat jo nuen hurrena, hatz erakuslea kakotuz. Ez zen ezer entzuten. Makurtu, beheko zirrituari begiratu eta barrua argiturik zegoela konprobatu nuen. «Katxalyn» esan nuen, erdi ahapeka, erdi ozen. Beste une luze bat igaro zen.

Etsi nuen. Edo, etsipena iristeko presaz, nire gelara jo nuen, beldurrak ausardiari gaina harturik.

Eta berriro itzuli nintzen, hortik minutu pare batera, nire gelako atea ixtea lortu gabe. Ezin nuen aukera pasatzen utzi. Damutuko zitzaidan ez banintzen saiatzen.

Hiru kolpe gogor jo nituen atean, arnasari eusten niola.

Atea ireki zidan. «Zer da, Ander?». Ate erdi irekitik Katxalynen ohean sartuta ikusi nuen Ker-man, soin hutsik, zigarroa erretzen. Katxalyn kulerotan zegoen, gainean jarri berria zukeen jertse batekin. «Barkatu». Hitzik ez nuen aurkitzen nire presentzia justifikatzeko. «Zera, zalantza bat neukan. Baina, noski, berandu da. Bihar hobe...», eta alde egin nuen.

Emazteak ez dit inoiz barkatu karaokearena. Edo, hobeto esatearren, itzulerako egunean mugikorraren erantzungailuan utzi nion mezua da barkatu ez didana. Azaltzen nion nola irakurketa arrakastatsua ondoen denok afaltzera joan

ginen, Eusketxekoekin, milanesak ematen zituzten jatetxe batera, eta nola luzatu zen afaria, guretzat antolatuta zuten tango emanaldi kaskar bat zela medio. Esaten nion, baita ere, bere sms-a irakurtzerako beranduegi zela etxera deitu ahal izateko.

Ordea, emazteak, Agurtzaneren *Berriako* kronika irakurtzeaz gain -zeinetan gure egonaldiaren bertsio *ofizial* gatzik gabea eskaintzen baitzen-, Katxalynen bloga ere egunero-egunero bisitatu zuen egonaldiak iraun zuen bitartean. Izan ere, Agurtzanek blog horren berri eman baitzuen bere kronikaren lehen igorketan. Eta Katxalynen kontakizuna, jakina, ez zen gatzik gabea.

Oso laster joan zen dena. Beti entzun izan dut dibortzioak luzeak, papereriaz trabatuak eta mingarriak izan ohi direla. Bada, gure kasuan (*nire* esaten ohitu beharko naiz) ez zen hala gertatu. Argentinatik sartu nintzen egunean, emazteak harrera normala egin zidan. Hondarribiko aireportura azaldu eta etxera eraman ninduen. Bidaiaz galdera arruntak egin zizkidan -azken aukera bat eman nahian- eta nire erantzun gezurtiak estoikoki entzun zituen. Alegia, ez nin-

tzen ezertaz ohartu. Etxera iritsitakoan siesta egiten utzi zidan. Lo igaro nituen orduak hainbat enkargu egiteko baliatu zituen. Besteak beste, farmaziara joan zen nire tentsioaren pastillak berritzera, itzulerako hegaldian palpitazioak pairatu baintuen. Esnatu nintzenean, ohearen eretzean eseri, Lisinopрила eman eta bere erabakia bi esalditan iragarri zidan: «Ander, egia gorde egin didazu. Hala ere, ez dut uste horregatik bakarrik dibortziatuko naizenik». Bigarren esaldia zen mingarriena, jakina, eta zalantza zapore iraunkorra utzi zidan ahoan. Ni mintzeko esan ote zuen «horregatik bakarrik» ez ninduela uzten, edo aspalditik atsekabeturik neukala eta *kontratuarekiko zintzotasunez* baino ez zela geratu ordura arte nirekin adierazi nahi izan zidan, benetan?

Nolanahi den, gehien harritu ninduen min edo tristura handirik ez sentitzea izan zen. Lehen egunetan, ondoko asteetan, zerumugari so egon nintzen, uhin depresiboa noiz etorriko zain. Baina ez zen etorri. Tentsioak ere ez zidan beste sustorik eman.

Emaztea beti asko maite izan dut, baina ez dit minik egin banantzeak. Oraindik ere ez dut ulertzen zergatik. Haurrik ez zegoelako tartean? Ez dakit. Ez dut uste «horregatik bakarrik» denik, bere formula mailegatzearen.

Katxalynen blogaren irakurle leialenetakoa naiz. Argentinako bidaiaren egonaldiaren kronika eredugarria iruditzen zait. Zenbat aldiz ez ote dut irakurri, irribarrea ezpainetan? Zenbat aldiz ez ote ditud begiratu berak mugikorraz filmatu eta Youtubera igotako karaoke saioko bideoak? Neure burua pertsonaia bihurturik ikustea, Katxalynen neurriko idazle baten lumapean, esperimentzia berri bezain betegarria izan da niretzat. Zeinen ondo harrapatu dituen nire jokamoldeak, itxura, maniak, soslai psikologikoa. Galarreta armairutik atera duen modua krudel samarra iruditzen zait, baina horrelakoa da Katxalyn, inork baino hobeto dakit nik. Kontua da, berari esker oso popularra bihurtu naizela denbora gutxian, idazleen gremioko pertsonaia popularrenetakoa, baita gazteen artean ere. Nire liburuak irakurri

ez dituztenek ere ezagutzen naute orain. Eta nire liburuen salmentek nabarmen egin dute gora azken urtean. Harriturik komentatu zidan fenomenoaren nire argitaldaria, urteroko autore eskubideen txeketa eskura emateko Bulebarreko Barandiaranen elkartua ginenean. «Oraintxe idatzi behar huke eleberri bat, edo ipuin liburu bat, nahi duana. Burdina bero dagoeno jo beharra zagok. Hire izena bolo-bolo zabilek denon ahotan. Orain argitaratuko bahu erraz salduko genikek».

Galarretari gutun bat idatzi diot, adiskidantza eskainiz. Zintzoa da nire proposamena. Ukitu egin nau nitaz maiteminduta egon dela jakiteak. Hemendik aurrera hobeto idatziko duela esaten diot gutunean, outing bortxatuaren zauria itxiko zaionean. Telefonoz erantzun dit, suposa deza-kedan lotsa izugarria gaindituz. Beste Galarreta bat ezagutzen ari naiz. Maiz ikusten dugu elkar.

Eta idazketari lotu natzaio. Baina ez eleberri bat egiteko. Ezta ipuin liburua ere. Lehenik Kaxalyni idatzi diot. Hain irakurria den bere blogean mezu bat utziz. Bertan neure buruaz barre

egin dut, Katxalynek egindako nire erretratua are gehiago kargatuz.

Gero neure bloga sortu dut. Irakurtzen ari zareten hauxe.

Blog honen izenburuak zer esan nahi duen galdetu didazue, irakurle maiteak, zuen mezuen bitartez, behin baino gehiagotan. Bada, orain aseko dut zuen jakin-mina.

Dakizuenez, neure blogak beste izen bat izan zuen hasieran. *A.-ren dibortzioa eta zuen dibertsioa* deitu izan da. Eta nire dibortzioa kontatzeko asmoz sortu nuen. Etor zekidakeen uhin depresiboari aurre egiteko, partez, baina, batez ere, sentitzen nuelako zuengan interesa piztu zezakeela. Izan ere, Katxalynek bere blogaren bitartez eman zidan ospari esker, banekien jende askok izango zuela horrelako zerbait irakurtzeko jakin-mina. Gero, noski, nire talentuaren baitan zegoen irakurlea fidelizatzea ala ez. Bloga sortu, lehen kronika eskegi -emaztea eta bion ezkontzako argazki txuri-beltzekoa eta guzti- eta Katxalyni beste mezu bat bidali nion. Mesede gisa eskatzen nion nire blog sortu berriaren esteka jar zezan bere blogean. Eta jarri



zuen, segituan jarri ere. Arrakasta berehalakoa izan zen, ondo dakizuenez (hau irakurtzen ari bazarete).

Katxalynek nire blogean iruzkin bat utziko zuela espero izan nuen, alferrik. Baina, horren orde, hortik astebetara gutun bat helarazi zidan etxera, postaz. Barruan ile moltso bat aurkitu nuen. Ile labur samarrak, beltz-beltzak, kirikolatuak. Usaindu nituen. Pubiseko ileak ziren. Katxalynek bere pubiseko ile moltsoa bidali zidan. Eta mezu batez horniturik: «Zaharrak gustuko banitu ehizatuko zintuzket. GRRRR!... Eskerrik asko dibertsioarengatik». Estimatu nuen, zinez, antzinako moduan paperean eta eskuz idatzi izana mezua. Nik ere eskuz idatzitako mezua igorri nion: «Nirea da plazera, emakumea».

Ile moltsoa nire ohe gainean daukat, paretan eskegitako marko batean sartuta, eta honako leloarekin: «Scalp. Basque writers tribe. 2009».

Posted by Ander G. :: 10:16 PM :: 17 comments:

<http://K.ren> beheko moltsoa.blogspot.com/



# Gutun bi posteritateari

## (Literatura eta Historia)

Neu naiz Alfa eta Omega,  
dena, zena eta etortzekoa,  
ahalguztiduna.

Apokalipsia

Euskal Herrian literatura egitea ez da gauza erraza. Manu Eztandonak ondo zekien hori. Esperientziaz. Diktadurapean bizi ziren herrietan ere ez zen erraza, onartzen zuen, baina egonkortasuna lagun, idazleak etorkizunari begira jokatu eta, pazientzia apur batekin, obra sendo bat eraikitzea zeukan. Sendoa bere kalitateagatik, baina batez ere sendoa anakronikoa suertatzeko arriskurik ez zuelako. Obrak deskribatuko zuen errealitatea luzerako hor baitzegoen, irmo, higiezin, setati. Zer maisulan egingo zukeen Soljenitsin batek Stalinen laguntzarik gabe? galdetu ohi zuen bere artean. Egoskortuko al zen horrela literaturarekin? Mendebaldeko demokrazia ba-

tean bizi izan balitz, obra bat idazten bukatzerako sortzen ikusi zuen kontestua zeharo aldatuta zegokeen eta, ondorioz, obra bera baliogabeturik, zaharkiturik, modaz pasata. Eta gauza berbera gertatuko zitzaiokeen bere hurrengo idazlan bakoitzarekin, artean idazteari utzi ez bazion.

Manu konbentziturata zegoen: gulaga benetako oparia izan zen idazle errusiarrarentzat, oztopoak egiten zuelako handi idazlea. Genio literarioa une eta gune egokietan jaiotzean zetzan. Mende Erdiko diktadura amaiezina pairatu beharra aski ez, eta gainera gulagera bidali zuten Soljenitsin. Batzuen zorteak ez zeukan mugarik. Zentsuraren ohoreak ia automatikoki eskainiak, Altzairuzko Teloiaren beste aldean harrera ezin hobea segurtaturik... Eta hoberena, inspirazio arazoei adio! Beste zerbait zen, bai, idazleari Historiaren bertsio deskafeinatu bat trufaka ari zitzaionean ganorazko obra idaztea. Halako egoeran ez zegoen bete-betean asmatuko zuen idazlerik, deitoratzen zuen Manuk beste askorena ere nahi zukeen ezinarekin kontsolatuz bere burua.

Iluna hiriaren jabe da oraindik. Manuk ez dauka pertsiana ireki beharrik hori jakiteko, ezta gau-mahaitxoko iratzargailuari begiratu beharrik ere. Ohetik bertatik sentitzen du gauaren gorputz grisa pertsianaren zirrituetatik limurtu eta logela betetzen. Gaur ere ohearen beste aldean esnatu da, hainbeste urtez Maitanerena izan den aldean. Gauero egiten du migrazio sonanbuliko berbera banandu direnetik. Bostak direla egingo luke. Bostak eta laurden, zehazki, motoa arrankatu eta oraintxe alde egin baitu auzokoak lane-ra, egunero lez.

Francoren heriotzarekin hasi ziren gauzak okertzen. Ordura arte euskal idazlea ere Soljenitsin txiki bat izatera josta zitekeen, denen onesmenarekin. Ez zeukan zaila komisaldegian egonalditxo bat lortzea, edo, anbiziotsuagoentzat, presondegia dastatzea. Gaizki idatzi arren, idazle zentsuratua bihur zitekeen, erraz. Halere, etekinik handienak erbesteak ematen zituen. Urtee-

tarako prestigioa pila zezakeen Parisko edozein unibertsitatetan apuntatze hutsarekin. Hortik aurrerako bere betebeharrak bakarrik tarteka euskal prentsan iritzi testu batzuk argitaratzea zen, euskal nazio zapalduaren askapenaren aldekoak, nola ez, edota petizioren bat izenpetzea. A *la rigueur*, manifa batean pankarta nagusiaren atzean joatea edota mitin batean azaltzea. Baina etxeko lan horiek eginez gero, lasai idatz zezakeen, batere kezkatu gabe «literaturtasunaz», «kontaketaren abenturaz», «mintzaira poetikoaren iraultzaz», «errealismo magikoaz», «postmodernitateaz», «autofikzioaz» eta gisa bereko kontsiderazio bizantinoez. Izan ere, euskal idazleak ez ziren benetan irakurriak garai zoriontsu haietan, apenas baitzegoen alfabetatutako irakurlerik. Inporta zuena euskaraz idaztearen simbolika zen. Franco hil ostean, ordea, pikutara joan zen dena.

Ohetik atera, esku zalantzatiaz telefonoa laztandu, arnasa sakon hartu, eta sukaldera jo du Manu Ezandonak, gosaltzera deliberaturik. Ez

da gose, ordea. Ohartzen da ez dela gose. Hozkailuaren aurrean beste duda une bat izan du, baina bere lehen asmoari eutsi eta gosaria pres-tatzeari ekin dio. Lehen ogi xafla irentsi eta biga-rrenari mauka egitean itzuli zaio gose pixka bat.

Saiatu da ordularia ez begiratzen. Ahalegindu da irratiko berriak entzuten. Gaur bai. Beste edo-zein egunetan ezinezkoa irudituko litzaiokeena gaur eskura ikusten du. Gutun-azala pisatzeko luzatuko dionean postariari, eskuek ez diote dar-dara egingo. Denbora gehiegi darama itzalita. Denbora gehiegi itzalean. Bada garaia behialako konfiantza berreskuratzeko. Bizitzak zapuztu dion konfiantza, porrot literario errepikatuek za-puztu diotena, luzaz andregai izandako Maitanek zapuztu diona.

Telebista piztu eta gutun-azala betetzeari ekin dio, artoski, kontzentrazio iheskor bati nola edo hala eutsiz, azantz katodikoak neurri batean bareturik. Urte askotan erresistitu ondoren, or-denagailua darabil gaur egun idazteko. Fetitxis-mo literarioak ezertarako balio ez duela onartu du azkenean, etsita, eta onartu behar du, hala-ber, zuzenketa eta orrazketa orotarako askozaz

ere praktikoagoa dela testu prozesadorea. Hala eta guztiz ere, zerbaitek galarazten dio, oraindik, bere testua editoreei Word formatuan e-mailez bidaltzea. Halako desakralizazioa bortitzegia zaio. Apostatek ere jarraitu egiten dute «Jainko maitea», «Jainkoak daki» eta halakoak esaten, desenkusutzen du bere burua. Horregatik, ordenagailutik paperezko bertsioa atera eta liburuki gisa osarazi ohi du auzoko fotokopia dendan, bidali beharreko argitaletxeak beste aletan. Estrategia honek ez dio orain arte emaitza positiborik erakarri, baina idazle dela sentitzen jarraitzeko ezinbestekoa zaio. Paperaren materialtasuna, liburu bihur litekeenaren pisua besapean, postarantz daramanean...

**Gaztea** zen, Franco hil zenean. Doi-doi hasia zen bere zokoa testutxo batzuk atontzen. Maitanek bultzatu zuen horretara. Euskal klasikoak irakurtzeari ekin zion, hala gomendatzen zutelako garai hartako idazle berritzaileenek, baina izugarri kostatzen zitzaion. Irentsezinak iruditzen zitzaizkion; den-denak, Axularrengandik ha-



sita. Elizkoikeria pairaezina autore guzti haiena. Haatik, ez zion inori sekulan halakorik aitortu. Maitaneri izan ezik, zeina euskal klasikoen irakurketaren inimiziazio erritu aszetikoan bere kabuz murgilduta baitzebilan ordu hartan. Biek ala biek elkar ezagutu aurretik zeramaten militantzia linguistikoak zeresan handia izan zuen beraien arteko hurbiltzean. Manuk Arestiren testuak eta Miranderenak zituen gogoko. Arestirenak iruditzen zitzaiolako berak ere egin zitzaakeela, hain ziruditen sinpleak poeta sozialaren purrustadek. Eta Miranderenak, berriz, ba denei antzera, morboarengatik zitzaizkion erakargarri, nahiz ez zituen beti osorik ulertzen. Euskal Idazleen Elkar-tea sortu zenean, laurogeiko hamarkadaren hasieran, erabaki zuen bere ordua iritsi zela. Olerki bilduma bat osatu eta argitaratzea lortu zuen. Gauza ez oso harritzekoa, garai hartako euforian edozein testuk amaitzen baitzuen inprimategian, euskaraz idatzia zegoen ber. Inor gutxik irakurri zion, ordea. Prentsa idatzian egin zitzaion kritika bakarrean anakronikotzat jo zuten bere testuen kutsu arestiarra. Konprometituegia omen zen. Ez zuen ondo ulertu harrera hura, edo harrerarik

eza. Sarrionandia laudatu berria zuten, bada, aho batez, kritikari horrek berak eta beste guztiek. Eta iurretarra baino idazle konprometitua-gorik? Presondegian sartua zuten morroia, etakide izateagatik.

Zerbaitek ihes egiten zion garai hartan. Txillardegi gora, Txillardegi behera, Sarrionandia ume mukizu hura zegoeneko Parnasoaren gailurrera iritsita... eta gero bere testu konpromitetuei kasurik ere ez?... Gauzak apur bat argitu zitzaizkion Atxagaren eta Txillardegiaren arteko debate famatu hura gertatu zenean, laurogeiko hamarkadaren erditsutan. Konprenitu zuen bi bando zeudela euskal mundutxo literarioan. Laburbiltzeko: ETaren aldekoak eta ETaren kontrakoak. Eta konprenitu zuen, baita ere, ETaren kontrakoak nagusitzen ari zirela mundutxo literarioan, nahiz eta oraindik itzal handia izan ETaren aldekoek, eta batez ere babes sozial askoz ere handiagoa. Babes sozial hori hain zuzen euskarazko literatura irakurtzen ez zutenek eskaintzen zuten nagusiki, konprobatu ahal izan zenez. Nola idatzi egoera horretan? Gauzak ez zeuzkan oso argi eta zuhurtziak obserbatzaile

soil gisa jarraitzea agindu zion urte batzuez, deus ere idazteke, eta logikoa denez, ezer argitaratzeko. Maitanek ez zion kontuari garrantzirik eman nahi izan. Bazirudien olerki liburuaren porrotak ez zuela egiazko elkarrizketa bat ere me-rezi harentzat. «Badakit haietako gehienak bezain ongi idazteko gai zarela» esatera mugatu zen, telebista kanala aldatzeko butakatik altxatu aurretik.

Espainiako Narratiba Sari Nazionala 1989an Atxagak eskuratu zuenean, Manuk erabaki zuen berriro iritsi zela bere ordua. ETArekin aldeko euskal idazleenak egin zuen eta garbi zegoen zein bandotik idaztea komeni zen. Ipuinak zeudenez modan, bada ipuingintzari lotu zitzaion liburu berri bat osatzeko asmoz. Zoritxarrez kale egin zuen berriro ere, eta gainera modu bikoitzean. Ohartzera, nobelara pasatuak ziren euskal idazle nagusi guztiak eta apenas eskaini zioten arretarik bere lanari, kritika abegikor bezain motel batzuk argitaratu ziren arren, han eta hemen, bere testuak irakurterrazak zirela azpimarratuz. Despistatuta ibiliagatik bazekien irakurterraztasunarena modu diplomatiko bat zela

kritikariarentzat adierazteko mintzaira literario txiroa zeukala idazleak eta liburuaren edukiak ez zeukala interes zipitzik. Bestalde, ezker abertzalekoa zuen familiaren zati handi bat haserretu egin zitzaion, zeharo, ipuinen kutsu atxagatarra-rengatik, alegia, espainolistarengatik. Saltsa askotan sartua bide zegoen lehengusu bat etxeraino hurbildu zitzaion eta gutxigatik ez zuen egurtu. «Ez al dakik ze familiatakoa haizen, lerdo hori! Ahantzi al zaik hire aitona-amonek pairaturikoa euskaldun izateagatik?» leporatu zion lehengusuak. Euskaldun izateagatik baino abertzale izateagatik jasan zituztela jasandakoak ñabartu nahiko ziokeen, baina ez zen unerik aproposena ñabarduretarako. Gainera lehengusua metro eta laurogeita hamar ingurukoa zen. Begietara begiratu ezinik, begirada lehengusuaren lepoan finkatu zuen, zeinetan zaina edo arteria zatekeena (ez zuen inoiz ikasi biak bereizten) lehertzeraino hanpatua ikusten baitzuen, urdinmore.

Zer den bizitza, zenbat jirabira ematen dituen. la euskal politikagintzak beste. Banandu denetik idazteko denbora gehiago dauka, noski, baina baita beste gauza askotarako ere. Esaterako, azken aldion berriro adiskidetzea lortu du lehengusuarekin. Orain astero elkar ikusten dute. Futbito talde batean ari dira biak eta mendira ere sarritan joaten dira elkarrekin. Bien mutilzahartasunak lagundu bide dio Manuri lehengusuarekiko zubia berreraikitzen, aurretik inoiz zubirik izan bazen. Hasieran mesfidati hartu bazuen ere lehengusuak Manuren hurbiltze saioa, pixkanaka bere konfiantza irabazten jakin du. Besteak beste, behialako idazle plantak eta kalakak baztertuz. Lehengusuak ez daki idazten jarraitzen duela.

Gutun-azala prest dauka, egongelako mahaietan pausatuta. Oraindik hiru ordu laurden geratzen dira posta bulegoa irekitzeko. Nobela pintsua atera zaio; aurrekoa baino are pisuagoa. Horrelakoak behar omen ditu gaurko irakurleak

eta horrelakorik idatzi ez duena ez omen da idazle.

Bainugelan sartu eta bibote postizoa jarri du. Benetakoa dirudi, ez da inauterietako bibotetzar horietakoa. Aitaren aspaldiko pastadun betaurrekoak jarri ditu ondoren. Azkenik, ilea gominaz atzerantz bota du. Emaitza harrigarria da, ispi-luan konproba dezakeenez.

Maitanek 1997ko Eguberri egunean, bere gurasoan etxe azpiko aparkalekura iristean, agertzion haurrak izateko gogoia. Ahal bezala defenditu zen Manu. Eskaerak -zeren bistan zegoen eskaera bat zena eta ez gogo oraindik lauso baten azaleratze espontaneo- ezustean harrapatu zuen, bat-batekoegia zen. Gainera, sentitzen zuen ez zegoela erabat prest, nahiz ez zuen baztertzen etorkizunean halako aitatasun xederik izatea. Haatik, eta hori zen Maitaneri aurkeztu ahal izan zion taxuzko argudio bakarra, ez zen oraindik burutzera iritsi aita bihurtu aurretik buruturik eduki nahi zukeen guztia. «Ulertzen duzu» esan zion ahal bezain leun, «nire semea

egin dudana harro egon dadin nahi dut». «Asko egin duzu dagoeneko» esan zion Maitanek, oraindik bere asmoa aurrera eramane zezakeela sinetsita. «Mendian galdutako herrixka batetik zatozela kontuan hartzen badugu, eta ikusirik zure familia...». Beranduegi ohartu zen familiarena aipatzean egindako hankasartzeaz, baina isilune labur baten ondoren, argudiatuz jarraitu zuen Maitanek, baikor, elkar ulermenerako borondatea agerian utziz: «Ohartzen zara? Funtzionarioa zara Gasteizen, eta nahiko duinki ordaindua gainera. Zer egingo genuke zure soldataren bermerik gabe? Oraingo biok bakarrik osatzen dugun familia honi eusten diozu. Eta ni ere, banaukazu, ezta?». «Badakit, Maitane. Baina... konbentzita nago benetako idazlea izan naitekeela». Aldi berean galdu zituen ziurtasuna eta irribarrea Maitanek. Hala eta guztiz ere, azkenean saioa egin zuen. «Idazten jarraitu ahal izango duzu, aita izanik ere, Manu...». Bere izenaren bigarren silaba nota agudoagoan ahoskatu zuen, goxoki bat gehiago nahi lukeen umeak *aitatxo* bukatuko lukeen moduan. «Idazle gisa hobetu baino ez zaitu egingo aitatasunaren esperien-

tziak». «Maitane, bihotza, nik ez dut idazten jarraitu nahi. Idazten *hasi* nahi dut. Egiazki. Sentitzen dut hau dela unea. Sentitzen dut egin dezakedala. Orain» erantzun zuen Manuk. «Zer dela eta *orain*?!» arraildu zitzaion ahotsa Maitaneri. «Nire lehen eleberria idazten *hasi* naiz» iragarri zion orduan, erronka doinua saihesteko lanik hartu gabe. Maitaneren gurasoenean Eguberriko bazkaria egitera igo ziren arren, bukaeraren hasiera izan zen.

**Bere** lehen nobelaz oroitzen denean amorruda da sentitzen duen lehen gauza, eta beharbada bakarra, ez baitago harro idatzitakoaren kalitateaz. Oraingo hau borobilagoa da, askoz. Esku ziurragoz idatzia. Azkenean gauzak argi dituen norbaiten emaitza da. Lehen eleberri zapuztu hura euskal egoera politikoa usteltze fase aurreratuan sartua zelarik idazten *hasi* zen, *Gizona bere bakardadean* eta *Hamaika pauso* irakurri ostean. Bi eleberri hauetan ETArekiko deslilura bizi zuten pertsonaiak ziren protagonista, ulertu zuenez, eta antzeko nobela eratzen saiatu zen,



presaka, anakronizitatearen mamuari behingoz izkin egiteko asmoz. Laster taxutu zuen intriga-txo interesgarri samarra. Baina, azken kapitulua idazten ari zela, Lizarra-Garaziko adierazpena izenpetu zuten alderdi abertzale guztiek, baita Ezker Batuak ere. Hortik bost egunera ETAk su-eten orokor eta muga jakinik gabekoa iragarri zuen. Manuren eleberri *desliluratuak* ezin zezakeen ezin argitaldari liluratu kontestu berri hartan. Garai baikorrak ziren haiek eta abertzaletasuna berriro ere loratuz zihoan kaleko jendearen elastikoetan, Euskal Telebistako tertulietan eta, bistan da, literaturan bertan ere.

Ezin izan zuen inoiz amaitu azken kapitulua. Nazkaz begiratzen zion bere bulegoko mahaian badaezpada irekita zatzikan koadernoari. Baina ozenagoa zen Lizarra-Garaziko akordioaren azantz mediatikoa bere Musaren marmar erlastua baino.

Esperientzia mingots horrek eman zion zer pentsatua Manu Eztandonari. «Distantzia hartu nahi zuela» edota «gogoeta fase batean» zegoe-la ihardesten zuen baldin eta liburu berririk labean ote zeukan galdetzen bazioten, idazleei po-

liteziaz galdetu ohi zaienez. Eta egia da, izan ere, hurrengo urteetako euskal politikaren gorabehera dramatikoak hoztasunez hartu zituela. Maitanek alde egin zuenetik askotxo murriztu zitzaion lagun eta ezagunen sarea. Hain zuzen, sare horretan geratu ziren apurrekin ez moztearren baino ez zen hurbildu terrorismoaren biktimen kontzentrazio batzuetara, Gasteizen lanean zegoenetan, nahiz presoan Euskal Herriratzearen aldekoetara, herrian harrapatzen zutenean halako ekitaldiek. *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean izan zen Donostiako Bulebarrean amaitu zen manifestaldian -lehengusuarekin batera-, eta Fernando Buesa sozialista ETAk hil zuenean ere parte hartu zuen, Gasteizko lankide funtzionarioekin batera, isiltasun minutuan. Gutxienekoak bete zituen, besterik gabe. Betekizun sozialak.

**Azken** urteetan jarraitu du euskal produkzioa irakurtzen, ariketa masokista samarra bihurtu bazaio ere. Gazteenen testuak ditu gogokoen. Ez diotelako bere belaunkideekiko lehia galdua

oroitarazten, eta ez diruditelako euskal arazoaz obsesionatuak. Ez behintzat bera eta bere adinekoak egon daitezkeen moduan edo heinean. Atsedengarriak zaizkio, bai, idazle gazteak. Aldiz, gero eta mingarriagoak egiten zaizkio bere belaunkide kontsokratuen agerpen mediatikoak. Jasangaitza zaio Lehendakariarengandik saria jasotzen ikustea horietako bat, ETBko kanal euskaldunean. Azkeneko aldian telebista itzali eta guzti egin zuen irabazlea diskurtsoa botatzen hasi orduko.

Egunsentiak zerua gorritz lardaskatu du. Hiriko antena eta parabola oihanari kea dario. Gosariko ontziak garbigailuan sartu eta botoiari sakatu dio Manuk martxan ezartzeko. Egongelako mahaian dagoen gutun-azal lodi bakarrean euskal argitaletxe ahaltsuenaren helbidea idatzi du. Oraingon kopia bakarra bidaliko du. Ez da besterik behar.

Joateko ordua da. Gabardina jantzi, bufandaz lepoa inguratu eta kanpora irten da, eskailerak binaka jaitsiz, bibotea mugitzen ez zaiola ziurta-

tzearren. Haize hozkirri bat dabil boladaka. Karrikan ez du alboetara behin ere begiratu. Hobe ez inor gurutzatzea, badaezpada. Posta bulegotik itzultzean bai, orduan altxatuko du burua, bizitza berri baten jabe. Baina orain kontzentratu beharra dauka. Garrantzitsuena lasaitasuna mantentzea da, edo, bederen, lasaitasuna ahal bezain ongi antzeztea.

Posta bulegoaren aurrera iritsi da. Ondoko tabernara jo du. Barrako aulki garai batean eseri eta bitter bat eskatu du. Orduan azaldu da lehengusua, zurbil samar, gutun-azal lodi bat besapean. Barran pausatu du. «Bizi al gara?» galdetu dio Manuk. «Hi, futbitoa gaur zortzietan duk, bale? Aurreratu egin ditek ordua» adierazi dio lehengusuak, mekanikoki, bazterrak begiez miatuz. Zuritza hartu du hark. Topa egin dute. Programatu moduan. «Soljenitsini!» esan du Manuk. «Zer?». «Ezer ez, txiste txar bat». «Deitezekotan egon nauk, orain dela ordubete» aitortu dio Manuk ondoren. «Zer ba?». «Badakik, urduritasuna. Ez neukaan motiborik». «Beno, gero arte» moztu du lehengusuak, narritatu antzean. Kanpoan da jada. Lehengusuari pankarta bat be-

zain agerian daraman estresa eramaten lagunduko ziolakoan egin du Manuk bere urduritasun propioaren aitortza. Laguntzearren. Astakirten halakoa. Bitterra bukatu arte egon da Manu, egunkariari errepassoa ematen. Lehengusuak utzitako gutun-azala barratik hartu, bi edariak ordaindu eta ireki berria den posta bulegoaren aurrean da Manu. Barruan hiru ilara ikusi ditu. Erdialdekoan jarri da, lasterrago doalakoan. Bullarrak nabarmentzen dizkion artilezko jertse estua darama postariak. Besapetik eskuetara jaitzarazi du gutun-azala. Orduan jabetu da eskuak izerditzten hasi zaizkiola. Lehengusuaren sindromea. Bibotea hatzez leuntzekotan zegoen, ematen dion hazkuragatik, baina bertan behera utzi du keinua. Gogoratu zaio behiala UEUko antzerki mintegi batean ikasitakoa, alegia pailazoak ez duela inoiz bere sudur gorria ukitu behar ez badu ikuslearen sinesmena zapuztu nahi. Lerroan aurrera doa. Niki mahuka luzedunak bero ematen dio. Aukera txarra. Eguraldiaren iragarpenari kasurik ez egiteagatik. Ezin da dena kontrolpean eduki. Ezinezkoa da. Lasaitu egin behar du. Lehena dalerroan. Laster bere txanda.

Postariak ez bide du oraindik Manu ikusi. Izan ere, begirada ez du inoiz aurrean daukan bezerotik at altxatzen. Orain bai, aurreko bezeroa joan eta ikusi egin du. «Kaixo» irten zaio. «Hola» besteak. Bezero bat gehiago da. Ez dago urduritzeko arrazoirik. Neskak kleenex bat atera eta zintzatzeari ekin dio, gutuna pisatzen duen bitartean. «Urgente» zehaztu dio Manuk bat-batean, ahazteko zorian egon dela ohartzeak hotzikaraturik. Gutun-azalaren gainean eransteko helbide-papera luzatu dio postariak. «Indique la dirección aquí» agindu dio zakar samar, «y póngase al lado, así puedo atender al cliente siguiente». Manu baztertu egin da, neskak agindu moduan. Arabako Alderdi Sozialistaren egoitzaren helbidea, lehengusuak makinaz idatzia, tapatu egin du postariak emandako eranskinaz eta, haren ordeztan bertan Eusko Jaurlaritzako Barne sailburuaren izena eta helbidea markatu ditu. Sailburuaren etxeko helbidea jarri du, ez bulegokoa, ezta EAJko Araba Buru Batzarrekoa ere. Maitaneren eskola garaiko lagun baten aita da sailburua, Gasteizko familia abertzale historiko batekoa, eta horri esker daki non bizi den. Postariari utzi

dio gutun-azal pisua eta eskudirutan ordaindu du, aztarnarik ez uztearren. Agur edo adios esan, duda egin du. «Gracias. Hasta luego» esan dio. Hark ez du erantzun, hurrengoan jarria du, jada, bezeroentzat daukan arreta erreserba urria.

Etxera itzulita, bainugelara sartu eta mozorroaren osagaiak kentzen hasi da. Zakarrontzira bota du bibotea. Ez du berriro erabili behar. Buruko gomina geruzak aire interesgarria ematen dio, baina patologikoki nartzisista izan behar da hala-ko deserosotasuna egun osoan jasateko. Dutxa beroan libratu du adatsa. Gero bizarra mozteari ekin dio. Une batez bere ile zuriak zenbatzen jardun du. Belarrietatik irteten zaizkion ile moltsoak ikusi ditu lehen aldiz. Marroi argiak dira, buruko beltza duela. Zahar itxura ote dauka? Lehen zerbait piztu ohi zuen gurutzatzen zituen emakume askorengana. Agian ileak lehen aldiz tindatuko ditu, aspaldi, artean Maitanerekin zegoenean, egindako promesaren aurka. Kolorearen ez da gominaren bezalako, argudiatu du,

bere buruaren abokatu bihurtuz. Bizitza berri bati ekitekotan, hobe karta guztiak alde edukitzea. Gauzak lortzeko borrokatu beharra dagoela badaki eta, bai, ileak tindatuko ditu. Definitiboki. Banandurik egoteak promesa zaharra baliogabetzen duela iruditzen zaio.

Telefonoaren txirrina deika ari da egongelatik. Hiru txirrin. Bizarra egiten segitu du. Hortik bi minutura bi txirrin. Eta isiltasuna. Oraindik aparra bisaian duela telefonora hurbildu eta lehen-gusuaren zenbakia markatu du. Hiru tonalitate. Eskegi du. Zain dago, lehortuz doan aparrak mäsailletako azala tiratzen diola sentitzen duen birtartean. Berriro zenbakia markatu eta bi tonalitate. Eskegi eta bizarrarena bukatzera joan da bainugelara.

Herrirantz abiatuko da gauean, bezperatik egongelako mahai gainean pausaturik jarraitzen duen gutun-azal lodi eta pisutsua harturik. Eta ez da, jakina, futbito partida jokatzera azalduko. Gurasoekin afalduko du. Badauka gogo hitz-aspertu bat izateko. Azken aldion nahiko utzita eduki ditu. Biharamunean, bere haurtzaroko ohe bigunegian, estalki eta maindire meta baten az-



pian egongo da eguzkia zeruan nahiko gora igo arte, aspaldiko partez. Gero mendira txango bat egitera irtengo da eta bazkalordurako itzuliko da baserrira. Ordu bietako albistegiaren aurrean bazkalduko dute. Jaurlaritzako Barne sailburua hil duen bonba-gutunaren berria entzun ostean kafea hartuko du egongelan. Aitak zera murmurikatuko du, ziurrenik, Manuk entzuteko gisan baina amarentzat apalegia nahi lukeen ahotsarekin: «Garbi zegoan. Halako batean gertatu behar zuan. Espainolekin ia oheraino sartu dituk hauek eta... Merezi». Ama ez da isilik egongo: «Ixo! Entzun dizut. Zoroak dira. Zoroak! Familia buru bati erasotzea ere, bertakoa gainera... Dena hondatzen ari dira. Ez dago barkamenik halakoentzat. Ez hemen, ez zeruan. Entzuten?!». Gurasoak agurtuko ditu orduan, azkenengoz, presarik gabe, ongi zehaztuz lehengusuak beragatik galdezka deitzen badu ez ezer esateko, bere berririk ez dutela baizik. Lehengusua eta bere arteko liskar baten aitzakia emango dio amari, ez dadin kezkatu. Ama ez da inozoa eta aspalditik dauka lehengusuaren aktibitateen susmoa baino gehixeago. Horregatik, poztu eta

guzti egingo du lehengusuarekin haserreturik dabilelako berriak. Gero autoan sartu eta herriko plazako postontzian bere eleberria daraman gutun-azala sartuko du. Herriari azken begiratua eskainiko dio.

Badaki oraingoan ez diola ezein idazlek, ez bere belaunaldikoek, ez beste inork, aurrea hartuko. Badaki azkenean Historiak eta literaturak bat egingo dutela bere eleberrian. Badaki sinkronizitate perfektua lortuko duela.

# Epaimahaia

Demagun aipatu ditudan idazle horiek guztiak izan direla, dimentsio edo unibertso honetan ez bada, agian ondoko dimentsio paralelo batean.

IBAN ZALDUA

Andia kaleko 13a. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren egoitza. Goizeko hamaikak. Urri hasierako egun epelegia, haizetsua, narritagarria akaso inorentzat. Euskadi Sariko bost epaimahaikideak, Kultura Sailaren ordezkaria eta bilera-ko idazkaria mahai obalo baten inguruan jarrita daude. Hirugarren solairuko leihorik gabeko bulegoko paretak koadrorik gabe. Bost finalisten lanak banan-banan bakoitzak iruzkintzea da bileraren lehen zatiko zeregina. Bigarren zatian, aurreko bi bileretan hartu ohiturari jarraiki, instituzionalizatzeko bidean den kafetxoaren bueltan alegia, bozketa egingo da. Orduan jakingo da nork irabazi duen saria.

Kepa Jauregi apaiz frantziskotar jubilatua izan da hitz egiten lehena. Azken berrogeita hamar urteetan zintzoki eta sakrifikatuki euskaraz argitaratzen den oro irakurri duen arren, ez da berea ahots erabakigarria. Ez du epaimahai-ko beste inorengan eraginik izateko behar den itzalik eta horren jakitun da bera. Horregatik, modu nahiko inbertsonalean eta bere oharrak autoreek erabili duten hizkerara mugatuz aletzen ditu finalisten lanak. Ezinezkoa da berak esandako hitzetatik bozka nori emango dion asmatzea. Eta litekeena da berak ere oraindik ez jakitea, garbi baitago epaimahaiaren haizea nora, hara joango dela bere aukera.

Imanol Ansotegi da hitza hartzen bigarrena. Berrogeita bi urteko nafar idazle honi behialako esperantza ihartuek goibeltzen diote begitartea. Apika idazle baino kritikari hobea izan da betidanik eta irizpide argi eta ziurraz ebakitzen ditu bere epaiak. Mahai obaloa adi dauka, bere iritziarekin hasiko baita erabakitzen saria. Finalistak bost badira ere -poeta bat sartu beharra zegoen eta ohiko Iparraldeko idazlearen ordeztaiakeragile bat sartu zuten aurreko bileran hau-

tagaien artean, finalisten zerrenda politikoki zuzena gera zedin- biren gauza da bere aburuz benetako lehia. Libe Aginagaren eleberria interesgarria izan arren ez da erabat borobila eta, hortaz, Joxerra Sarragoiti kontsakratuaren *Kanoiek pott egin zitean* eta Markel Aoizen *Tropel tristea* ri deritze irabazle izateko moduko bakarrak. Ez bide du inork zalantzan jartzen berak iritziakoa. Bitxiena, Ansotegiren ibilbidea ezagutzen duenarentzat, *Tropel tristea* ipuin bilduma defenditzeko erabili duen erretolika hotza izan da. Markel Aoiz eta bera, adinkide izateaz gain, adiskidetzat dauzka jende gehienak. Berak inoiz lortu ez duena lortzekotan den belaunkideari saria ukatzeko tentazioa ote hoztasun horren zioa?

Hurrena Borja Martinez mintzatu da, epaimahaikideetan gazteena. EHUn Filologia tesi bat prestatzen ari da 90eko hamarkadako olerkigintzaz. Ansotegirekin bat egin du Sarragoiti eta Aoizen lanen kalitatea azpimarratuz. Haatik, Libe Aginagaren eleberria hirugarren lehiakide zinezkotzat daukala zehaztu nahi izan du. Bero eta luze aritu da Joxerra Sarragoitiren azken eleberriaz. Laburxeago Aginagarenaz nahiz Aoizen

ipuinez, baina bere azken aukeraz pista argirik eman gabe.

Ondoren Irantzu Aranguren aztoragarriaren txanda izan da. Zilegitasun gutxien duen epaimahaikidea da Irantzu, ez baita ez idazle ez irakurle profesionala, Bizkaiko ikastetxe batean euskara eskolak ematen diharduen irakasle xumea baizik. Baina epaimahaiko lau gizonen bost axola zaie berak literaturaz asko edo gutxi jakitea, bera bezalako andereñoa izatekotan eskolara itzultzeko prest leudekeelako. Labur eta herabeturik hartu du hitza *egiazko* bi finalisten aukera horretan aurrekoei arrazoi emateko.

Azkenik Karlos Iturriotzek hartu du hitza. Ansoategiren antzera bigarren planoan geratutako idazlea da. Joxerra Sarragoiti handiaren aspaldiko lagun izateak errebotetzko aura antzeko bat eman dio betidanik eta sasi ospe horretatik bizi da. Sarragoitiren talde literario eta manifestu guztietan agertzen da bere izena, eta lantzean behin Sarragoitik hitzaurre bat egiten dio bere liburuetako bati, betidaniko leialtasuna saritzeko edo. Zaila da, hortaz, beste norbaiten alde joka lezakeela irudikatzea ere. Epaimahai-

buru gisa, alta, behin baino gehiagotan esan die beste epaimahaikideei, bilerak hasi dituztenetik, inolako aurreiritzirik gabeko eztabaida bermatzeko asmoa duela. Hasteko, Aoizen lana iruzkindu du, luzaz. Laudorioz estali ditu *Tropel tristea*-ko testuak. Halere, zera esanez bukatu du:

- Berriro argi eta garbi utzi nahi dut, eta uste dut orain arteko prozesua ezin gardenagoa eta libreagoa izan dela, edozeinek irabaz dezakeela saria. Hots, ez dagoela aldez aurreko faboritorik. Hemen esango direnak ez dira hemendik irtengo eta lasai erabaki dezakezue kontzientzia literarioak esaten dizuenaren arabera. Niri dagokidanez, lagun batek orain dela egun batzuk komentatu zidan esaldi bat datorkit gogora une honetan.

Irribarre ezdeus bat loratu zaio ezpainenan Iturriotzi, baina nahigabeen loratu balitzaio bezala uxatu du segituan.

- Euskaratu berri den Victor Hugoren *Idi orgaren karrankak* liburuko esaldi bat da: «Berde honekin lurra egin zuen, urdin honekin, zerua». Horrekin zera esan nahi dut, sari honekin idazle bati zerua ematea dela gure lana. Lurra irakur-

leak emango edo ematen dio. Ez dut uste Markel Aoizen lanari kalitatea falta zaionik. Berdea da dagokion kolorea, ordea. Ez dut esan nahi oraindik berde dagoenik, ez nazala inork gaizki ulertu. Ez da adin kontua. Itxaropenaren eta etorkizunaren kolorea da berdea. Nik uste *Tropel tristea* baino obra are hobek emango dizkigula hurrengo urteetan, hau da, onenak eman gabe dagoela oraindik.

Bere hitzen eragina neurtzeko, edo baieztatzeko, geldialditxo bat egin du, berriro ekin aurretik.

- Sarragoitiren lanaz, berriz, ez dut ezer esango. Beste behin ere iruzkinetatik haratago dagoelako. Nire uste apalean, ez naiz nor maila honetako lanak nire lertiaz, miresmenekoa izanik ere, orbantzeko. Orain kafetxoaren ordua dugu, lagunok.

Zuresiek bereizten dituzten bulego txikiz betetako areto nagusiaren sarreran dago edari makina. Solairuko funtzionario gehienak ez dira ohar-tu ere egin bost epaimahaikideen presentziaz,



eta ohartu direnek sorgortasunez begiratu diete, hartzear dauden erabakiaren garrantzia susmatu gabe. Kafezaleak ez direnek ere kafea hartu dute, sabelaldea korapilatzen dien urduritasunari zio erretrospektibo bat eman nahiz, ausaz. Borja Martinez doktoregaia komunetarantz abiatu da. Irantzu Aranguren irakasleari pixalarri dela gogoratu zaio orduan.

- Borja! Psst! Etorri...

Pixa egitetik gizona zkoenetik irten berri den Borjari deika ari zaio Irantzu, emakumezkoen komunen ate zirrikitutik. «Niri ari zara deika?» esan nahi duen aurpegia jarri zaio Borjari, loterian sari lodia irabazi duela iragarri baliote bezala. Eskuaz keinu egin dio Irantzuk, sartzeko. Bere atzean atea itxi du gero.

Biak bakarrik daudela ohartu da orain Irantzu, emakumezkoen komunetan. Eta berak gonbidatu duela hara Borja. Komunetako airea berritzen duen bentilagailuaren marmarra baino ez da entzuten. Hodi fluoreszenteen argia gordina da eta aurpegietako xehetasunak gupidagabe salatzen ditu. Orezta betetako Irantzuren aurpegi gorrituak marrubiaren itxura hartu du. Jate-

ko moduko marrubia dela otu zaio Borjari. Bere izaera herabea bortxatzen ari da Irantzu, begi bistan dago, baina gaizkiulertua lehenbailehen desegin nahiko luke eta hitz guztiak batera esan nahi balitu legez atera zaizkio:

- Barkatu Borja, zorotzat joko nauzu baina hau da dudan modu bakarra. Eta azken aukera. Dena normaltasunez igarotzen ari zela sinetsita nengoen. Nik ez dut uste Sarragoitiren eta Aoi-zen lanak bata besteari gailentzen zaizkionik. Ez zentzu batean, ez bestean. Horregatik, berdin zait, benetan, batari nahiz besteari ematea saria. Baina gauza arraro bat gertatu berri da...

Ausardia barkatu diola baieztatu nahiko bailuen begiratu dio Irantzuk Borjari, berriro bere azalpen luze eta zailari ekin aurretik. Borjari, aldiz, kostatzen ari zaio atsekabea gordetzea. Irantzu ohartu da Borjaren atsekabeaz, eta, ezustean, gustatu egin zaio emozio hori Borjaren aurpegian inprimaturik ikustea. Adorea eman dio jarraitzeko:

- Banuen susmorik egia esateko, baina, noski, frogarik ezean... Ez al zaizu bitxia iruditu Iturriotzen hasieratiko neutraltasun autoaldarri-

katua? Behin eta berriro esan digu presiorik gabe erabaki behar genuela, edozein idazlek irabaz zezakeela, idazleen sexuak, ibilbideak edota prestigioak ez zuela zeresanik izan behar erabakitzeke orduan. Bada, lehen-lehenik, Sarragoitiren betidaniko adiskide batengandik zail samarra egiten da hori irenstea. Baina tira, zergatik ez?, pertsona zintzorik egon badagoela sinesteke prest nago. Gurago nuke hala izan dadin. Eta horretan nengoen ni orain dela bost minutu arte... harik eta Victor Hugoren aipamena egin duen arte.

Borjaren begietan harridura eta jakin-mina nahasten bide dira. Irantzuk aurrera jarraitu du:

- Entzun duzu esaldi hori, zeru urdinarena eta lur berdearena. Eta gero etorri den komentarioa, ez omen dela idazle berdeegia baina berdearen itxaropena dagokiola Aoizi, eta abar. Bada, sinetsidazu nahi baduzu, Borja, baina esaldi hauek, hitzez hitz, Victor Hugoren aipamen eta guzti, entzun nituen orain dela aste bi Parisko Pompidou museoan nengoela.

Borja isilik dago.

- Oporretan nengoen Parisen eta, badakizu, kontestuz kanpo euskara entzutea beti egiten zaizu deigarria. Mugikorra belarrian, museoko azken solairuko tabernako beirazko leihoan bermaturik, Parisko teilatuei begira zegoen gizon bati entzun nizkion hitz haiek. Ba al dakizu nor zen?

Borjaren begirada maltzurto da, aldez aurretik egin behar dioten errebelazioaren konplize bihurtu nahi bailuen.

- Joxerra Sarragoiti *himself*.

- Ostia... -murmuratu du Borjak, badaezpada dako ahots apalaz-. Zer uste duzu, Iturriotzekin ari zela hizketan?

Borjak bere logikari jarraitu diola ikusirik, ez du erantzuteko nekerik hartu Irantzuk. Bekainak altxatuz «beste zerbait bururatzen zaizu?» esan nahi duen keinua eskaini dio.

- Joan egin beharko gara, ezta? Bestela zerbait susmatzen hasiko dira hauek -atera du Irantzuk Borja bere gogoetatik.

- Goazen, bai, onartu du Borjak -komunetako elkarrizketa intimoa bukatu delako penaz.

Kultura Sailaren ordezkariak azken kontsignak eman eta epaimahaiaren argazkia bozketa hasi aurretik edo ondoren egitea nahiago ote zuten galdetu ziren. Karlos Iturriotzek beharbada hobe zela aurretik ateratzea esan zuen, txantxa doinu-nan, «badaezpada, haserreturik bukatuko bagenu edo». Denek egin zuten barre, baina urduritasunak eragindako erreflexuz, hots, batera eta lasterregi. Bi argazki atera zituen idazkariak, lehena Kultura Sailaren ordezkariarekin eta bestea epaimahaikideekin bakarrik. Ondoren, bozketara igaro ziren.

Iturriotzek berak hasi nahi izan zuen, apika ondoan zuen Kepa Jauregi frantziskotarraren balizko azken dudak uxatzeko asmoz. Jakina, *Kanoiek pott egin zitean*, Sarragoitiren eleberriari eman zion bozka. Ondoren frantziskotarra mintzatu zen eta ez zion Iturriotzi -ala Sarragoitiri?-hutsik egin. Ansotegirena izan zen sorpresarik handiena. Kafe pausa aurretiko diskurtsoak iradokitzen zuenaren aurka, Markel Aoizen *Tropel tristea* ipuin bildumaren alde egin zuen. Hori bai, betebeharrari dagokion ahots entusiasmorik ga-

beaz, lagunarekiko zorra kitatzen ari bailitzan. Irantzu Aranguren Aoizen alde jarri zen, bere herabetasuna azkenean gainditurik eta Iturriotzi erronka begirada boteaz. Hortaz, bina zeuden bi lehiakide nagusiak, inork ez baitzion Aginagari bozkatu. Eta, ondorioz, Iturriotz mahaiburuaren kalitatezko botoa -hots, berdintasun erabatekoa suertatuz gero gailentzen zen bozka- indarrik gabea bihurtuko zatekeen, nik, Borja Martinez deitzen naizen honek, bi idazle hauetako baten alde egin izan banu.

Azkenean, Libe Aginagaren alde egitea erabaki nuen. Bizpahiru arrazoirengatik. Alde batetik, esan berri dudanez, banekielako horrek ez zuela ezer aldatuko. Alegia, jada Sarragoitik ez zuela nire bozkaren beharrik saria irabazteko, epaimahaiburuaren kalitatezko botoaren araua zela medio. Beste aldetik, Markel Aoizi herra diodalako, baina hau ez da horren zergatia ematen hasteko tokia. Azkenik, Irantzu neska txit erakargarria -eta agian eskuragarria- iruditzen zitzaidalako eta bera atsekabetzea penagarri zitzaidakeelako une hartan. Izan ere, nola aitortu berari Joxerra Sarragoitik Parisko Pompidou zentrotik

*niri* egindako dei hartaz ondo asko gogoratzen nintzela eta, bidenabar, neronek komentatu niola Iturriotzi, ondoko egunetan egindako bazkari batean, elkarrizketa telefoniko hura bere xehetasun guztiekin? Berdeegi sentitzen nuen gure artekoa halako arriskua hartzeko, eta zeruaren urdina jo nahi nuen Irantzurekin. Gaur bertan aitortuko nioke, beharbada, nire emaztea ez bailitz.

# Ergatibu

Dena hasi zen «Idurre ez du nahi Coca-Colarik?» esaten entzun nuenean. Ez zen, noski, Nekanek ergatibo bat ahanzten zuen lehen aldia. Jakinaren gainean ezkondu nintzen. Kontratua-ren letra txikian zetorren, esan badaiteke, berak ez zuela euskara nik bezain ondo menderatzen.

Alaitzen urtebetetze askaria antolatua zuen arratsalde hartan, ama batek bakarrik egin leza-keen moduan. Ikasgelako neskak bakarrik gonbi-datu zituen, adin horretan -bost urte zituen gure alabak- *naturalagoa* omen delako. Baina, batez ere, egun batzuk geroago aitortu zidanez, Alaitzen ikasgelako mutil baten gurasoak ez zituela-ko gehiegi maite. Hortaz, haien bazterketa disi-mulatzearren ez zituen neskak baino gonbidatu.

Badakit bitxia dela, gaurko munduan bizi bai-naiz, baina uste dut beti eduki dudala garbi eus-kara dakien norbaitekin ezkonduko nintzela. Ho-rren kontzientzia osoa, halere, urte batzuk lehe-nago hartu nuen, Luciarekin nenbilela. Hasi be-riak ginen hura eta biok, eta dena harrigarriro



zihoan gure artean. Azaldu behar dut -ulergarria izan dadin- denboraldi luze batean deprimiturik egona nintzela, Soniarekin gertatutakoarengatik. Sonia nire lehen bikote esperientzia serioa izan zen eta modu dramatikoan bizi izan nuen harremanaren bukaera, benetan maiteminduta bainengoen. Horregatik ziurrenik, alegia minbergi ikusten nuelako neure burua, nire ahuleziaz gogaiturik nengoelako, nerabezaroko ohitura zahar bat berreskuratu eta modu lotsagabe samarrean seduzitzen saiatu nintzen Lucia. Hamabost egun baino ez ziren ezagutu nuela. Euskaltegiko neure ikasle berrietako bat zen. Harritu ninduen halako estrategia zuzenak oraindik fruituak eman zitzakeela ikusteak. *Teenage movie* kaxkar baten mailako sedukzio ahalegina izan zen nirea, oso merkea. Baina orain dela gutxi ikusi dudan pelikula batean esaten zutenez, ez da inoiz azpibalaratu behar emakume baten ametsen mediokritatea. Horrela bada, ikasle arteko seihilabeteko lehen afariaren ostean, bere autoan itzuli ninduen Luciak nire apartamentura eta, besterik gabe, eskua izter gainean jarri nion. Besterik gabe. Ez nengoen gehiagorako garai

hartan. Autoestimua lurpean neukan eta halako ahalegin zoro bat izan zen Luciarekikoa, desesperazioak eragina. Itsusia da hitz horiekin esatea, baina zerbait harrapatu beharra neukan eta laster, zulotik ateratzeko. Bada, onetsi egin zuen izter gaineko nire esku hori eta elkarrekin irteten hasi ginen. Hain iruditu zitzaidan estetikarik gabea nire hurbilketa ezen pixka bat lotsatuta ere bainengoen, ondoren. Zerbaiten faltan bezala. Ohartzen nintzen beti asko zaindu izan nituela xehetasun erromaneskoak -ez dut esan erromantikoak- nire aurreko harreman sentimentaletan. Ez da, izan ere, gauza bera labetik atera berria den pizza bat jatea edo bere osagaiak bata bestearen atzetik gordinik irenstea. Gehiegi irakurria den jendearen sindromea zen nirea, funtsean. Hainbeste ohitzen zara harreman korapilatsuetara non arraroa egiten zaizun gauzak sinpleki, behar luketen moduan, ateratzea.

Kontua da Luciarekin gauza guztiak ia indarririk egin gabe lortu nituela, hala lehen musua nola oheratzea. Eta harrigarriena zera da, Lucia ez zela bigarren mailako neska gajo bat, *standing* eskasa jarrera sexual eskuzabalaz konpen-

tsatzeko prest dagoen horietakoa. Ez, inoiz izan dudan neska-lagunik bizkorrena dela ere esango nuke -kasurako, xake partidarik ezin izan nion inoiz irabazi-, potablea baino zertxobait ederra-goa izateaz gain.

Benetako misoginoa dirudit gauzak deskribatzeko modu honekin, badakit, eta izango naiz neurri batean, ez dut ukatzen, baina naizen bezalakoa agertu nahi dut, ez dut egia edertu nahi... Esan bezala, Luciarekin harremana minik gabea izan zen, esfortzurik nahiz inguru-mingururik gabea. Zentzu batean, ideala. Ordu hartan ez nuen ulertu zergatik zetorkidan bat-batean halako opari jasa eta tonto aurpegia geratu zitzaidalakoan nago. Erretrospektiboki badakit, haatik, Luciak hala jokatu bazuen berak gauzak garbi zeuzkalako izan zela. Gizonak dira ameslariak; emakumeak oso pragmatikoak izaten dira. Egokia nintzen bere aspirazioentzat -irakasletzan titularizatzeko bidean zegoen mutil langilea, idazle nahikundeak agertzen zituena, lagun-en eta familiaren aurrean irudi ona emateko modukoa- eta gazteegia ere ez zenez, bada, aukera ez zuen pasatzen utzi. Horra guztia.

Hilabete atseginak izan ziren haiek. Konkistatu egin nuela sinetsarazi ondoren -orain konturatzeko naizenez- segituan hartu zuen lema Luciak, bikote kontuetan eskarmentu handiagoa zeukalako eta, beharbada, sozialki apur bat nire gainetik sentitzen zelako. Hiriko bizitzara ohituta zegoen bera, ni baino urte gehiago baitzeramatzan bertan, eta hainbat gauza deskubriarazi zizkidan, hala nola jatetxe japoniarrak, talasoterapia edota arte garaikide erakusketak. Aita diruduna bide zuen, edo behintzat diru pixka bat izandakoa, eta gauza errefinatuen ezagutza transmititua zion. Ni *Luna park* batean bezain pozik nengibilen bere unibertsoan, hau ikusi, hura dastatu, bestea ukitu.

Gau batean, bere autoan zinemara gindoazela, komentatu zidan, pasadan bezala, gurasoek urte batzuk lehenago erosi zioten apartamentua saltzeko asmoa zuela, haren truke berri bat erosuteko, handiagoa. Nik ez nuen ulertu elkarrekin bizitzen hasteko eskaintza inplizitua zenik. «Ze ondo» komentatzera mugatu nintzen, asmo hark nirekin zerikusirik ez balu bezala. Ulertu ez nuen arrazoi batengatik zineman urduri sentitu nuen

eta ez genion beste aldietan bezala elkarri eskua eman filmak iraun zuen bitartean, berak aukeratuak melodrama intimista bat izan arren.

Ordu batzuk geroago, ikasle garaietatik gorde nuen apartamentu ziztrineko sofa-ohetan sartuta geundela, ilunpean, lokartzekotan, galdera bat egin zidan: «Nik euskara ez jakitea arazo bat da zuretzat?». Lucia hemengoa zen, eta sinpatia abertzaleak zituen -edo behintzat antipatia deklaraturik ez-, baina bere familian ez zen erabiltzen. Nire hitzen brutalitateaz ia ohar-tu gabe erantzun nuen, xaloki: «Garbi daukat nire haurrek etxean euskara entzun dezaten nahi dudala. Ez dut besterik irudikatzen».

Bere *Luna park*-eko mendi errusiarreko bagoitxotik ostikada bortitz batez bota ninduen eta muturreko ederra hartu nuen behera iristean.

Ondo merezia neukan gertaturikoa. Baina zer esango dut? Iraganera berriro itzultzeko aukera banu uste dut gauza bera erantzungo niokeela, baldarkeria gutxiagorekin, hori bai, dotorezia mantentze aldera. Jakina, maltzurki jokatu banu eta erantzun diplomatikoagoa eman banio, lortuko nuen gure artekoa hainbatean luzatzea eta,

bide batez, proposatzen zidan bizitza erosoaz gozatzen jarraitzea -ez dakit oraindik kontatutakoa bere aitak Mallorcan inoiz erabiltzen ez zuen bigarren egoitza bat zeukala, piszina eta guzti-. Baina ez zatekeen zintzoa nire benetako sentipenak mozorrotzea. Beraz, nire tolesgabekotasunak salbatu ninduen gure harremana artifizialki iraunaraztetik eta gezurraren bide desohoragarrian sartzetik.

Nire emazte Nekane ezagutu nuenean, hortaz, euskarak niretzat zuen garrantzi bereziaren jakitun nintzen aspalditik. Beraz, ez daukat zirkunstantzia aringarririk. Nekanerekin ez dut *desilusiorik* eraman. Banekien nora nindoan. Banekien neuk izango nuela gure haurrei ahalik eta euskara eredu onena emateko ardura. Asumitua neukan eta uste nuen, zaila izan arren, erronkari aurre egiteko moduan izango nintzela. Utzia nion, Nekanerekin irteten hasi ginenean, nerabe izateari. Mentalki, esan nahi dut. Hain zuzen, nerabe peto-pettoa nintzenean -aurpegiko akne kraterrak beste amets antikonformista garuenean-, Soniaren garaian beraz, oso bestelakoa zen nire planteamendua. Idealista hutsa nintzen,

eta uste nuen berdin izango zitzaidala nire nor-  
tasunari uko egitea baldin eta maitasun egiazko-  
aren, maitasun erabatekoaren, maitasun zoroa-  
ren mesedetan bazen. Beno, ez da uste nuela  
bakarrik, benetan nengoen prest neure euskaraz  
beste egiteko, Soniaren gatibu bainintzen, gati-  
bu ezin zoriontsuagoa. Eta egia osoa aitortu  
behar badut, ez dakit gaur ere kale kantoian be-  
rarekin tupust egingo banu ez ote nengokeen  
prest beste behin ere euskara *unamunizatzeko*.  
Sonia... Suntsitzen zaituen lehen neskarekiko  
katea ezin apur daiteke.

Baina Nekanez ari nintzen. Esan dudanez,  
«Idurre ez du nahi Coca-Colarik?» esaten entzun  
nuenean hasi zen dena, Alaitzen bosgarren urte-  
betetze askarian. Ohituta nengoen, ordurako,  
bere distortsio linguistiko txikietara. Beti eragin  
izan zidaten hazkura belarrian, Nekanez maite-  
mindu nintzen garaian ere. «Zurekin bizitu nahi  
dut». Hori da bere ahotan gogoratzen dudan  
lehen hutsa. Kosta egin zitzaidan ez zuzentzea  
entzun bezain pronto, baina gogoari eutsi nion  
nola edo hala. Uste dut, halere, egun batzuk ge-  
roago zehaztu egin niola, modu ahal bezain gozo

eta irribarretsuenan, «bizi nahi dut» esaten dela, eta ez «bizitu».

Biok bakarrik bizi ginen bitartean ez zen, alabaina, arazo larriegia izan niretzat. Nekane emakume perfektua zen: erakargarria, argia, arduratsua, jendekoia... Agian ohe kontuetan zenbait muga zituen. Baina, ia hobe, ezta? Gizonari ez zaio gustatzen pentsatzea *aurrekoekin* esperientzia izugarriak bizi izan dituela bere emazteak. Ez dut esan nahi, halere, desastre bat zenik. Ez, ez. Bakarrik konformista samarra, nire gusturako. Dena den, etortzeko zeuden gure balizko haurrak gogoan nituela, ezin nuen aukera hobetik egin. Nire familiakoen gizentasunerako joera orekatzera zetorren bere familiakoen lerdentasuna, eta esan behar da gure arrazakoak baino hazpegi armoniatsuagoak zituztela, orokorrean, bere aldekoek. Nahasketaren emaitza bikaina izan zitekeen -eta nire susmoa baieztatu besterik ez dute egin gure bi haur zoragarriek-. Gainera, bere diskurtsoan feminista izan arren, bazuen errealitatearen intuizioa eta, onar bekit politikoki inkorrektoa den beste ohartxo hau, etxearen kudeaketa bikaina egiten zekien, gizonok inoiz



jakingo ez dugun moduan, asko laguntzeko prest egon arren. Eta hau ez da xehetasun ezdeus bat, familia baten zorionaren baldintza ezinbestekoa baino, zutabe nagusia. Berriro diot: ia perfektua zen.

*Euskararena* joko bihurtzea lortu genuen, gure konplizitate maila handiagotuz joan ahala. Txantxa doinua mantentzen nuen egin zitzakeen hutsak komentatzen genituen bakoitzean. Bestalde, Nekane miresten nuen, zinez, euskara ikasteko berak behiala egindako indar eskergarengatik. Beti esan ohi nion ez nekiela berak adina egiteko gai izango ote nintzatekeen eta uste dut eskertzen zidala oharra. Bere kabuz ikasi zuen hemezortzi urterekin. Lehenik HABEn, eta gero Goierriko herririka batean uda pare bat pasatuz. Eta nik espero nuen, eta sinetsita nengoen, denborarekin hobetu egingo zela bere euskara, nirekiko kontaktuaren eragin automatikoz edo. Baina ez zen halakorik gertatu.

Bere horretan jarraitu zuten Nekaneren hutsak eta akatsek. Eta, are okerragoa zena, beti harri berberekin behaztopatzen zen. Behin eta berriro. Gainera, denborarekin, betiko hutsei

huts berriak gehitzen hasi zitzaizkien, gure arteko harremanaren egonkortzeak ematen bidezion lasaitasunak bere hizketaren autokontrola galarazi izan balio bezala. Fenomeno hau azkartu baino ez zen egin haurrak sortu zirenean. Familia bat osatzen genuen jada, gure ohituratxotan murgilduta bizi ginen, eta bere erlaxatze linguistikoa ikusgarriagoa zen -entzungarriagoa esan beharko nuke- egunetik egunera.

Saiatu nintzen modu diskretuan gauzak bidezuzenera itzultzen. Egunero *Berria* erosten hasi nintzen eta beti uzten nuen begi bistan, sukaldeko mahaian. Are, ausartzen nintzenean -edo egunean zehar huts asko egin zituenetan-, bere gau-mahaitxoaren gainean uzten nion. Sukaldean geundenetan, edo bostok batera Renault Megane familiarrean gindoazelarik ere, beti jartzten nuen Euskadi Irratia, nahiz eta programak ez zitzaizkidan gehiegi gustatzen. Euskal Telebistarekin ere egin nuen ahalegin bat, baina hori gehitxo zen. Nik ere ezin nuen jasan gauero *Goenkale* begiratzea.

Hasiera batean nire buruari jarri nion arauetako bat honakoa zen, zuzenketarik egiten ba-

nion ez zedila beste norbaiten aurrean izan. Bakarrik geundenetan zuzenketa ia sistematikoki egiten nion, ahalik eta doinurik neutroenean, eta kexatzen zitzaidan aldi bakanetan deformazio profesionalaren aitzakiaz desenkusatu ohi nintzen. «Badakizu, idazleok...» formula aldagaitzaren gibelean babesten nintzen. «Uste nuen irakaslea zinela» erantzuten zidan berak, min egin zekidakeenaren jakitun (ez baitidate orain artean ezer argitaratu). Baina horretan geratzen zen dena.

Haurrak sortu zirenean zuzenketak maiztasun berarekin egiten jarraitu nuen, haurrak ez zirela *beste norbait* kontsideratuz. Haatik, seme-alaben aurrean bere hutsen bat azpimarratzen nuen bakoitzean kexua ez ezik narritadura puntu bat ere erakusten hasi zitzaidan Nekane. Antza, axola zitzaion haurrek beraien amaren irudi ideala, perfektua, arraildurarik gabea izan zezaten, niri absurdoa iruditzen bazitzaidan ere halako xede edo pretentsioa. Une txar batean harapatzen bazuen nire zuzenketak, gaztelaniara lerrotu eta purrustadaka hasten zitzaidan, aurretzean hurrekin espainolez hitz egingo zuela,

gogaituta zegoela perpauz bakoitzean hutsak egiteaz, bere ama hizkuntza, finean, ez zela euskara. Haurrek isilik begiratzen ziguten, bereziki gure alaba nagusiak, txikia zorionez gazteegia baitzen gertatzen zena eta bere esanahia ondo ulertzeko.

Euskara erabiltzeari uzteko mehatxua egiten zuenean bukatzen zen eztabaida. Nik ez nuen haratago eraman nahi izaten kontua, ondo ulertzen bainuen zer zen *haratago* hura, eta Nekane ere horretan uzten zuen sesioa, bazekielako armarik gabe utzi ninduela eta ez nintzela berriz ere erasora itzuliko tarte batean.

Dena dela, Nekane ez zen inolaz ere nire kezka linguistikoen iturri bakarra. Alaitz ikastolara joaten hasi zenean, esaterako, etxetik zera-man euskara garbia lardaskatzen hasi zitzaion. Andereñoaren hizkuntza maila ez zen beste mundukoa, konprobatu ahal izan nuenez, baina tira, duina zen. Berrogei urtetik gorakoa zen, ni bezala, hots, irakaslegai ginenok oraindik ere Euskal Filologia euskaltzetasunagatik aukertzen genuen garaikoa. Ez, arazoa beste ikasleengandik zetorren. Gure hirian gutxi ziren etxean

euskara egiten zuten haurrak, eta are gutxiago euskara txukuna jasotzen zutenak gurasoengandik. Halere, nire kezka zertxobait arindu zen ulertzen hasi nintzenean Alaitzen euskararen degradazioa integrazio estrategia kontziente baten ondorio zela egiazki. Hau da, Alaitzen hutsak berriaz egindakoak zirela jabetu nintzen, bere ikasgelako batez besteko hizkuntza mailara egokitzen saiatzen zela nire alaba, kameleonia bailitzan, ez desberdinegia izatearren, txukunegi hitz egiteagatik ez zezaten *freak* bihurtu lagunek. Izan ere, laster asko zuzentzen zituen bere hutsak nire aurrean aurkitzen zen ber, nik ezer esan gabe. Baina goizetan, biok ikastolako ate nagusia elkarri eskua emanda gainditzen genuen bezain laster, bere hutsak berriro agertzen ziren, eta zoriontsu ikusten nuen «nik aitarekin etorri naiz» esaten bere lagun analfabetoei. Zer esango nion gaixoari?...

Nekanerenak, aldiz, gero eta urduriago jartzten ninduen, egiten zituen kalteak errealak eta iraunkorrak begitantzen baitzitzaizkidan, Alaitzengan nahiz txikiarengan. Ama -ez dut ezer berririk esango-, ama da. Eta, bereziki neska txi-

kientzat, eredu nagusia izan ohi da lauzpabost urtera arte, hau da fase edipoar gogaikarria iragan arte gutxienez. Aita ostikada batez leihotik bota ahal balute... Eta noski, aitaren baztertze sistematiko horretan, bada, amarekin identifikatzen dira haurrak, baita arlo linguistikoan ere.

Hasiera batean, Nekane etxean ez zegonean hasi nintzen «amak ez du aitak bezain ondo egiten euskaraz, maiteok» azaltzen txikiei. Nire eredia jarraitu behar zutela gehitzen nuen. Egun batez, ordea, oharkabea, Nekane entzuten ari zela atera zitzaidan esaldia. Kristalezko lorontzia lurrera erortzen entzun genuen ondoko gelan. Hanka sartu nuela ohartu orduko, gehitu nuen «amak aitak baino hobeto egiten ditu beste hainbat gauza, bihotzak, eta beste gauza horietan berari jarraitu behar diozue». Orain atearen koadroan zegoen Nekaneren berunezko begiradagatik jakin nuen ulertu zuela ez zela hurrei hori esaten nien lehen aldia. Ez zen arrats gozogia izan hura, haurrak oheratu ondoren.

Ez dakit zergatik kontatzen ari naizen hau guztia, xehetasunekin gainera. Beharbada justifikatzeko beharra sentitzen dudalako; onesmen

moduko bat nahi nukeelako. Euskararen historia luze eta neketsua zein den ezagutzen duenak ulertu behar du sentipen hau. Ezinegon hau. Gogaitze hau. Gogoratzen ditut nerabezaroan jende ez euskaldunarekin izandako hainbat eztabaida sutsu eta amaiezin borroka armatua justifikatzeko. Gogoratzen dut beranduxeago nola *irekia* bihurtu nintzen, gure intelektual zein idazle modakoenen eraginez. Ordu hartan, eskuzabal onartzen nuen gaztelaniara lerratzea lagunartean ez-euskaldun bat egonez gero, eta gustura aritzen nintzen ni ere ezker abertzalearen aurka purrustadaka, euskaldun moderno, edo postmoderno, edo irekia, edo nik dakita zer izateko gutiziaz. Bada, heltzen da adin bat zeinetan ohartzen zaren gaztaroko malgutze guztiek ez dizutela uste zenuen zoriona erakarri. Konturatzeko zara besteek nahi duten modukoa izan zarela, beraiek jarritako gidoiaren barruan mugitu zarela, txintxo-txintxo. Eta orduan zurruntze fasea dator, ezinbestean.

Nekanerenak, ulertuko denez, fase horretan harrapatu ninduen, bete-betean. Eta ez diot hau neure burua zurruntzeko. Gauza jakina da euskara

hainbat milurteren ostean guregan bizirik iritsi izana benetako miraria dela, mirari hauskorra. Hainbat borroka eta sufrimenduren emaitza da gaurko euskara, hainbat frustrazio, konplexu eta errepresiori aurre eginez hazitako landare zaildua, ederra izatera iritsi gabe halako dotorezia latz bat duena bere anakronikotasunean, bere moztasunean. Eta bihar ere, edozein lehortek, edozein haize boladak, edozein txingorraldik suntsi dezake. Bada, horren kontzientzia berpizten ari zitzaidan, eta nire urte luzeetako kolonizazio intelektualetik libratzen hasia nintzen, zutitzen, Alaitzen urtebetetze askarian «Idurre ez du nahi Coca-Colarik?» esaten entzun nuenean Nekane. Norbaitek interruptore bati nire baitan eragin balio bezalakoia izan zen. Klik.

Ezin niezaiokeen barkatu hura, eta egunero euskararen etorkizun konkretua ziren gure umeen aurrean egiten zituen huts mordoak ere ez. Bat bera ere ezingo nion aurrerantzean onartu. Euskararen arauak ezagutzen zituen, ikasiak zituelako. Bazekien nola funtzionatzen zuen gure ergatiboak. Horren froga da gai zela bere burua zuzentzeko, nire laguntzarik gabe, adi zegoe-



nean, pittin bat kontzentratzen zenean, bere hitzen garrantziaren kontzientzia minimo batekin mintzatzen zenean. Ezin nion gutxiago eskatu. Euskarak ez zuen gutxiago merezi. Euskara den monumentu historiko, zer diot, aurrehistoriko miresgarriak ezin dezake jarrera fribolorik jasan. Iraitzen dutenean ni neu iraindua sentitzen naiz. Ez dakit nola adierazi. Zauri egiten naiz.

Kontua da bost kandela piztuz hornituriko tartaren inguruan zegoen haur talde osoaren aurrean «EZ NEKANE, I-DU-RREK, IDURRE-KKKK, ERGATIBOA, JOPE, IDURREK EZ DU NAHI COCA-COLARIK!» esan niola garrasi batean. Begiak zuloetatik ia irteten zitzaizkiola begiratu zidan, txintik atera gabe, eta hurrei edariak plastikozko edalontzietara isurtzen jarraitu zuen, niri bizkarra emanaz. Kanpora alde egin nuen, paseatzera, ezin bainintzen kontrolatu.

Oso luzea izan zen bere konfiantza berreskuratzea. Ez dut uste, gainera, inoiz erabat berreskuratu nuenik. Familiaren onerako itxurak mantentzeko ahalegin heroikoa izan zen Nekanerena. Haatik, ez zuen gehiegi iraun konponketak.

Tarteka maitasuna egiten genuen. Horretan behintzat modu nahiko errazean moldatzen ginen, paradoxa badirudi ere. Bazen gure artean kimika edo deitzen duten hori. Konpatibilitate bat. Ez dakit nola deitu, baina kontua da zailtasunik gabe berraurkitzen ginela ohean. Maite nuen -maite dut- bere larru zuriegia, izerdiaren lurrin mikatza, ahoaren zapore kargatua, dena. Eta uste dut berak ere gogoko ninduela, izango nindukeela oraindik ere...

Kontua da, gau hartan lasterregi isuri nuela hazia. Ez zen lehenengo aldia hori gertatzen zitzaidana, noski. Baina Nekanek bazekien nire konfiantza sexuala ez hondorarazten. Ez zen ausarta izango sexu kontuetan, baina bai artatsua. Bere pazientzia nahiz hitz egokien laguntzaz, beti lortzen nuen halako atakatik luze gabe irteeta. Aldi hartan, ordea, betiko moduan jokatu bazuen ere, labainketa linguistiko bat izan eta «zure laztanak gozarazi naute dagoeneko» esan zuen, subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura gaizki eginez.

Akatsa segituan zuzentzekotan egon nintzen -lztanEK, ergatibo plurala-, baina, ez dakit zer-

gatik, itsasikara bat bezala gainera zetorkidan narritadura uhinari eutsi eta bere indarra pilatu arte itxaron nuen. Musu kontsolagarriak izan nahi zutenak ematen hasi zitzaidan, lepoan eta bularraldean. Bitartean haserrez kargatzen jarraitu nuen. Harik eta haserre hori nire jabe bihurtu zen arte. Orduan, gerritik oratu, buelta eman, esku biez eta nire pisu guztiaz haren gorputza irmo tinkatu, eta ordura arte inoiz egin ahal izan ez niona egin nion Nekaneri.

Hatsantuta bukatu genuen biok, izerdi patsetan. Izugarria iruditu zitzaidan. Nire buruaz miretsita nengoen, egiteko gai izan nintzenagatik. Eta, ilunpean gertatu zen arren dena, uste dut berak ere gozatu egin zuela. Loak hartu gintuen, hitzik trukatu gabe.

Hurrengo egunean ez nuen horretan baino pentsatu. Zela haurrengatik, zela lanarengatik, ez genuen buruz buru hitz egiteko aukera askorik egunean zehar. Baina afalostean, haurrak oheratu orduko, ohikoan ez bezala, gure gelara sartzen ikusi nuen, telebistari uko eginez. Hamar minutuz sofan erdi-etzan nintzen, pagotxa baliaturik, Champions Leagueko partida bat ikusteko

aukera gutxi izaten bainuen normalean. Oharturik, baina, ez zela itzultzen, haserretua egon zitekeela bururatu zitzaidan. Bezperakoagatik. Ez nintzen errudun sentitzen eta ez nengoen bate-re damututa. Pozaren pozez baizik. Baina damuaren komedia antzeztu behar izango nuela asumiturik neukan, Nekaneren duintasun zauritua babeste aldera. Gure bikotea salbatzearren. Telebista itzali eta gelara hurbildu nintzen, bere umore txarrari aurre egiteko indarrak bildurik, egunak edo asteak iraun zezakeen mutur luzera lehenbailehen ohitzeko asmoz.

Ohe gainean zegoen, alkandora bat soinean baina kulerotan, hanka bat luze eginda eta bestea tolesturik, irakurtzen. Edo itxurak egiten. Gelan sartzen sentitu ninduenean liburua itxi eta bere alboan utzi zuen. Tolesturik zeukan hankako zangosagarra bi eskuen ahurraz ferekatu zuen, depilaketak azala leun utzi ziola egiaztatu nahi bailuen. Orduan itzuli zuen burua niregana. Ez zidan hitzik esan, baina ulertu nuen berak ere ez zuela besterik buruan.

Hurbildu nintzaion, jada gogor. Ohe gainean makurtu eta bere lepoaldea musukatzen hasi

nintzen, bezperakoa errepikatzeko irrikaz. Ordea, buruaz ezetz egin zidan, nigandik urrunduz. Bere eskua nire bularraldean jarriz astiro etzanarazi ninduen, bera ordura arte egondako toki berotuan. Gero, armairura hurbildu eta bertatik hainbat bufanda atera zituen. Ohera itzuli eta esku bat hartu zidan. Ulertu nuen lotu nahi ninduela. Ez nion aurka egin. Zangoak ere lotu zizkidan. Bere menean nengoen. Zoriontsu. Beste Nekane bat zelako begien aurrean neukana. Beste begirada bat zuelako. Hainbeste urte elkarren ondoan eman ondoren jada amestera ausartzen ez nintzen zerbait gertatzen ari zelako.

«Ahora me toca a mí» esan zidan orduan. «Mesedez Nekane» egin nuen protesta, burua burko bigunetik altxatuz, «egidazu nahi duzuna, baina ez espainolez». «Cállate y disfruta» bota zidan. Ez nintzen isildu: «Oso bulgarra sonatzen du horrela». Nire zakilari heldu zion, nahiko zakar. «Ee, kontuz, maitea». Irentsi egin zuen. Begiak itxi eta hasperen egin nuen. Baina gelditu zen: «¿Y esta secuencia no te parece vulgar? Lo puedo dejar, si quieres...». Ez nekien zer eran-

tzun, baina nire begiek erantzungo zioten zeren inoiz ez bezala hasi baitzitzaidan miazkatzen, gozamenez, salokeriaz, bera ere aldi berean masturbatzen zela. Ez nekien masturbatzen zenik. Bere alu iletsuan kementsu zerabilen hatz nagusiaren aktibitateari so geratu nintzen. Begiak ondo irekita. Isilik... Ez dakit zenbat denbora iraun zuen jokoak -luzea izan zen, edonola ere-, baina ez zen nire gainean jarri ezein momentutan. Hau da, ez zen koittoa izan, hitzaren zentzu osoan. Hainbat gauza eginarazi zidan ahoaz eta beste hainbeste egin zizkidan berak, batzuk desatsegin samarrak -bi hatz uzkiean sartu zizkidan, batera (ez nekien posible zenik ere), inoiz halako fantasiarik aipatu ez nion arren-. Egia esan, ez nintzen orgasmora iritsi, tarteka hurbil egon banintzen ere. Deslotu eta berehala, Nekane jada nire ondoan erdi lokarturik zetzala, komunera joan eta masturbatu behar izan nuen, tentsiotik askatzeko, kontuari *bukae-ra* ematearren.

Bi aste izan ziren. Erotzeko modukoak. Koska bat urrutiago gindoazen aldi bakoitzean. Txandaka hartzen genuen fantasiaren giderra. Gehie-

netan *ate txikitik* sartzen nintzaion, hainbat urte-tako frustrazioa arinduz -edo ordainaraziz, akaso. Bere aldetik, Nekane tematzen zen niri ere hatzak edo bestelakoak ipurtzulotik sartze horretan, eta masturbatze hutsaz asetzen zituen bere beharrak. Ez dakit nola esan, gure harremanek konplizitatean galdu zutena, zintzotasunean irabazi zuten. Bai, zintzoak ziren gure harreman horiek, geure desioekiko zintzoak. Eta intentsua-goak, askoz. Ni gizonago sentitzen nintzen, ez hain domestikak. Eta bera, halaber, ziurrenik bere buruaren jabeago. Haatik, gelara sartzen ginen unetik beretik, operazioen gidaritza nirea izan edo berea, espainolez zuzentzen zitzaidan. Beti. Ni euskaraz zuzentzen nintzaion arren, berak espainolez erantzuten zidan. Mingarria zen egoera alde horretatik. Gure arteko zerbait hautsita zegoelako sentrazioa ematen zidan. Baina ordainetan eskaintzen zidanaren deiari ezin nion eutsi.

Ez dut oraindik esan, baina *lehen gauaren* biharamunean ile-apaindegira joan eta orrazkera erabat aldatuta itzuli zen. Hurrengo egunetan jantzi berri asko erosi zuen, merkealdien garaia

ez izan arren, eta, horrek guztiak estilo berria eman zion. Arropa serioa zen, enpresa handietako emakume koadroek erabil dezaketena antzekoa. Nola esan, espainiar telediario bateko aurkezle baten itxura hartzen nion orain, eta nahiko kitzikagarria egiten zitzaidala aitortu behar dut.

Horrela jarraitu genuen -eta jarraituko nukeen-, harik eta hamabost egunen buruan, afalorduan, denok mahaian jarrita geundela, enegarren zuzenketa bat tonu ez aski adeitsuan egin niolakoan, hurrei erdaraz hitz egiten hasi zitzaien arte. Gehiegi niretzat. Dibortziatuko nintzela egin nion mehatxu, behin logelan. «Si es lo que quieres» erantzun zidan, lasai. «Nekane, ezin duzu eraiki dugun guztia horrela leihotik behera bota, egunetik biharamunera». «Eres tú el que quiere marcharse». Haurrak nituen kezka. Dibortziatuz gero Nekanerekin geratuko ziratekeen ziurrenik. Ez zegoen arrazoirik epaileak niri uzteko. Nekane ez zuen inolako hutsik egin, ez zen ezeren errudun. Justiziaren aurrean behintzat. Ez zegoen inon idatzita senar-emazteek hurrei euskaraz egin behar zietenik. Eta hau-



rrek beraiek... amarekin gelditu nahi izango zuten, ni asko maitatugatik. Beste behin ere argudiorik gabe utzi ninduen.

Ondoko egunak tentsio handikoak izan ziren. Egoera berrira moldatzen ahalegindu nintzen. Halabeharrez. Haurrei galdetu nien -bakarkaz- iruditzen zitzaien ama gaztelaniaz aritzea. Ez zioten garrantzi handiegirik eman. Eta okerrena zera zen, naturaltasun osoz pasa zirela hizkuntza batetik bestera. Niri eramanezina zitzaidan Nekane eta hurren arteko *cháchara* hura entzutea. Familia arrotz baten aurrean nengoela iruditzen zitzaidan. Beraien ahotsak desberdinak egiten zitzaizkidan. Desberdinak zirelako, izan ere. Gaizki bikoiztutako telesail bateko pertsonaiak ziruditen. Gaixotu egiten ninduen egoerak.

Alde eginen nuela iragarri nion Nekaneri. «Tu verás» erantzun zidan, dardararik gabe. Neure onetik atera ninduen bere lasaitasun horrek. «Baina... Ez dut ulertzen. Oraindik maite nauzu pixka bat, ala ez!? Azalduidazu, Nekane». «Claro que te quiero, eres el padre de mis hijos. Te elegí». «Mesedez, Nekane, utz dezagun joko ergel bezain nekagarri hau eta hel diezaiogun

berriro gure *betiko* bizitzari». Ez zidan erantzun nahi. «Arren...». Ez zidan erantzun.

Hiru urte eta erdi dira pisua hartu nuela. Hiria-  
ren beste auzo batean bizi naiz, baina ez urrutie-  
gi gure etxetik. Hamar minutu dira autobusez,  
aldaketarik gabe. Soltero bizitzara egokitzea ez  
zait gehiegi kostatu, egia esan. Erosoa baldin  
bada haurrik gabeko bizitza, are erosoagoa  
emazterik gabekoa. Ez dut esan atsegina, ero-  
soa baizik. Ikasle garaiko lagun pare batekin irte-  
ten naiz, gustatzen zaizkidan gauzak egin ditza-  
ket, eta arropa amak lisatzen dit astean behin.  
Apartamentua kaskar samarra da, *gurearekin* al-  
deratuta, eta hori da, beharbada, okerrena. Ale-  
gia, ez didala aukera handirik ematen haurrak  
bertan edukitzeko. LCD telebista handi bat erosi  
dut, niretzat baino gehiago haurrentzat, telebis-  
ta dezenterik gabeko apartamentua ez baita bi-  
zigarria beraiantzat. DVDak ikusteaz aspertzen  
direnean -amak debekatzen dizkien filmak ikus-  
ten uzten diet- kanpora eramaten ditut gehiene-  
tan. Zinemara, txiki-parkera edo merkatalgune-

ra. Egin nuen saioaren bat museora eramateko, baina laster ulertu nuen alferrik ari nintzela, neure teilatuari harrika, alegia. Behin edo beste onartu didate mendira joatea, udaberrian. Beraiiek aukeratzen dute.

Asteburuetan etortzen dira nirera. Hastapeanean triste ikusten nituen beti, eta urduri. Eta horrek ni ere tristatzen eta urduritzen ninduen. Ez naiz haurrekin aurkituz gero lipar batean festa giroa sortzen dakiten horietakoa. Izugarri kostatzen zitzaidan beti lehen uneetako estutasuna -neurea- gainditzea: astez aste errepikatzen nituen galdera zozoak, seme-alaben erantzun lakoniko desesperagarriak... Une horietan irudikatzen nituen amaren inguruan dantzan, alai eta algaratsu, eta zorigaiztokoa sentitzen nintzen. Baina egoera gaindituz joan gara, hila-beteak pasa ahala. Nekanerekikoa baretuz joan den heinean. Hirurok pozik egoten gara elkarrekin. Haur guztiz zoriontsuak direla uste dut, hots, ez dutela hauskortasun berezirik, orbain afektibo nabarmenik. Izan ere, badakite hor gauzkatela biok beraien ondoan, eta beti edukiko gaituztela.

Are, badakite beraien gurasoek elkar maite dutela oraindik ere. Nolabait.

Bestalde, ez dakit nola daitekeen, baina amarekin nirekin baino askozaz ere denbora gehiago pasatu arren, euskara maila zoragarria daukate, biek ala biek. Batzuetan negarra etortzen zait begietara horren ondo hitz egiten entzuten ditudanean. Horrelakoetan, betaurrekoak kendu eta begiak igurzten hasten naiz, hautsa sartu baltzait bezala. Bai, negar egiten dut alabari «dakioke» ateratzen zaionean.

# Beste bizitza

Ez ditu ezerk bereizten oroitzapenak beste uneetatik: geroago bakarrik ezagutzen dira, utzitako orbainengatik.

CHRIS MARKER

Esaten dutenez, bikoteetan elkarrizketa bakarra eta berbera errepikatu egiten da etengabe. Horixe da, menturaz, bikotearen definiziorik zehatzena: elkarrizketa amaigabe eta errepikakor bat. Elkarrizketa hori amaitzearekin edo etetearekin batera amaitzen da bikotea, uzten dio bikote izateari.

Jaionerekin ere, zenbat aldiz ez ote dugu izan elkarrizketa bera neguko eguraldiaz -berak nahiago hotz baina eguzkitsua, nik, berriz, epe-lagoa aukeran, hezea arren. Zenbat aldiz ez ote gara gaizki esaka aritu gure lagun ezker abertzale ortodoxoenaren jarraitzaileei buruz? Zenbat bider ez ote dugu eztabaidatu etxearen garbitasunaren kontua -aldi batetik bestera gure argu-

dioei kakotx bat bera ere aldatzeke-? Edozein zelarik ere gaia, buruz nekien zer esango zidan, eta berak ere nik oraindik ahoskatu ez ezik pentsatzera ere iritsi ez nintzena. Halere, esan egi-ten genituen behin eta berriro. Eta pozten ginen inolako sorpresarik gabe bat gentozelarik. Berdin haserretzen, baita ere, iragarritako desadostasuna agerian geratzen zen unean.

Herenegun goizean Irungo tren geltokian izan genuen haurdunaldiari buruzko eztabaida. Andean geunden, zutik, trenaren zain bezala. Hiru aste generamatzan gure eztabaida bakarra bihurtu dena eduki gabe. Dekoratu egokia zen tren geltokia halako hitzak trukatzeko. Sinbolismoz betea. Abiatzea, gauzak atzean uztea, norabide ezberdinak, hautu existentzialak, inoiz itzuliko ez denaren agurra, denboraren iragankortasuna, fatalitatea tren bihurturik... Idazleok askotan erabili ohi ditugu halako eszenatokiak -tren geltokia, zubia, amildegia, antzokia- gure istorioei sakontasuna eransteko.

Beti bezain ederra zegoen Jaione. Zahartza-roaren iragarle diren zantzuak oraindik heldutasun naro eta dirdaitsuaren ikurtzat jotzen ditugun une iheskor horretan finkaturik. Hamabost urte lehenago ezagutu nuen nerabe lirainari baino askoz ere desiragarriagoa neritzon bihurtu zen emakume egiazkoari.

Malkoek gainezka egin eta minutu batzuetara hasi zitzaidan hizketan, begiak lehortuta baina oraindik gorri. Indarrak bildu behar izan zituen lehen hitzak esateko: «Ez dut hau merezi...». Apur bat mingarria egin zitzaidan bere burua bakarrik aipatu izana eta ez «gu biok». Erantzuteko solas egokirik bururatu ez eta besoaz sorbaldak inguratu nizkion. Burua sorbaldan utzi zidan, ezin eramana bailuen bere pisua. Horrela egon ginen luzaz.

Banekien une hark oraindik pixka batean iraunen zuela eta, ohi nuenez, abagunea baliatu nuen, inguruak begiradaz miatzeko. Gugandik hurbil zegoen. Emakume gazte bat zen, hogeita hamar bat urtekoa. Katakume gosetu bat jertsean sarturik zeraman. Tarteka burutxoa ateratzen zuen, emakumearen lepoaldea eskalada-

tuz, ugatz bila, noraezean. Hitz goxoak esaten zizkion emakumeak, ahapeka, eta erdi laztanka erdi bultzaka jertsearen barrualdera sarrarazten zuen berriro. Bitartean, beste eskuaz liburuari eutsi eta irakurketarekin aurrera jarraitzen zuen.

«Zergatik gertatu behar zait niri hau?» galde-  
tu zidan gero Jaionek. Betiko zimikoa sentitu  
nuen, ondo jakinagatik horixe esango zidala une  
hartan. Ez nengoen gustura erantzutera -edo  
gehitzera- nindoanarekin, edo hori esateko au-  
keratutako unearekin apika, baina esan egin  
nuen beste behin ere: «Jaione, ez zaizu *zuri* ger-  
tatzen ari. Guri gertatzen ari zaigu». Ez zuen  
ondo neurtu esan nuenaren zuzentasuna eta pu-  
rrustada garratza bota zidan. «Hau ez da zure  
gorputzean gertatzen ari. Barkatu, baina ni naiz  
hemendik gutxira beharbada lurpean egongo  
dena». Negarrez jarri ninduen bere zikoizkeriak.  
Ondo nekien zikoizkeria tolesgabea zela berea,  
gaiztakeriarikgabea. Ez zuela hartu, berri izuga-  
rria jaso zuenetik, nire tokian jartzeko astia. Or-  
dura arte inoiz bere aurrean isuri ez nituen ezus-  
teko malkoak ikustean aldatu zitzaion, baina, bi-  
saia. Gogortasuna galdu zuen bere begiradak



eta esango niona entzuteko prest sentitu nuen, berria jaso genuenetik lehenengoz. «Ohartzen zara zer datorkidan gainera, Jaione? Amarik gabeko haurra hezi beharko dut. Eta, okerrena dena, zu gabe bizitzen ikasi beharko dut. Eta ez dakit horretarako gauza izango naizen. Ez dakit nahi dudan ere. Bizitzen jarraitu».

Orain Jaionek eman zien aterpe bere besoe-tan nire negar zotinei, bera baino askoz handiagoa nintzen arren. Hipaka egon nintzen luzaz. Ezpainak hanpaturik sentitzen nituen, eta aho sabaitik zetorkidan malkoen xirripa gaziak ahoa betetzen zidan. Ixoka ari zitzaidan Jaione, amultsu, nire adatsa ferekatuz. Munduan bakarrik ba-geunde bezala. Eta bakarrik geunden, egon.

Emakume katudunari begira geratu nintzen orduan, zeharka, laster Jaioneren besoen beroa lurrunduko zitzaidanaren jakitun. Une horren beldurrez. Une hori ekidinezina zelako ziurtasun etsiaz. Baina baita beste askotan berriro ahal izango nuela jakiteak kontsolaturik. Katakumea berriro kanpoan zuen. Auhenska. Begiak bustiak zituela iruditu zitzaidan gure aldera burua jaso eta, tapatzen genion arren, trenen iritsieren pan-

tailari behakoa eman zionean. Liburua motxilan sartu eta katuari hizketa ezin goxoagoa eginez zutitu zen, andenean zegokion kokalekura hurbiltzen hasteko.

Jaionerekin egin nintzen gizon. Berak egin ninduen gizon. Eta neurri handi batean bera ere nirekin bihurtu zen emakume. Gazteak ginen elkar ezagutu genuenean. Nerabegaroko fletxazoa izan zen gurea. Eta inor gutxik aurreikus zezakeen gure artekoak hainbeste iraungo zuenik, herriko bikote *zaharrena* bihurtzeraino. Esperimentziarik gabeak ginen, ibilbiderik gabeak arlo guztietan. Batxilergoa prestatzen geniharduen garai hartan eta horrek eskaini zigun aspaldikoa -betikoa ia- zen elkar ezagutza sakontzeko parada. Zientzietan ikasle ona zen bera eta ni, berriz, hizkuntzaren erabilerari loturiko gai guztietan. Gure familietatik zetozkigun, jarauntsiz, erraztasun horiek. Eta batak bestea ahula zen arloetan laguntzea erabaki genuen, gure bi koadrilak Donostiako parte zaharrean elkartu ziren gau batean. Laster ohartu ginen une atseginak zirela el-

karrekin igarotzen genituenak. Ez zen, haatik, gure artekoa *gauzatu* azterketak bukatu arte. Selektibitate frogen emaitzen zain geunden, eta, opor luzeenen atari diren egun tentsiogabe haie-tako batean, azkenik, elkarri aitortu genion aitortu gabe ere aspalditik susmatu eta gozatzan hasia ginena.

Nire bizitzako udarik laburrena izan zen hura. Eta hodeirik gabea. Ohartzera Gasteizen nengoan, etxetik urrun lehen aldiz, Historia karrerako lehen eskolak jasotzen. Jaione ere Gasteizera joan zen, Ingurumen ikasketak egitera. Ez genuen, baina, elkarrekin pisurik hartu. Ni lehengusu batekin eta haren bi lagun kirolarirekin batera jarri nintzen bizitzen. Jaione, berriz, hasieran egunero autobusez joan-etorriak egiten hasi zen eta bigarren lauhilekoan hartu zuen pisu bat bere koadrilako neska batekin eta beste hiru bizkaitarrekin. Halere, egunero elkar ikusten genuen. Tarteka gure pisura etortzen zen lo egitera eta ni ere, gutxiagotan, berera joan nintzen. Ondoko urtean, koadrila eta lagunekiko bizitza estiloari agur esan eta bikotean bizitzen hasi

ginen, askoren ustez gazteegiak izan arren. Ez zitzaigun inoiz damutu.

Herenegun arratsaldean berriro izan genuen gure elkarrizketa. Lehen aldia zen hain tarte laburra iragaten zela bi elkarrizketaren artean. Nire baitako idazlea poztu zen. Puztu zen. Oraingoan zinema baten sarrera aretoan geunden. Gela ilunetara bideratu ahala, jendea gutxituz zihoan eta kalaka apalduz. Harik eta zinemako langileak baino gelditu ez ziren arte. Orduan ikusi nuen. Langileetako bat bide zen, gizona bera. Linternatxoa utzia zuen bere ondoan, eserita zegoen bankuan. Lankideak kafea hartu eta zigarroa erretzeko bildu ziren edari makinaren inguruan. Berak, ordea, gomitari beso keinu adeitsu batez uko egin ostean, liburua hartu eta irakurketari berrekin zion.

Han zegoen Jaione, nire aurrean, arestian klinikan isuritako malkoen oroitzaz begiak gorriturik. «Ez dut hau merezi...» atera zitzaion. Beti legez, min egin zidan lehen pertsonaren erabile-ra hark. Sorbaldak inguratu nizkion, ohi nuenez.

Aspaldiko partez, ni ere murgildu nintzen, bera-  
rekin batera, ospitaleko hitzordu madarikatu  
haren hausnarketa mikatzean. Haurdunaldiko  
lehen ekografia egitera hurbilduak ginen hara.  
Ez genekien zehatz-mehatz nolakoak izanen  
ziren deskubrituko genituen irudiak. Ez genekien  
zapaburua edo gizakitxo erabat osatuarekin aur-  
kituko ginen, pantaila bitarteko. Artean guztia  
amets bat zen, lausoa, zoroki nahasia. Eta zo-  
riontsu ginen. Batez ere hori. Haurdunaldiaren-  
gatik paseoa bihurtua zitzaigun goiz-goizeko fo-  
otinga eta, egun oskarbietan Gorbeia aldera be-  
gira jartzen ginen bakoitzean, bizitzak eskain-  
tzen zizkigun aukera zenbatezinak proiektatzen  
genituen zero urdinean. Orain, berriz -ez ginen  
pasealekura itzuli *geroztik*-, zero horren beraren  
huts amaigabea ikusiko genukeen, begiratzuz  
gero. Erantzunik eza. Eza.

«Zergatik gertatu behar zait niri hau?» osa-  
tzea lortu zuen betiko galdera mingarria, burua  
nire sorbaldatik bereiziz. Zinema aretoko ban-  
kuan gizonak orria itzuli zuen, metro batzuetara  
karkaila ozenka ari ziren lankideak entzungo ez  
bailituen. Beirazko burbuila batean bailegoen. Li-

teratura beirazko burbulla gisa. Harro nengoen hitzen indar soilaz sorturiko efektuaz. Baina, berriro ere, zimikoa sentitu nuen bihotzean. Jaioneren hitzengatiko mina gailentzen ari zitzaion, oharkabean, idazle harrotasunari. Erantzun beharra neukan. «Jaione, ez zaizu *zuri* gertatzen ari. Guri gertatzen ari zaigu» ausartu nintzen bere minaren pare zela nirea aldarrikatzen, lotsa ematen bazidan ere esan behar izateak. Leporatzen niona oraindik ulertu nahi ez zuen Jaioneren begitarte zurrunduari begira jarri nintzen, hazpegiak laster eztituko zitzaizkiola jakiteak -nire malkoak loratu eta berehala- ematen zidan abantailaz. Bazetozen. Malkoak. Bazetozkidan. Prest nengoen bere pairamen egoistaren horma definitiboki pitzatu eta oinaze bakarrean batuko gintuen nire tirada botatzeko: «Ohartzen zara zer datorkidan gainera, Jaione? Amarik gabeko haurra hezi beharko dut. Eta, okerrena dena, zu gabe bizitzen ikasi beharko dut. Eta ez dakit horretarako gauza izango naizen. Ez dakit nahi dudan ere. Bizitzen jarraitu».

Ez nuen, baina, esaterik izan. Ez nuen gozaterik izan, aldi hartan, bere besoen beroa. Bere

besoen bero galdua. Hura idaztera bultzatu ninduen beroa, bizirik mantendu nahi izan nuen sua. Bero betirako galdua. Ikusle bat aretora irten eta zinemako langileak liburua bankuan utzi behar izan zuen, proiektio geletako batean irudia lausotu omen zelako. Ez dakit zer gertatuko zen ondoren, baina kontua da gizonak ez ziola irakurketari berrekin. Une batez zutik egon ginen Jaione eta biok, bera oraindik zurrun, eta ni, berriez, begietatik atera nahian neuzkan malkoen esperoan. Eta Jaione ezabatu zen, oraindik haserre, oraindik zurrun. Eta nire malkoek gora egin zuten, desagertzera, pelikula bat atzeraka donean bezala. Apur bat zapuztu ninduen horraino iritsi eta gizonak ez aurrera jarraitzeko *beherra* sentitu izanak. Denborapasa soila zatekeela liburua berarentzat ondorioztatu nuen.

Zer puntutaraino da komunikagarria sentimendu bat? Herenegun goizean tren geltokiko emakumea hunkitzea lortu nuen, alta. Bere aurretik beste hainbeste bezalaxe, azken hamalau urteetan. Edo berez zegoen emakume katuduna egoera animiko sentiberan eta nire hitzak laguntza txikia baino ez ziren izan barruan prest zera-

man sentimendua azaleratu zedin? Misterioa izaten jarraitzen du niretzat prozesu honek guztiak.

Historian lizentziatu eta karreraz aldatzea erabaki nuen, Jaione pixka bat kezkatu zen arren. Euskal Filologian eman nuen izena, zuzenean bigarren urtean, baliokidetzeari esker. Pixkanaka joan nintzen ohartzeko historia aukeratzera bultzatu ninduen *istorioekiko* interesa zela. Historiaren alde narratiboa zen, funtsean, erakartzen ninduen, mundu desagertu bat birsortu eta bertan murgiltzeko ematen zuen aukera. Eta literaturak ere horixe eskaintzen zuen. Bakarrik literaturak aukera gehiago ematen zituela. Ez zegoe-la mugarik narrazio literarioan, norberaren irudimenarena ez bada.

Karrera aldaketarekin galdu nuen urte pare zela medio, Jaione ni baino lehenago hasi zen lanean. Análisi laborategi batean sartu zen eta bere soldata izan genuen diru iturri bakarra hiru urtez. Egia da, ere, tarteka dirutzatxoren bat irabazten nuela idazten hasia nintzen ipuinak sarierara aurkeztuz. Baina ez ziren sarrera ziurrak.



Ezta miresgarriak ere. Edonola ere, ez Jaioneren aldarte kezkatia alaitzeko lain. Filologia karrera amaitutakoan tesi bati ekiteko proposamena egin zidan unibertsitateko saileko zuzendariak, zeregin horretan jarduteko beka bat lortuko zidala aginduz. Jaionek, eskuzabal, beste hiru urtez bere hilabete sariarekin iraun genezakeela esan zidan, nahiz eta ondo nekien haurrak izateko gogoia zuela zegoeneko. Aste batzuez buruan jirabiraka ibili ondoren, proposamenari uko egitea erabaki nuen. Alde batetik, ez nuelako Jaioneren kontura bizitzen jarraitu nahi eta, bestalde, sailburuak iradoki zidan tesi gaia ez zelako nire gustukoa -bigarren mailako irakaskuntzan euskal literatur testuak nola aukeratzen diren ikerrarazi nahi zidan-. Ez nuen soziologiarik egin nahi, literatura zen nire afizioa.

Ameskeriak utzi eta karrera lehenbailehen bukatzeari lotu nintzaion. Urte batera liburuzain gisa hasi nintzen Gasteizen bertan, zortea eta Lakuako izeba funtzionarioa tarteko. Jaioneren lasaituak ni ere lasaitu ninduen eta osatzeko asmoa genuen familiatxoan pentsatzen hasi ginen.

Zetozkigun gastuen aurreikuspenez, aurrezte aldera, udako oporrak etxetik hurbil igarotzea erabaki genuen. Edo zuen. Egia da pena eman zidala New Yorkera joateari uko egiteak. Izan ere, betidanik elkarri egin genion promesa baitzen hura, alegia biok lanean hastean etxe-orratzen hirira joango ginela, Brooklyngo zubiari begira eguzkia sartzen ikusteko. Frustrazioa areagotu zitzaidan ohartzean, hilabeteak joan hilabeteak etorri, ez genuela lortzen Jaione haurdun gera zedin.

Azken aldion askotan egoten naiz Jaionerekin. Eskerrak. Ez nuen uste halako plazera izango zela berarekin horrela elkartzea, behin eta berriro. Ez nuen uste bera gabe igarotako orduak eta, kasurik okerrenetan, egunak edo asteak, hain luzeak egingo zitzaizkidanik. Hain mortuak. Gaur goizean ere elkartu gara. Isiltasuna zen nagusi Jaione ezustean agertu zaidanean. Ordenagailuen zurrunga eta, tarteka, jende gaztea xuxur-laka. Liburutegi unibertsitario bat zen. Baionakoa? Frantsesa zen nagusi solasetan nahiz apa-

letako liburuetan. Badakit euskal filologia ematen dela Baionan, liburuzain gisa harremanik izan baitut inoiz hango liburutegiko arduradunekin.

Malkoak agorturik, Jaione niregana gerturatu da. «Ez dut hau merezi...» aitortu dit, baieztapen eske. Hauskor. Zer erantzun? Idatzita dagoena ezin alda daiteke. Idatzita zegoen, nonbait, gertatzen ari zaiguna. Bere minbizia. Gure minbizia. Nirea ere bai baita, azken beltzean, Jaione delako nire bizitza.

Idatzita dago, halaber, ez dakidala zer erantzun une horretan. Gogo onez inguratu diot sorbalda. Bere buruari berme emateko bezainbat bere gorputz oraindik biziaren ikara nire besoen artean sentitzeko. Luzaz egon gara horrela, ikasle lanpetu isilen artean. Eseritakoek osatzen duten artalde otzanaren erdian zutunik, artzain bikote zauritua.

Han dago irakurlea, liburutegiaren mutur batean, mp3 entzungailuaren laguntzaz bere baitaratuta. Laster identifikatu dut, daukan *euskal gazte* itxurari esker. Liburua esku batez irekita mantendu eta besteaz notak hartzen dihardu.

«Ez dut hau merezi...» esan dit berriro Jaionek. Eta, berriro ere, nigandik pauso batera dago. Ezin dut galarazi betiko urratua nire baitan, lehen pertsonan hitz egiten entzuten dudanean. Eta ezinezkoa zait, era berean, galaraztea nire besoez inguratzeko irrika. Bere oinazearen ontzi bihurtzeko deia. Zatoz hona maitea. Ingu-ratu dut berriro. Esan nahiko nioke berdin zaidala gertatzen ari zaiguna, bere ondoan pairatzea aski zaidala bizitzari zentzua emateko. Baina ez dut esan. Ez dagokit esatea.

«Zergatik gertatu behar zait niri hau?» bota du haserre. Bizitzarekin haserre. Eta, bizitzari zuzendua dagoen galdera dela jakin arren, erantzuteko beharra indartsuegia da. Ez dago ongi halako zerbait une horretan esatea, neurekoi sentiarazten nau, miserableki neurekoi, eta, halere, irten zait, beste behin ere: «Jaione, ez zaizu *zuri* gertatzen ari. Guri gertatzen ari zaigu». Ez du, jakina, segidan ulertu serioski ari natzaiola, ez dela arinkeria bat, ez direla kalkulaturako hitzak, sentituak baizik. Jaionek bizitzarekiko haserrea harrotzeko berme bihurtu ditu nire hitzak. «Hau ez da zure gorputzean gertatzen ari. Bar-

katu, baina ni naiz hemendik gutxira behar bada lurpean egongo dena». Bihotzeko zauritik malkoak darizkit. Orduan bai, orduan ulertu du nire bakardadea ere badela bakardade. «Ohartzen zarez datorkidan gainera, Jaione? Amarik gabeko haurra hezi beharko dut. Eta, okerrena dena, zu gabe bizitzen ikasi beharko dut. Eta ez dakit horretarako gauza izango naizen. Ez dakit nahi dudana ere. Bizitzen jarraitu».

Bere besoarte txikiaren neurrikoa egin naiz, gozoki amiltzen utzi dut neure burua bere urrikalmendu egiazkoan.

«Ez dut hau merezi...» entzun dut, hirugarrenez. Euskaldun itxurako ikasleari begiratu diot. Ulertu dut. Testua lantzen ari da. Aztertzen. Hortik notak hartzearena. Ez dut astirik izan Jaione berriro nire besoez inguratzeko. Ikaslea bere tokitik altxa eta, ipuin liburua mahai gainean utzirik, zerbaiten bila joan da apaletara. Laster bueltan da. Liburu potolo bat dakar besapean. *Euskal literaturako autoreen hiztegia*-ren azal urdin iluna ezagutu dut. Niri buruzko erreseina bio-bibliografikoa irakurtzeko asmoa bide du. Jaione nire aurrean daukat bitartean, geldirik, begiak

beti bezain gorri. Eta halere eder. Inoiz baino ederrago.

Hau ere gertatu behar zitzaigun noizbait.

**Gauza** asko saiatu genuen. Ez da gozoa betebeharrez *egitea*, presiopean, antzutasuna bietako norengan ote dagoen, nor bere buruari galdezka. Hustuta amaitzen nuen, hitz jokorik gabe. Arraildura erraldoi batetik ihesi bezala, energia bitala bazihoakidan zurrustaka oheratzen ginen bakoitzean. Jaionek ginekologoarengandik jasotako aholkuak aplikatu genituen, baita neronek interneten aurkitutakoak. Obulazio datak zaindu genituen, dutxa hotzak hartu nituen eta galtza estuak baztertu. Posturekin ere ibili ginen, erridikulua egiteari beldurra galduta, desesperazioaren poderioz. Ez zen tragikoa. Aspergarria zen. Eta hori da okerrena.

Arazoan ez pentsatzen saiatzea izan zen aplikatu genuen hurrengo aholkua. Inoiz eman didaten aholkurik ergelena.

Urtebete pasa zen. Eta beste bat. Bi urte. Bi urte luze. Hogeita lau hilabete. Zazpiehun eta

hogeita hamar egun Jaioneren aurpegian eguna sortzen ikusi gabe. Urtzen ninduen irribarre hura ikusi gabe.

Adopzioa aipatzera ausartu nintzen, egun batez. Danbateko batez itxi zuen bazkaltzen ari ginen sukaldeko atea, eta kanpora irten zen. Ez zen itzuli arratsalde osoan. Eta, sartutakoan ere, ez zidan hitzik egin lo egiteko argia itzali eta nire besoetan kiribildu arte.

Hortik denbora batera bera etorri zitzaidan, herabe, *in vitro* ernalkuntzaz biltzen ibili zen dokumentazioa eskuartean zuela. «Ginekologoarekin hitz egin dut» esan zidan, dokumentazioa sukaldeko mahai gainean pausatzearekin batera. «Maitea, ez gaude bukatuta. Bizitza luzea da» esan nion, niregana erakartzen nuen bitartean. Bere irribarrearen hiru laurdenak ikusi nituen, aspaldiko partez. Bizipoza itzuli zen gurera, partez. Berriro ere etorkizunaz mintza gintezkeen.

Lehen saioak huts egin zuen. Ondo errodatu-riko protokoloari jarraiki, medikuek bazekiten etsipenari ez zitzaiola zirriturik utzi behar eta bigarrena ere programatu ziguten klinikan, lehen-dabizikoaren porrota iragartzearekin batera.

Udaberriaren atarian geunden eta «Hasi maletak prestatzen, bihotza, etzi New Yorkera goaz» esanez azaldu zitzaidan eguerdi batez, bigarren saiakeraren bezperan. «Ez duzu uste arriskutsua dela? Ez al digute esan lasai egotea komeni dela, aste pare bat edo, uteroan finkatzeko aukerak izan ditzan?» erasi nuen. «Ez dut jarraitu nahi. Biharkora ez naiz joango. Honek guztiak ez dauka zentzurik». Ez nuen azalpen askoz gehiagorik lortu Jaionerengandik. Halakoa zen bera. Zerbait bere baitaren baitan erabakitzen zue-  
nean argudioak soberan zeuden. Ez tematzea deliberatu nuen, Jaioneren minberatasuna babeste aldera. Nahiz eta, lehenengo aldiz -aitor dezadan- orain ziurtasunez izango ez genuen umearen gabezia nabaritu nuen. Zerbaiten eskasean biziko ginen aurrerantzean. Existitzera iritsi ez zen zerbait gabeko bizitza izango zen gurea. Nahiz eta ordura arte zerbait hori gabe ederki bizi izan ginen urtetan.

Zoragarria izan zen New Yorkeko egonaldia. Gure aldi zoriontsuenetakoa. Toki aldaketak, Ozeano Atlantikoa tartean jarri izanak, onura handia ekarri zigun. Arin sentitu ginen, azken ur-



teen zama gagnetik kenduta. Zuhurtziak manatzen zuena baino aise gehiago gastatu genuen, jatetxe, museo eta ikuskizunetan. Beharbada aurrezten jarraitzeko arrazoi sendo bakarra galdu genuelako. Brooklyngo zubitik hurbil aurkitu genuen esertzeko banku bat, baina hango zarata ez zegoen jasaterik eta ez genuen eguzki sartzerik ikusi. Hori izan zen zapuzte bakarra.

Handik hiru astera, Gasteizera itzulita, jakin genuen Jaione haurdun zegoela. Laguntzarik gabe, medikuntzaren bitartekaritzarik gabe, lortu genuen. New Yorken *egindako* haurra izango zen gurea. Ez dago deskribatzerik Jaioneren edertzea. Larrua gristu zitzaion, haurdun dauden emakume guztiei bezala, goragalea eta bestelakoak ere nozitu zituen, eta laster hasi zen gramoak pilatzen. Ez dut inoiz hain eder ikusi. Emakume batzuk nabarmen itsusten baditu, Jaioneri, berriz, haurdunaldiak betidanik falta zitzaiona eman zion. Haren lagun emakumezkoek betidanik miresten zioten mehertasunetik atera eta, nerabezaroan geldituriko prozesu bat berriro abian jarri balitz bezala, gorputza osatu egin zi-

tzaion. Benetako Jaione neukan nire aurrean, ezagutzen nuenetik aurrenekoz.

Aldi berean, kurioski, ni ere gizontzen -edo gizontzen, nahiago bada-, hasi nintzen. Nire gustuak supituki aldatu egin ziren. Beti gustuko izan nituen musika ilunegiak baztertu eta Mozart entzuteari eman nintzaion, gorputzak eskatzen zidalako, edo, ausaz, haurren burmuinen garapenerako konpositore ona zela aditua neukalako. Etxe osoa sinfonia, sonatina eta divertimentoz betetzen nuen, goiz eta arrats. Zinema kontuetan ere, thrillerretara hain emana naizen hau komedia erromantikoetara lerratu nintzen egunetik biharamunera. Nirea ere haurdunaldia zen, du-darik gabe.

Ez genuen ulertu, hasieran, ginekologoak esan ziguna. Ez gentozen kontsulta batera, lehen ekografia egitera baizik. Bere aurpegi ko-petiluna argitzen ez zela konturatzean hasi ginen bere hitzetan arreta jartzen. Bulegotik altxatzen ez zela ikusirik, jarri egin ginen. «Ekografia egin aurretik jakinaren gainean ezarri behar zaituztet. Gero posible izango zaizue, benetan nahi baduzue, gaur bertan ekografia egitea. Bes-

tela, beste egun baterako utziko dugu. Edozein kasutan, erabakia beti zuena izango da». Azalpe-nezko hamar minutu luze pasa ziren, minbiziaz ari zela jabetzerako. Guk esanarazi genion hitza, azkenean, mila modu ezagutzen bide baitzuen berak hitz madarikatua saihesteko, horretaz bakarrik mintzatuagatik.

**Non** gaude orain? Ilunpe ia erabatekoan. «Ez dut hau merezi...». Ez dut ondo ikusten Jaione. Bere ahotsa garbi entzuten dut, betiko distantzian baitago, nigandik pauso batzuetara. Bada- kit betiko begi gorrituak dakartzala. Ginekologo- arenetik itzuli garenez gero negarrez aritu dela- ko, etenik gabe, gure logelatik ateratzeko. Hau ere gela bat da. Nerabe gela bat, zailtasunik gabe igarri daitekeenez, begiak ilunpera ohituz doazen heinean. Neska batena, agidanez. Pare- tak argazkiz, afixaz eta bestelakoz estalita daude. Ordenagailua leiho aldean. Pelutxe zen- bait apalen gainaldetik ezohiko bisitari senti- mentaloi kirika. Estalkien azpian gordeta dagoke neska, linternatxoaz irakurtzen ari, malda laran-

jekiko sumendia baitirudi oheak. Jaioneren sorbaldak inguratzen ditut. Atsegina da *gure* elkarriketa ilunpean bizitzea. Lehenengo aldia da. Hori da idatzitakoaren magia. Beti da desberdina, berdina izan arren.

Etxean ez bide daude denak lo. Sukaldetik datozkeen hotsak entzuten ditut. Neskaren ama edo, sukaldeko gauzak biltzen. Kanpaiak hurbileko elizatik, *gure* etxean bezala. Jaionek ez ditu entzuten, noski. Oraindik burua nire sorbaldan utzita dauka, min egingo didan bere hurrengo esaldia bere burmuinetan oraindik ernatzeke. Gaueko hamaikak dira, zenbatu ahal izan dudanez. Neska posturaz aldatu da sumendiaren barruan. Ez da, ez, irakurtzeko egoerarik erosoena berea.

«Zergatik gertatu behar zait niri hau?» oldartu da Jaione, nire ardurapean utzita zeukan buruaren jabetza berreskuratuz, pasarte horri dagokionez. Ez maitea, ez iezadazu horrelakorik esan. Min egiten didazu. Kanpoan sentiarazten nauzu. Bikote ez bagina lez; inoiz benetan izan ez bagina bezala. Eta nire protesta ulertuko ez duela dakidan arren, azken purrustada garratza

botako didala jakinagatik, agertu egiten diot nire kexua, egiazkoa den kexua: «Jaione, ez zaizu *zuri* gertatzen ari. Guri gertatzen ari zaigu». Purrustadaren zain geratu naiz, nola itsasertzeko gotorlekua galernaren fereka latzaren. Baina ez dator. Sumendia itzali da bat-batean. Ilunpea erabatekoa da orain. Gelako atea erdizka irekitzean pasilloko argi gordinak sabaia hiru bandadun bandera bihurtu du, zuria bi beltzen artean. Ama bide da, alaba lo dagoen egiaztatu nahian. Itxi da atea. Hogei segundo pasa dira batere harabotsik gabe. Ama atearen gibeletik mugitzeke. Alaba ohartua. Azkenean, amaren pausoak pasilloan urrunduz. Sumendia berpiztu da, laba goria kanporatzeko prest. Jaioneren purrustada.

«Hau ez da zure gorputzean gertatzen ari. Barkatu, baina ni naiz hemendik gutxira beharbada lurpean egongo dena». Labaz ez baina malkoz egin dut nik gainezka, hain naute astindu bere hitz gogorrek. Ia ilunpean gauden arren, Jaionek egun-argiz bezain garbi ikusten ditu nire malkoak, zotinak. Nire hautsia. Ulertu du bere alde nagoela, bere aldean nagoela, berarekin batera itoko naizela gure ontzia urperatzean.

Nire hitzak entzun eta onartzeko prest dagoela sumatzen dut. «Ohartzen zara zer datorkidan gainera, Jaione? Amarik gabeko haurra hezi beharko dut. Eta, okerrena dena, zu gabe bizitzen ikasi beharko dut. Eta ez dakit horretarako gauza izango naizen. Ez dakit nahi dudan ere. Bizitzen jarraitu».

Zure besoak nahi ditut orain, Jaione. Utzidazu zure besoetan mugagabe negar egiten. Bizi dezagun berriro, betiereko berriroan, gure azken une gozoa. Agurraren aurrekoa. Heriotzaren preludea.

«Ohartzen zara zer datorkidan gainera, Jaione? Amarik gabeko haurra hezi beharko dut. Eta, okerrena dena, zu gabe bizitzen ikasi beharko dut. Eta ez dakit horretarako gauza izango naizen. Ez dakit nahi dudan ere. Bizitzen jarraitu».

Neskak pasartea berrirakurri du. Gustatzen zaio. Edo hobeto ulertu nahi du ihes egin dion xehetasun bat.

Estalkipetik atera da. Linterna itzali du. Une labur batez ikusi ahal izan dut neska, fragmentaturik, linternaren argitan.

Oraindik hemen gaude, Jaione eta biok. Nire negarraldiak ez du amaierarik. Nik orain hama-lau urte idatziriko ipuin liburua ez bide du itxi neskak. Irekita utziko zuen ohe barruan. Bestela ez geundeke oraindik hemen, ni nire negarra infinituraino luzatuz eta Jaione malko ontzi bihurturik.

Zertan ari da neska? Geldirik dago. Gela ilunaren erdian zutik. Zalantzati? Ohera itzultzeko keinua egiten du baina -kank!- metalezko objektu bat lurrera bota du nahi gabe. Arkatzontzi bat da. Ohean brau sartu eta hilarena dagi, ama laster agertuko dela jakitun.

Atea ireki du ama datekeenak. Gelako argia piztu du. Nire malkoen artetik ez da erraza gauzak garbi ikustea. Lausoturik dauzkat begiak eta, gainera, erdi etzanik nago Jaioneren altzoan.

- Ane, mesedez. Badakizu ez direla orduak. Bihar neka-neka eginda joango zara ikastetxera.

Neskak ez du erantzuten. Lotsarengatik eta, agian, oraindik espero duelako amak irentsiko duela bere loarena.

- Zertan ari zinen? Interneten?

Neskak onartu du porrota eta amari aurpegia eskaini dio orain.

- Minbizia izan zenuen, ama?

- Zer?...

Amari ahotsa eztarrian kateatu zaio. Pasilloko argia dela medio, itzalargitan baino ez daku-sat.

Estalkien azpitik liburua atera du neskak. Nire ipuin liburua.

- Zuen istorioa da, ezta? -galdetu dio amari. Jaioneri.

Beraz, bizirik dagoen Jaioneri. Sendatzea lortu bide duten Jaioneri.

Malkoengatiko lausoak ez dit ondo ikusten uzten nire alabaren aurpegia. Banuenik ere ez nekien alabarena. Ane deitzen den alabarena. Ezta Jaionerena ere. Berrogeita bost bat urte izango dituen beste Jaione honena. Nire betiko Jaioneren altzotik garbiro ikus ez dezakedan



gaurko Jaione honena. Nirea ez den Jaione hau. Ezin izan daitekeena.

- Noiz idatzi zuen hau aitak?
- Haurdunaldia ez etetea erabaki eta gutxira.
- Bera istripuz hil aurreko egunetan.
- Hori da.
- Zutaz oroi nendin idatzi zuen, bera eta biok zu gabe bizi beharko genuelakoan.
- Bai.

Jaione lausoa Anerengana hurbildu eta besarkatu egin du. Negar zotin bat entzun dut. Hasperen bat gero. Ez dakit bietako norenak diren. Uki nitzake, biak ala biak, besoa luzatuz. Mundu honetako gauzak ukitzeko ahalmena banu. Ane liburua ixten ikusten dut. Agur maiteak. Doi-doi damutzeko astia daukat, nire testua malko gehiegiz hornitu izanaz. Bestelakoan perfektua da.

Parke bat. Alderdi Ederreko tamarindoak eza-gutu ditut. Haurrak txingo eta txirristetan jolasean. Banku batean gizon bat irakurtzen. Bada-

tor betiko Jaione, begiak gorri-gorri. «Ez dut hau merezi...».

# Urrezko vespa

I flew on the wings of a butterfly  
Through a dream of such beauty,  
That my soul called out in a cry,  
«How can such joy truly be?  
How can these little wings still fly  
Me on my long journey to eternity?»

THOMAS WATSON

Erromako Fontana di Treviren ertzean bermaturik nengoen, Clararekin besarkatuta. Udaberriko arrats epel ezin gozoagoa zen, Italiak baino oparitu ez dezakeen horietakoa. Iturri gaineko etxeen hormak larrosturik zeuzkaten eki errainu agonikoek. Ezagutzen ez nion soineko arin batez beztiturik zegoen Clara, eta maiteminaren begirada bota zidan, hura ere ezezaguna. «Egin dezagun orain» xuxurlatu zidan. Plazer ikara hedatzen sentitu nuen bere hatsak ferekatu zidan berlarri aldetik bizkar guztira. Osorik urrezkoa zen vespa batean esertzera gonbidatu ninduen, eta hurrengo istantean Panteoiaren barruan genbil-

tzan, kupula zoragarriaren marmolezko zoruan bira eta bira, ni bere gerrialde malguari helduta, bera zorionezko irri gero eta ozenagoak barreiatzen. «Une hauxe bizi nahi nuke, behin eta berriro» esan nion, baina vesparen abiada azkartuz zihoan eta ondokoa erantzun zidan: «Ez dago betierekoa den ezer»... Ondoko unean «Har nazazu, mesedez» erregutzen ari zitzaidan, ia auhenka, hotel bateko ohe zabalaren maindire zurien artean erdi gordeta. Clararen zango luzeei oratu, niregana erakarri, eta bere alu bustian murgildu nuen zakila, zorionaren itsasoa bailitzan, eta orduantxe... esnatu egin ninduen nire ondoan bidaiatzen ari zen gizon gorbatadun lodikote batek nahigabe galtzetara isuri zidan ur basokada izoztuak.

Londrestik etxera nindekarren hegaldian izan nuen amets hura, Penguin Books nire eleberri guztiak sakelako formatuan argitaratzen hasi berritan. Nahasi ninduen, zeharo. Urteak neramatzan Clara ahantzita. Claraz oroitzea edo ahaztea izan zen, urte luzeetan, nire animoaren barometro zehatza. Oso ondo nengoen bolada bakanetan baino ez nuen lortzen hura erabat

ahaztea. Eta gauzak izugarri ondo joan behar zitzazkidan *oso ondo* sentitu ahal izateko. Ez dut esango zoriontsu. *Oso ondo* erabiliko dut, zintzotzagoa iruditzen zait. Ez bainaiz inoiz berriro zoriontsu izan Clarak errukizko begirada amultsu batez estimatzen ninduela baina nitaz inoiz maiteminduta egon ez zela aitortu zidan egunaz geroztik.

Horrexegatik nahasi ninduen ametsak. Bolarik oso ona zelako niretzat hura. Ezin hobea. Historikoa euskal idazle batentzat, hedabide guztiek luze eta naro komentatu zuten. Penguinekin argitaratzea munduko edozein idazlerentzat arrakasta unibertsalaren sinonimo da. Literaturaren panteoian sartzen zaitu.

Freud-en *Die Traumdeutung* aspaldi irakurria naiz eta nire ametsak behin baino gehiagotan interpretatu izan ditut, zorte gorabeheratsuekin. Emaztearekin Erromara egindako ezkon-bidaia-oren oroitzapen adabakiz osaturik zegoen, nagusiki, egin berri nuena. Diferentzia zen emaztearen tokia Clarak hartzen zuela ametsean. Desko- detzeko ez nuen zailtasun handirik izan oraingoan. Bazitekeen literaturaren panteoian bizirik

sartu izana, baina nire inkontzienteak zera esan nahi izan zidan ametsaren bitartez, benetako lorpena, zoriontsu egingo nindukeena, ez zela hori. Panteoia, bere edertasunak itsutzen baninduen ere, hilobi bat zen. Nire bizitza ustez arrakastatsua porrot galanta zen benetako maitasunik ezean. Clara ezean.

Orain etxean nago. Alboan daukat emaztea, lo. Eta nik ordu parean daramat begiak irekita. Clara burutik kendu ezinik.

Clarak erakutsi zidan desira eta ezinaren arteko muga. Edo behintzat hala ulertu nuen berekin gertatutakoa. Ezinezkoa zitzaidan nahi nuen oro eskuratzea. Evidentea dirudi, baina ez da hala. Batzuek oso goiz ulertzen dute ezingo dituztela zenbait gauza -edo gauza asko, tamalez- inoiz eskuratu. Ni hemezortzi urte betetzean jabetu nintzen egia xume horretaz. Eta Clara izan zen nire irakasle gupidagabea. Lehen aldiz ikusi orduko jakin nuen ez nuela ezagutuko bere mailara iritsiko zen emakumerik. Eta ez nintzen erratu. Izan dut nire maitasun errazioa, ez beste

batena baino eskasagoa, baina ez du lortu emakume bakar batek Clarak nire baitan eragindakoren oihartzun apala izatea. Eta badakit, inolako zalantzarik gabe, Clarak osoki zoriontsu egingo ninduela. Onartu banindu.

Alabaina, nirea ez da nerabegaroko *maitasun ezinezkoaren* topikoaren adibide bat gehiago. Ez. Badakit AUKERA galdu egin nuela. Bizitzan behin bakarrik izaten den hori. Ez da egia milaka jende dagoela munduan zeinarekin maitemindu eta zoriontsu bizi zaitezkeen. Zorte asko dutenek bizpahiru aldiz maita dezakete *benetan* laurogei urteko bizitza batean. Gehienek behin bakarrik. Zenbaitek inoiz ez. Eta okerrena zera da: liluragarria izan arren, ez dela aski maitatzea. Maitatua ere izan behar zara, lilura ez dadin oinaze bilakatu. Eta bigarren zorte horixe da niri Clararekin huts egin zidana. Kosta zitzaidan, baina, hori ulertzea. Hain nengoen harriturik maitasunak nire baitan eragindako lurrikaraz, non ez nuen ulertzen halako sentimendu bortitza eragiten zidan pertsona batek nola ez zezakeen sentitu une berean nirekiko gauza berbera.

Ez dakit non dagoen. Zein hiritan. Zein herrialdean. Ezkonduta dagoenez. Haurrik daukanez. Antzezle izateko bere ametsa bete duen. Bizirik dagoen ere.

Pena ematen dit nire emazteak. Badakit itsusia dela hori esatea. Baina ez da sentimendu ahalkegarria, ez beretzat, ezta niretzat ere. Maite dut nire emaztea. Adiskidea maita daitekeen eran. Eta ez da gutxi. Lagun onak gara. Pena ematen didana ez da adiskide bat bezala maite dudala. Pena ematen didana da berak nik Clara bezala maite nauela. Hori da triste jartzen nauena. Clararekin inoiz ibili ez naizen arren, bere *alarguna* naiz, berarekiko maitasun hilaurtuaren alarguna. Edo ez. Izan nadin zehatzagoa. Benetan pena ematen didana da nire emazteak badakiela, beti sumatu izan duela -ez baita intuizio gutxikoa-, alargun batekin ezkondu zela. Ez diot inoiz aipatu Clararen izenik. Dotorezia hori behintzat izan dut, eta hertsiki lotu natzaio sekretua zaintzeari. Eta ez dut uste beste inorengandik inoiz haren



berri izan duenik. Baina badaki bere baitan, ziur nago, gu bion artean mamu bat dabilela betidanik, malenkonia arrasto ezabaezin hori utzi didana begien hondoan. Halere, beti ahalegindu naiz alaia izaten gure elkarbizitzan. Alaia izaten bikoite soil ginelarik. Alaia izaten haurrak izan ditugunetik.

Ondo portatu naizela uste dut. Ezin izan dut maitatu berak maitatu eta oraindik ere maite nauen eran. Baina beti izan dut eskaintzen zidan maitasunaren balioaren kontzientzia erabatekoa. Eta, ahal nuen neurrian, beti ahalegindu naiz merezi zuen erantzuna ematen: adiskidantza, leialtasuna, presentzia, laguntza. Ez dut beraz emaztearekiko kexurik. Ez diot inoiz ezertxo ere leporatuko. Nire bizitzaren porrota, esaterako. Hegazkinean izandako ametsak begien aurrean ezarri didan porrota. Aitzitik. Emazteari esker ona baino ez diot zor. Errotik eta irtenbiderik gabe huts egindako bizitza hau eramangarria bihurtu didalako esker ona. Besterik ez.

Aldiz, bizitzari bai. Bizitzari erantzuki bakar bezain larria -larriegia- zuzenduko nioke. Clara

nirekiko sorgor egin izana. Eta nekez barkatu ahal izango dut eragindako kaltea.

**Kuriosoa** da zer-nolako lerroak idazten ari naitzen. Berrirakurriz ohartzeko naiz ez dudala, hau idazten hasi aurretik, sekula idatzi eduki autobiografikodun testurik. Gertatu izan zait, noski, oso gauza intimoak etzatea paper gainean, baina, betiere, fikzioaren atzean ezkutaturik, eta beste askotan guztiz oharkabea. Emazteak, aldiz, autofikzioa deritzana modan jarri aurretik praktikatzen zuen, eta behin baino gehiagotan azaldu naiz, nire izen eta guzti, edo doi-doi kamufaturik, bere testuetan. Beti gustatu izan zait nitaz idazten ari denean botatzen didan begirada kokina. Goizero idazten dugu, bederatzietatik gehienez ere ordu bietara. Buruz buru jartzen gara liburutegi-egongela zabalaren leiho aldean, nor bere ordenagailuaren aurrean, te berdez beteriko potea lagun. Ez dugu goizero inspirazio maila bera, baina lanbide honetan -lanbidea baita, hau ere, partez- pazientzia eta egoskortasuna dira dohainik baliotsuenak. Bazkalordua

iristen denean, ordea, literaturaz ahaztu egiten gara. Erabat. Bizi beharra baitago. Eta haurrek behar baikaituzte.

Uste dut emaztea eta biok literaturzaletasun konpartituaren gainean eraiki dugula bikote bizitza. Ez naiz maitasunaz ari. Lehenago aipatu dut hori. Bikote bizitzaz ari naiz. Ni ez nintzen oraindik idazle emaztea ezagutu nuenean. Bera bai. Eta berak bultzatu ez banindu ez nintzatekeen, ziurrenik, inoiz idazten hasiko. Animatu egin ninduen, nigan neukana aurrementurik, edo maitasunak itsutzen zuelako, ez dakit. Beharbada, baita ere, Trantsizio giro hartan, zilegitasun gehiago ikusten zion euskaraz idazteari, eta bera ez zenez gai, bada, neuregan proiektatu zuen bere libido literarioa. Kontua da idazten hasi eta nire lehen liburuarekin -ipuin liburu bat- jo egin nuela itua. Erdi-erdian. Sariak, berrargitarapenak, itzulpenak, mediatizazioa... horiek oro ia borrokatu gabe eskuratu nituen. Emazteak ez zuen halako zortetik izan. Ez du inoiz izan, egia esan. Apika gaztelaniaz idazten duelako. Lortu du urteotan zenbait testu kokatzea, aldizkarietan batez ere, eta liburu bi ere plazaratu ditu, bata

Madrilgo argitaletxe abangoardista batean, baina ez da berea benetako karrera izan. Jarraitzen du idazten, eta idazletzat daukat nik, berak bere burua bezalaxe, baina, bizi, itzulpengintza literariotik bizi da. Azken boladan, nire liburuak gazteleratzetik, besteak beste. Beti harritu nau nola onartu duen egoera. Nola uneoro gaintitzen dakien frustragarria izan behar duen egoera hori. Dituen argitasun literarioa eta ahalmenak ezaguturik, logikoena litzatekeelako nik baino izen handiagoa izatea berak.

Egia da, bestalde, ez zaiola inoiz liburu boro-bilik atera, asko saiatuagatik, gai ezin originalagoak aurkitu arren, bere idazkera gutxi bezala menderaturik ere. Ez dauka azalpen errazik kontuak, baina liburu gezak irteten zaizkio. Ez diot inoiz halakorik aitortu. Ezta beharrik ere, bera baita horretaz ohartzen lehena.

Niri, berriz, ez dakit nolako sorginkeria dela medio, orain arte beti atera zaizkit liburu onak. Apaltasun faltsua bazter dezagun: benetan, liburu onak idatzi ditut. Ikusi besterik ez dago nola funtzionatu duten beti. Salbuespenik gabe. Horrela da. Batzuk Musen kuttunak izateko jaioak

bide gara. Barka bekite estereotipoa, baina ez dut esplikazio hoberik aurkitzen.

Clararen bila hasi naiz. Googlen tekleatu dut bere izena goiz batez, emaztea bere ordenagailu aurretik altxatu eta sukaldera joan denean, te berde gehiago egitera. Tamalez, Clararen izen-abizenak dituzten emakume asko daude munduan, konprobatu ahal izan dudanez. Homonimo horien argazkiak begiztatu ditut, irudiak bakarrik selekzionatuz bilatzailean. Ez dut *nire* Clara ikusi, izugarri aldatu ez bada behintzat. Emaztea itzuli da sukaldetik eta nabigatzailea itxi behar izan dut, seigarren argazki orriarekin ari nintzelarik.

Gau batez, emaztea kanpoan zela baliatuz, berriro ekin diot bilaketari, haurrak oheratu ostean. Ordenagailua piztu eta Telefonicaren orrialde zurietara jo dut zuzenean. Ez dago Clararen arrastorik gure eskualdean. Eta ezin has ninteke Estatuko probintzia guztiak banan-banan arakatzen eta deiak egiten bertan azaltzen den Clara nirea ote den egiaztatzeko. Bes-

teak beste, telefono fakturretan dei horiek zerrendaturik agertuko liratekeelako; eta emaztea ez da ergela.

Clararen arrastoa aurkitzeko modu bakarra dakusat. Oraindik ere hemen nonbait bizi omen den bere lagun onenarengana jotzea. Vanessa deitzen da eta izan genuen garai batean hartu emanik. Batez ere Clararen inguruan ibiltzen nintzenean. Bere inguruan ibil nendin oraindik atsegin zitzaionean. Ez da baina ekimen eroso. Nola taxutu aitzakia sinesgarri bat Vanessaren aurrea azaltzeko? Clararen berririk duen galdetzen badiot nekez gorde ahal izango dut nire bisitaren zio egiazkoa. Eta lotsaren putzua ozeano bihurtuko zait. Izan ere, Vanessa izan baitzen nire *baztertzearen* lekuko nagusia. Vanessa herabea. Clararen lagun leial bezain isila. Vanessak ondo asko daki txoratuta ibili nintzena Claraz. *Hilik* geratu nintzela ezetza eman zidanean. Larunbat gaua zen. Alokaturiko VHS bat ikusten ari ginen hirurok, Clararen gelako ohe gainean. *Ghost*, Patrick Swayze-rekin. Eta, halakoetan ohi zuenez, Clarak nire magalean pausatua zuen burua, hankak ohearen beste muturrean -Vanessaren izte-

rren ganean- zeuzkan bitartean. Niretzat postura deserosoa izan arren, ez baineukan bizkarra bermatzeko paretarik, orduak iraungo nituzkeen horrela, mugitzeke, alderantziz ikusten nuen bere aurpegiari begira. Telebistaren halo urdinkara dardaratiak sortzen zuen ilunantz abegikorrean, tarteka, nire eskua hartu eta bere ile luzeetan sartzen zidan, usaindu egiten zidan, lotarako zapi kuttuna bailuen. Hilabeteak generamatzan horrela, intimitate maila horretan. Eta ezin nuen gehiago. Etxera itzuli eta nire ohe hotzean sartzen nintzenean, aitaren aurpegi luzearen langa gainditu ondoren berandu nentorrelako, bada, azalaren poro guztietatik Clara zeridan. Aitortu behar nion maite nuela, ezin nuen gehiago luzatzen utzi sufrikario ezti hura. Horregatik, gau hartan, Vanessa ondoan genuela ahantzirik, beste behin ere eskua hartu eta bere ileetara eramanean, beherantz makurtu eta musu bat ematen saiatu nintzen. Ukatu egin zidan. Burua nire magaletik kendu, Vanessaren aldera bildu eta «Ez dut ulertzen, adiskidetzat zintudan» esan nahi zuen begiratu erdi harritu erdi errukitsua bota zidan. Han bertan hil nahiko nu-

keen, tximista batek jota, edo telebistaren pantailak irentsita.

Aldi berean, guztiz artifiziala eta, are, groteskoa litzateke nire bisitaren benetako arrazoia gordetzen ibiltzea. Ez daukagu, Claraz kanpo, inolako loturarik Vanessak eta biok. Modu zentzudun bakarra, hortaz, inguru-mingururik gabe zuzenean galdera egitea da. Eta horretarako prestatu egin behar naiz. Psikologikoki, esan nahi dut. Ez dakit egiteko gauza naizen ere.

Horra, izan naiz Vanessarekin. Hilabete luzea joan da erabakia hartu aurretik, baina azkenean bere telefono zenbakia markatu eta kafe bat hartzera gonbidatu dut, etxetik urrunen dagoen hiriko auzoan. Asko zahartu da. Zahartu baino, kaskartu. Haurrak, noski. Ni ere aldatuta ikusiko ninduen. Ez du oso lantzean behin baino jasotzen Clararen berririk. Bizitzak urrundu egin ditu bata bestearengandik, inoiz haserretu ez badira ere. Vanessa hirian geratu da eta supermerkatu batean lan egiten du. Hasieran kutxazain gisa aritu zen eta orain dela gutxi postu administrati-



bo bat eskaini dio zuzendaritzak. Onartuegin du, pozik. Clara abokatua da, kontatu didanez, eta Bartzelonan bizi da. Ez dago ezkontuta. Egon izan zen. Ez oso luzaz. Freixenet familiako oinordeko batekin. Baina, antza, degeneratu bat zen tipoa, gizajo bat. Ez dit xehetasunik eman Vanessak. Ez omen dauka haurrik.

Agurtzeko tenorea iritsi denean, bi musu eman dizkiot Vanessari, ikastetxe garaiko ohitura berpiztuz. Eta gero, eskuak hartu dizkiot nire esker ona adierazteko. Ez dakit zergatik. Kalkulatu gabeko keinua izan da. Agian beldur nintzelako ez ote zitzaion irribarre trufatia loratuko Claraz galdetzerakoan. Baina ez du halakorik egin. Errespetuz aritu zait, leuntasunez esan dizkit Clarari buruzkoak. Triste antzean esan dizkidalako sentipena ere izan dut, apika oraindik ere nire borreroari loturik ikusi nauelako, berriro sufritzeko prest, orbain zaharrear labana sartzeko gogoari eutsi ezinik. Edo, beharbada, nitaz maiteminduta egon zen sekretuan? Eta horrela darrai, hortik bere tristezia. Auskalo. Edonola ere, pertsona duina eta atsegina iruditu zait Vanessa, hobeto ezagutzea merezi duten horietakoa. Ez

ninduke harritu behar, beti halakoa izan delako ziurrenik, baina Clararengan jartzen nuenez -dudanez- uneoro nire arreta osoa, bada, presentzia transluzidoa zitzaidan Vanessa, gaurdaino. Sepia bat.

Vanessa hain atsegina egin bazait Clara existitzen dela baieztatu didalako da, baita ere. Batez ere. Eta orain badakit. Clara ez da amets bat soilik, oroitzapen hutsa, iraganeko mamua. Aitzitik. Bizirik dago. Gauza franko bizi izan du azken aldiz ikusi nuenetik. Beste edonork bezala, gorabeherak ezagutu ditu, sufritu du, zahartu dateke, edertasun pittin bat galdu duke. Beharbada bizitako guztiek bizitzari buruzko ikuspegia aldatu diote. Beharbada ez du aurrean daukan jendea modu berean epaitzen. Jendea epaitzeko irizpideak aldatuak ditu, menturaz. Beharbada ez lituzke berriro hartuko iraganean harturiko erabakiak, aukera izatera.

Plaza de Catalunya eta Filologia fakultate zahar-  
raren arteko kale batean dauka kabinetea Clara-  
rak. Bere plakari begira egon naiz gaur goizean.

Senar ohiaren abizena ere badarama bereari itsatsita. «Clara Ruiz-Freixenet». Harritu nau. Kataluniako ohitura ote? Ez zen gizon baten itzal bihurtzeko bokazioa zuen neska, nik ezagutu nuenean.

Oraindik ez bide du plaka aldatzeko astirik izan. Edo ez du aldatzeko asmorik. Senarraren abizena gordetzeko interesa izan dezake, berekin eman zelako ezagutzera abokatu gisa. Edo izen horrek berez daukalako balio sozial handia, Clararen senar ohiaren kasuan gertatzen denez. Freixenet abizenak, izan ere, ate asko irekiko ditu Bartzelona batean.

Pixka bat beherago, fakultaterantz joz, pareko espaloian dagoen jatetxe begetariano batean bazkaldu dut, kabinetearen sarrera zainduz. Denbora asko daukat. Bihar baino ez da hasiko fakultatean antolatu duten nire obrari buruzko kongresua. Emazteari esan diot ezinbestekoa zela ni bezperatik bertan egotea, antolatzaileekin azken xehetasunak lotzeko. Lehen aldia da nire omenez halako tamainako kongresua antolatzen dutela. Hego Amerikatik ere hiru uniber-

tsitario etorriak omen dira, nire obraz hitz egite-  
ra. Eta ez zait inoiz hain gutxi axola izan.

Urrundik bada ere, eta inoiz berarengana  
hurbiltzeko adorerik izango dudan ez dakidan  
arren, Clara ikusteko irrikaz nago. Baita ikaratu-  
ta ere.

Ez da azaldu. Arratsalde osoa pasa dut jate-  
txe begetarianoan. Jatetxea ez ezik kafetegia eta  
produktu ekologikoen saltokia ere bai baita  
tokia. Izan da mugimendurik portalean, baina  
Clararen arrastorik ez. Oporretan egongo da.

Aspaldian Bartzelonan egon gabe nengoen  
eta maiatzeko arratsalde amaigabea portu al-  
dean eman dut, luxuzko yate eskerren artean.  
Aberastasunaren ikuskizuna lasaigarria zait, tar-  
teka, baina oraingoan umore txarrez jarri nau.  
Auzune gotikoan afaldu eta hotelera joan naiz,  
biharko nire hitzalditxoia idazteko asmoz eta,  
bide batez, tentsio apur bat berreskuratzearren.  
Ez zait ezer atera eta azkenenean pay per view-  
an film amerikar bat erosi behar izan dut loga-  
leari itxaroteko.

Xarma ukaezina du Filologia fakultate zaharrak. Harrizko hormen okrea eta patioetako laranjondoen berde iluna. Marisa, Filologia departamentuko katedraduna, agertu zait harrera egitera. Aspalditxotik ezagutzen dugu elkar. Emaztea eta bion etxean ere egona da behin, EHUko mintegi batean nire obraz hitz egitera etorri zenean. Eraikinaren bisita eginarazi dit, azalpen historikoak emanez. Kafe bat hartzera joan gara ondoren, eta kongresukideak aurkeztu dizkit, banan-banan. Mundanitateak ez ditut inoiz gogoko izan, baina gaur bereziki bortxatu behar izan dut neure burua adeitsu eta umoretsu agertzeko. Profesionala izan naiz, zerbitzu minimoa ziurtatu dut, baina ez nago hemen. Urrezko vespa hazten ari zait garunean, tumorea bailitzan.

Anfiteatroan ez dago gazte askorik. Egungo kongresuetan gertatu ohi denez, irakasleak eta doktoregaiak bakarrik azaldu dira, baita unibertsitatetik kanpoko zenbait kulturzale nahiz Barzelonako euskaldun. Halere, jarlekuen bi herenak bete dira. Dakidan katalan apurra mentalki erreparasatu dut gosaldut bitartean, entzuleak segituan neureganatzeko, eta «Bon dia» ozen ba-

tekin ekin diot neure jardunari. Zurrusta iturritik bezala ateratzen zaidan nire ohiko erretolikarekin jarraitu dut ondoren, literaturaren gardentze prozesuaz gizarte mediatikoan, hain famatu bihurtu diren nire pertsonaien arazo ortofonikoez, eta abar. Clararen agerpenak erauzi nau automatismoen trenbidetik. Hitzik gabe geratu naiz bat-batean, nire aurrean, lehen lerroan, bi metro eskasera zegoela ohartu naizenean. Eguzkitako betaurrekoak, orrazkera, janzkera. Beste bat da. Eta betikoa da. Ahotsa dardaraka jarri zait, eta eztul eginez disimulatu behar izan dut galdua neukala esaten ari nintzenaren haria. Saiatu naiz jarraitzen, baina ikusirik ez nuela lortzen bi esaldi behar bezala kateatzea, bertan behera utzi dut hitzaldia. Nahiago izan dut entzuleak frustraturik uztea atsekabeturik baino.

Anfiteatroko oholtzatik jaistea zegokidan, nire obraren adituei toki egiteko, eta non jarri ez nekiela geratu naiz une batez, anfiteatroan libre zeuden jarlekuei begira. Clarak keinu egin dit eskuaz, birritan, arren bere ondora joateko. Txaloen artean utzi dut oholtza, Clararen ondora jais-teko.

Lurrina darama, eta, halere, hurbildu orduko berraurkitu dut bere betiko usaina. Zenbat urte bizi gabe! Bat-batean narrasti izatetik ugaztun izatera igaro banintz bezalakoa izan da. Odola dabilkit zainetan zehar, beroa, gorria, litroka.

«Se me han hecho largos estos años» bota dit ahapeka, hain berea duen herabetasun gairantzeztuaz. Eta hizlariari begira bailegoen paratu da ondoren, alegia deus ez.

Jendez inguratuta gaudela ahantzita, nahiko ozen «Ezkonduta nago» ihardetsi diot, egiak ozen esatea merezi duelako usteak edo eragin-da. Ez dakit zergatik esan diodan hori. Eta esan bezain laster damutu naiz, jakin arren ondo zegoela egin berri nuena. «Badakit» jarraitu du, lasai, eta bere eskua nirearen gainean utzi du, une labur batez. Kontsolamenduzko keinua iruditu zait. Beste zerbait esatera nindoan -jada ez dakit zer- baina isiltzeko eskatu dit erakuslea bere ezpainen gainean jarrita.

Horrela egon gara, neurgaitza egin zaidan denbora batez, oholtza gainekoei so, baina deus ere entzuteke. Eskuko poltsatik post-it bloke bat atera eta zerbait idazten ikusi dut Clara. Mezua

pasa egin dit. «Zurekin afaldu nahi dut». Kongresukoekin afaltzekoa naiz. «Ados» idatzi dut post-it berean. Lehen hitzaldia amaitu bezain laster «Sinatra. Zortzi eta erdiak» esan eta alde egin du.

Hain izan da laburra bere agerraldia ezen ez baitut gertatutakoaren errealtasunaz jabetzeko eta konbentzitzeko betarik izan.

Semea ospitalean sartu dutela, «apendizitisa», esan behar izan diot Marisari afarira azalduko ez nintzela justifikatzeko. Nago ez didala sinetsi. Arratsaldeko zazpitan lortu dut uztea nire obraren komentatzaileen sekta. Hotelera joan naiz zuzenean, dutxatzera. Ez daukat beste jantzirik. Berriro ere jarri ditut egunean zehar soinean neramatzanak. Ez dut zailtasunik izan nire ordenagailu mugikorra piztu eta geletako wifi zerbitzuari esker interneten Sinatra jotetxearen webgunea aurkitzeko. Lounge jotetxe bat da, agidanez, pijo samarra. Clara beti izan da pijoa.

Goizean goiz daukat, bihar, itzulera hegal-dia. Hoteletik goizeko sei eta erdietan hartu be-



harko nuke, beranduenik, aireporturako taxia. Errezepziotik igarotzean zalantza egin dut eta azkenean erabaki dut ez taxirik eskatzea, superstizio hutsez. Nire eleberrietako pertsonaiek egingo luketenez.

Pentsatzen dut ni izango naizela lehena jate-txean, eta, behiala gertatu ohi zenez, itxaron egin beharko dudala. Urduritzen hasiko naiz, atzazalak erauzteraino, eta ordu erdi luze baten buruan azalduko da, bere aire inuzenteenarekin.

Puntuak agertu naiz. Kasik. Zortziak eta hogeita hamabi. Clara barruan dago. Koktel bat hartzen ari dela ikus dezaket kanpoko leihatila obalatutik. Hiru laurdenetan hustua dauka edalontzi mehea.

Toki zaratatsua da Sinatra. Modako musika ozenegi. Zerbitzariak neska gazteak dira, beraien edertasunarengatik kontratatuak. Bezero gehienak gu baino hamar bat urtez gazteagoak dira, baina bada zaharragorik ere. Horrek lasaitu egin nau doi bat.

Hurreratu natzaio. Altxatu eta bi musu eman dizkit. Ohartzen naiz ez diodala ezer eraman -lorerik, esaterako-. Baina ez dakit eraman beharra

neukan ere. Ziurrenik ez. Ez da estetikoa, halere, emakume batekin afaltzera joan eta esku hutsik agertzea. Ez nago pozik neure buruarekin.

«Nire bizitza desastre bat da» esan dit, zuzenean. «Badakit» atera zait. «Beno, esan nahi nuena da, zer edo zer jakin dudala zutaz». Ezin zen okerrago hasi. Amildegia gure artean. Arroztzak gatzazkio bata besteari, nahi ez nukeen arren. Mingarriki arrotzak. Nerabeak ginen elkar ikusi genuen azken aldian. Honek guztiak ez du zentzurik. Iruditzen zait Clara jadanik damututa dagoela gonbidapenez. Damu dela esandakoaz. Orain isilik dago. Ni ere bai. Ez dakidalako zer esan.

Eskerrak zerbitzaria azaldu den. Aukeratu ditugu jaki-edariak. «Clara...» hasi naiz, ez nekiela nola jarraituko zuen esaldiak. Horror vacui. Zerbait esan behar eta ezin heldu hitz mutur bati. «Ez ditut irakurri zure liburuak» bete du nik utzitako hutsunea. Segituan ikusi dut itzala bere aurpegian hedatzen. Ez hainbeste aitortza zakarra egin didala ohartu delako, baizik eta orain gai bat gutxiago daukagulako elkarrizketari eutsi ahal izateko.

Laster ekarri dizkigute ardoa eta hasierakoa. Isilik egoteko aitzakia eman digu.

Horrela, mutu dagoela, hobeto ulertzen dut nor bihurtu den, zer sentitzen duen, zertan den. Kurioski, errazago moldatzen gara hitzik gabe. Uzten dit begiratzen, onartzen du neure begiradaz azter dezadan. Berak ere begiratzen nau, luzaz. Bere begien putzuetatik barneratzen naiz, astiro, Alizia Wonderlandera erortzen den gisan.

Afaria lasai joan da, hasierak iragartzen zuenaren aurka. Honetaz eta hartaz aritu gara, aspaldiko elkarrizketa atseginak biziberrituz. Ez dugu berriro gauza *larririk* aipatu. Berandu da. Agurren tenorea. Bihar goiz altxatu behar naizela adierazi diot. Taxiaren erreserba egin beharko dudala gogoratzen zait. «Oso ongi pasa dut» esan diot. «Bai, ondo pasa dugu» esan du. Ez naiz saiatu ezer gehiago lortzen. Elkarri bi musu eman diogu. Banoa.

«Ez nengoen prest *horretarako*». Ez dudala ulertu adierazten diot. «Hain maitemindurik sentitzen zintudan... beldurtu egin nintzen». Hotelean

nago, ohean etzanda. Goizeko hirurak dira eta telefonoz hizketan daramat ordubete Clararekin. Berak deitu du hotelera. Lortu du errezeptzionistak nire gela pasa diezaion, deitzeko ordu ezohikoa izan arren. «Clara...». «Ulertu ezazu. Inork ez ninduen horrela maitatu. Gizon asko izan ditut beti nire atzetik, ongi dakizunez, baina...». «Ez dakit...». Isilik gaude. Bere arnasa entzun dezaket, artega da. «Badakit ez didazula sinesten». «Ez dakit, Clara... Ez zara konturatzen nolako mina egin dezakezun...». Negarrez hasi da. «Barkatu, badakit erridikulua naizela...». Ez dakit nola aurrera egin. Edo atzera. Deseroso nago. Honek ez du irtenbiderik. Min gehiegi dago tartean, niretzat behinik behin. Oroitzapen gehiegi. «Eskegitzea dugu hoberena» esan diot, ahal bezain eztiki, «deituko gara berriz». «Ados» ahoskatu du, malkoz blaituriko mukiek eragotzita. Ez dut eskegi. Berak ere ez. «Ez zait gustatzen zu horrela ikustea, Clara. Neska independentea zara, nortasun handikoa. Beti miretsi zaitut». Egia da, beti miretsi izan dut. Aitarik gabe, ama burgesak gaizki maitatua, Clarak bere bizitza aurrera eramaten jakin du beti, irribarrea galdu

gabe. «Eskerrik asko... ez dut nahi pentsa deza-  
zun deprimituta nagoelako hurbildu natzaizula.  
Badakit hori dirudiela...». Ahotsa ohi baino agu-  
doago ateratzen zaio. «Ez, Clara. Ez dut ezer  
pentsatzen... Pozik nago berriro agertu zarelako  
nire bizitzan». «Benetan?» galdetzen du, itxaro-  
penezkoa iruditu zaidan ahots garbiagoaz. Ez  
dakit komeni zaidan malda honetan behera abia-  
tzea. Isilik nago une batez, uzkur, beldur. Bere  
hasperena entzuten dut entzungailuan, lasaitze  
hasperen bat dela iruditzen zait. Zain dago. Zain  
dagoela iruditzen zait. Hau dut aukera. Hil ala  
bizi. Zoro halakoa. «Badakizu gaur ere zuregatik  
dena pikutara bidaltzeko gauza naizela, Clara». «Ez  
zaizu damutuko. Maite zaitut. Beti maite izan  
zaitudala ohartzen naiz». «Gorroto dut telefo-  
noa». «Zure besoetan naukazu».

Lorik ezak desitxuratutako aurpegiarekin azal-  
du naiz etxean. Emazteak ez dit, halere, oharrik  
egin. Susmagarria deritzot jarrera horri. Galdera-  
rik egiten ez zidala ikusirik, elkarrizketa hastera  
behartuta sentitu naiz. «Kongresua ondo joan

da». «Zein kongresu?» galdetu dit bere sukaldeko zereginetan murgilduta. Probokazio bat ote den egon naiz une batez. Dena ote daki? Baina ez, begirada nireganantz altxatu du, irribarretsu. Ezagun du pozik dagoela. Egia da egun eguzkitzua atera dela. Sukaldeko leihoa zabalik dago aspaldiko partez, eta udaberriaren indarra airean dabil, edonor kutsatzeko prest. «Sorpresa bat daukat zuretzat» iragarri dit. Ez naiz ausartzten ezer esatera, hanka sartzeko beldurragatik, baita sorpresaren beraren beldur. Gure logelara joan da. Badator berriz. Eskuan liburu bat dauka. Sakelako formatukoa. Bere izena darama azalean. Berak idatzitakoa da. Eleberri bat. Ez nekien beste bat idatzi zuenik. «Gaur iritsi da postaz» dio, harro. «Zorionak, maitea» esan dut. Musu bat eman diot bekokian. Ez dut lortu beste ezer gehitzea, hanka sartzeko beldurragatik. *El hombre enamorado* du izenburu. «Maleta hustera noa» esan eta sukaldetik irten naiz, nahasita.

Maleta irekitzeke ohe gainean pausatu eta ordenagailua piztu dut, lehenbailehen. Firefox nabigatzailearen bilaketa leihatilan *El hombre enamorado* tekleatu dut komatxo artean, nire

emaztearen izena ondoren, hau ere komatxo artean. Berrogeitik gora esteka aurkitu ditut zerrendaturik. Horietako bat -elpais.com webgunearna- klikatu eta emazteari orain urtebete egindako elkarrizketa bat irakurtzen hasi naiz. Eleberriagatik jaso duen Planeta sariaz mintzo da, baita Alejandro Amenabar egitera doan liburuaren egokitzapen zinematografikoaz. Orrialdearen behealdeko enkoadratu txiki batean nire emaztearen bibliografia eta lorpen nagusiak aipatzen dituzte. Ez dut ezagutzen obra bakar bat ere. Asmatuak dirudite denek. «Haurren bilanoa!» oihu egin dit emazteak eta sustoaren eraginez nabigatzailea itxi egin dut. Balkoira hurbildu eta «Kontuz bidean» esan diot, autora nola sartzen den begiratzen dudana bitartean.

Ordenagailu aurrera itzuli naiz. Nabigatzailea berriro ireki eta beste esteka batean klik egin dut. Datu berberak aurkitu ditut emaztearen obraz. Berria.info webgunearen hemerrotekan bilaketa egin dut. Euskarara ere itzuliak dizkiote lau liburu. Baita ingelesera ere azkena. *A man in love*. Nazioarteko best-sellerra bihurtu da. Etxeko liburutegira jo dut.

Bere obrak, berrargitarapen eta itzulpen guztiekin, han daude, apal oso bat betetzen dutela. Hain zuzen neureak egon ohi diren apalean. Tokiz aldatuko zituen. Alta, ez dirudi azken al-dian mugituak izan direnik liburuak. Hauts mintz bat daukate denek gainaldean. Bila hasi naiz. Ez ditut aurkitzen. Ez dago nire liburuen arrastorik. Aldiz, emaztearen eleberriaren euskarazko bert-sioa han dago, *Gizon maitemindua*. Apaletik atera dut. Mugikorra dardarka sentitu dut sake-lan.

«Esan?». «Ni naiz». «Clara... itxaron, orain deituko dizut, emaztea inguruan dabil» esan dut ahotsa apalduz, gezurti. Zerbait argitu beharra daukat oraintxe bertan. Ordenagailuan nire izena tekleatu eta susmoa bete da. Apenas dagoen nire izenari asoziatu-estekarik. Wikipediakoa klikatu dut. Idazle gipuzkoarra. 1966, Donostia. Horretara mugatzen da nire biografia. Inoiz idatzi ez ditudan bi libururen izenburuak datoz, ondoren, argitalpen datekin. Aspaldi argitaratuak dira, laurogeiko hamarkadaren amaie-ran. Badirudi geroztik ez dudala ezertxo ere argi-taratu.



Emaztearen izena tekleatu dut Wikipediaren leihoan. Berrero ere lehengo datu oparoak. Emaztea idazle arrakastatsua da. Ni naizenaren -nintzenaren?- pare. Ezin liteke. Penguin Books argitaletxearen webgunera noa. Ez dago nire obren aipamenik. Ez naiz existitzen.

Nire artxiboak arakatu ditut ordenagailuan. Azken hogeitun urteetan idatzitako eleberri guztiak, famatu egin nautenak, desagertu dira. Wikipedian aipatzen diren nire aspaldiko bi obra horiei asoziatutako fitxategiak baino ez ditut aurkitzen, ordenagailuarentzat zaharregia bide den Worden bertsio batean idatziak. Ezin ditzaket ireki.

Arnasestuka nabil, geldirik nagoen arren. Zer da hau? Asma. Asma eraso bat. Nerabezaroaz geroztik ez dut asmarik pairatu. Atzealdetik oharkabean hurbilduta, izuak bere besoez inguratu nau, birika liliputiarrak ditut. Lasaitu egin behar dut. Ea, pentsa dezadan arrazionalki, halakorik posible bada egoera honetan. Dena aldatu baldin bada, logikoki, bainugelako botikinean Ventolina edo antzeko produkturen bat aurkitu beharko nuke. Goazen. Poto. Ez dago halakorik. Ez, noski, asmarenak ez du zerikusirik gertatzen

ari zaidanarekin. Liburuekin gertatzen ari denarekin. Asmarena oraintxe sortu zaidan zerbait da, estres egoera bortitzak eragina. Panikoa. Ez-tulka ari naiz, ezin dut eztula gelditu. Sofrologian ikasitakoa. Gauza lasaietan pentsatzea komeni da. Gauza lasaigarri bat bisualizatu. Gauza atsegin bat. Clara.

Bere zenbakia markatu dut. «Clara...» ohar-tzen naiz ez dakidala nola hitz egin Clararekin. Bart gaueko elkarrizketa hain da berria, hain da... telefonozkoa. Ausartzen naiz: «Bihotza...». Arrotza egiten zait hitza, ahoskatzen ari naizen bitartean, desegokia. Emaztearekin erabili ohi delako halako hitz bat, edo aspaldian ohaide duzun norbaitekin. «Maitea...». Maitea deitu nau. Clarak. Clarak *maitea* deitu nau. «Ez nauzu utzi-ko, ezta?» galdetu dit. Clara. Ezin sinetsia da. «Atzo adosturikoa...» galdetzen hasi naiz, sinesgogor. «Zatoz, maitea, nire etxea zain daukazu. Ez dut bizi nahi une bakar bat gehiago ere zu gabe». «Bizitza itzuli didazu, Clara». «Neurea orain hasiko da».

Eskegi dugu, batera. Ez daukat denbora askorik. Emaztea laster itzuliko da haurrekin. Joan

aurretik prestaturik utzi du bazkaltzekoa. Maleta ireki dut. Kongresurako eraman nituen puskez beteta dago oraindik. Izerdi usaina darie. Berdin dio. Armairutik beste zenbait gauza hartu ditut arrapaladan, eta bortxaz itxi dut maleta, ia gainean eseriz. Paperak eta dirua jakaren barruko patrikan ditudala baieztatu eta banoa. Ez. Oraindik ez. Gauza bat ahantzi zait. Ordenagailuaren ondotik hartu dut *El hombre enamorado*-ren euskarazko bertsioa. Orain bai, banoa. Atea ez dut giltzaz itxi. Ez dio axola. Iristear egongo dira emaztea eta haurrak. Ez dago mezu bat uzteko betarik. Zein mezu, gainera? Autora sartuta, hildakoaren tokian jarri dut maleta, denborarik ez galtzarren. Erretrobisorean daukat etxea.

Hondarribia zingiratsua behean utzi eta itsasaldera egin du hegazkinak. Jaizkibel dakusat leihatila borobiletik, brakiosauro lokartua. Itsaso gainean buelta eman eta mendialderantz jo dugu, Txingudiko badia ñimiñotua atzean utzita. Segurtasun uhala ken dezakedala adierazten duen soinutxo. Beroa daukat eta jaka erantzi

dut. Albokoari baimena eskatu diot gaineko konpartimentuan joka uzteko. Altxatu eta gorputz enborra doi bat makurtuz besoa luzatzea besterik ez daukat. Izerdi kiratsa datorkit besapeetatik. Berriro eseri eta eskuaz aurpegia lisatu dut, bekokitik kokotsera, biriakak hustuz. Bizarra hazi zait. Pirinioak hasi dira ezkerraldean. Mendi ka-tearen beste puntan dago Bartzelona. Hankartean daukadan narruzko paper zorrotik emaztearen liburua atera dut. Irakurtzen hasi eta berehala susmoa. Hitzak ezagunak egiten zaizkit. Ezagunegiak. Normala, neu naiz liburuaren euskarantzaileria:

Gure hamargarren urtemuga ahantziko zitzaiola pentsatu nuen. Behingoz ahantzi egingo zitzaiola. Eta posibilitate horrek, tristatu ordez, arindu egiten zidan gogoia. Eguna igaro zen berak ezertxo ere aipatu gabe, beste edozein egun izan balitz bezala. Esnatzerakoan, lore sorta erraldoi batekin azalduko zitzaidan kezka izan nuen. Bazkalorduan, entsaladarekin nahasitako eraztun diamantedun bat ahoratu eta hor-

tzek krak egingo zidaten beldur izan nintzen. Afalordua iristean, harritu nintzen hurrei ez baitzizkien, bainuaren ondotik, arropa garbi eta dotoreak jarri hiriko jate-txe onenera denok batera joateko. Haurrak oheratutakoan, zain geratu nintzen, egongelaren erdian zutik, gorputzarekin zer egin ez nekiela, nondik etorriko bere maitasunaren eraso, inoiz berdindu ahal izan ez nuen maitasun perfektu horren eraso, zikoitz sentiarazten ninduen maitasun erabatekoaren eraso. Sukaldean eserita egunkaria irakurtzen ikusi nuenean, ordea, itxaropenez betetzen hasi nintzen. Atzetik hurbildu eta senarra besoez inguratzeko gogoia eta guzti izan nuen une batez. Baina ez, beti bezala, senarrak *sorpresa* bat zeukan niretzat. Telebista ikustera nindoala adierazi nionean, nirekin batera DVD bat ikusi nahi zuela hasi zitzaidan bat-batean. *Bere maitasuna* gordetzeko adina antzezle dohainik ez duenez, tranpa usaindu nion. Itxurak egiten ibilia zen, hortaz, ezertaz gogoratuko ez balitz bezala. Film oso ona

omen zen. Esan nion nekatuta nengoela, eta biharamunean lanegun zaila izango nuela. Tematu zen. Telebista ikustekotan nintzela gogorarazi zidan. Aspaldian ezer elkarrekin ikusi gabe geundela argudiatu zuen ondoren, eta film hori benetan gustatuko zitzaidala. Bakarrik ikus zezakeela erantzun nion, ez zegoela arazorik, barkatzeko baina ohera nindoala. Ez zidan utzi, baina, oheratzen. Bere besoetan erdi lo ikusi behar izan nuen, filma. Bertolucciren *Azken enperadorea* zen. Orain aspaldi, elkarrekin ikusi genuen lehen filma. Gure hastapenetako *garai zoriontsura* eramanez ninduten berehala filmaren lehen irudiek, jakina. Oraindik nire maitasuna berea bezain handia zela sinetsi nahi nuen garai urrun hartara. Baina nekatuegia nengoen bukaera arte egoteko. Berunezko betazalak ziren nireak. Begiak berriro ireki nituenako filmeko kreditu amaigabeak mantso zeharkatzen ari ziren pantaila. Gauerdiko hamabiak jotzekotan ziren eta ohera nindoala adierazi nion. Orduantxe luzatu

zidan gutun-azala, gure urtemugaren eguna bukatzeaz zegoela, baina epearen barruan, nola ez. Hegazkin txartelak ziren. Txinara betidanik egin nahi izan nuen bi-daiarako txartelak. «Bihar ez duzu lanik. Oporrak hartu dizkizut. Eta haurrak nire gurasoenean egongo dira. Dena konpondu dut. Goazen maletak egitera, maitea».

Senarra *harribitxia* dut. Neronek asma-tutako pertsonaia maskulino ideala balitz ere ez nukeen hobeto egingo. Ez nintzateke ausartuko halako gizona deskribatzera, ez litzatekeelako sinesgarria. Ni zoriontsu egitea beste helbururik ez du izan elkar ezagutzen dugunetik. Idazle ospetsua bihurtu da baina idazten hasi aurretik eza-gutu nuen nik, ikasle soil zela, inor ez. Nik bultzatu nuen, egia esan, idaztera. Betidanik literaturzale amorratua izan naiz eta, ez dakit, sentitu egin nuen bera zerbait egiteko gauza izango zela. Dohain itzela duen arren, eta mundu osoan zehar ibiltzen bada ere hainbat jende famaturekin, badakit hori guztia niregatik egiten duela,

bere kabuz ez lukeela egingo. Ahal duen guztietan berarekin eramaten nau kongresu eta promozio biretara eta badakit bakarrik joaten denetan ere ez diola inoiz sobe-razko begirada bat eskaini ezein emakumeri. Behin baino gehiagotan aitortu dit nirekin denbora pasatzea beste helbururik ez duela bizitzan. Eta gure haurrekin. Ezin hobeto arduratzen baita haurrez, bere bete-beharrek uzten dioten neurrian. *Aita zoragarria* da, beraien senarren jarrerak, edo jarrera ezak apika, desesperaturik bizi diren nire aspaldiko lagunek etengabe oroitarazten didatenez.

Pekinerako hegaldi luzean behin baino gehiagotan hartu ninduen loak. Amets bakarra oroitzen dut ordea. Ezin zehazkiago. Erromako Panteoian nengoen, banku batean jarrita, kupula miresgarriari so. Bat-batean urrezkoa zen vespa bat sartu da. Julio Cortazar zuen gidari. Ez dakit nola lortu duen niregana hurbiltzea inor jo gabe, baina kontua da jendeartetik sigi-saga etorritz nire ondo-ondoraino iritsi eta begira



geratu zaidala, zigarroa ahoan. Irribarre egin du, erpuruaz eta erakusleaz hartu zigarroa eta zera xuxurlatu dit belarrira, bere zintzurreko «r» akastunaz: «Goazen Alexandrrriara, piba». «Baina... Biok?» «Beste norbait ikusten duzu, ala?». Bere atzean jesarri naizenean azeleragailuari eragin dio. Itzulika hasi gara Panteoiaren marmolezko zoruan, harik eta hegaldatzen hasi garen arte. Kupularen erdi-erdiko zuloz igotzeko hasi gara eta, hurbildu ahala, zuloa handituz joan da. Zulora iritsi garenerako vespari pasatzen uzteko modukoa zen eta irten egin gara gau zohardira. Gora goaz. Izar epelen artera. Gugandik ez oso urruti, pinguino talde bat dakusagu hegan. Orduan mina sentitu dut saihetsean. Senarra ukondoarekin kolpeka ari zitzaidan, leihatila borobiletik zeru izartsuari begira nizaion. Bombay gainean omen geunden, bidaiaren erdia eginda.

Ez naiz aditua ametsen interpretazioan baina mezua ondo baino hobeto jaso dut. Zerbaitek huts egiten du nire bizitzan. Ez

da hau benetan desio nuena. Senarra maitagarria da. Baina ez dut inoiz lortuko berak maite nauen eran maitatzea. Ez nau asebetetzen nire bizitzak. Nire senarra idaztera bultzatu nuenean lapsus bat egin nuen. Ni neu nintzen idatzi nahi zuena. Idatzi egin nahi dut.

# Bernardo et Ramon

J'ai deux amours, mon pays et Paris.

JOSEPHINE BAKER

Zoriontsu erantzun nion Atxaga ezagutzen nuela. Alegia, irakurria neukala. Apur bat harrিতта, zer irakurri nuen galdetu zidan orduan. Ez nuen jakin izenburu arraro hartaz zehazki oroitzen. Giro *rance* samarra, mendian galdutako herria eta beste gauzaren bat aipatu nizkion orduan eta segituan asmatu zuen zein liburuz ari nintzaion. «Zahar» hitza erabili nuen, nik uste, orain esan dudan *rance* horren orde, bere naziotasun sentimendua ez zauritzearren. Izan ere, ondotxo nekien ordurako zeinen sentiberak izaten diren herri minorizatueta jendeak. Ez dut uste, halere, geroztik gertatu denaren argitan, gehiegi zaurituko nukeenik *rance* erabili izan banu, frantseson joera erdeinutsu ezagunari jarraiki. Nolanahi ere, zintzoa izan nintzen eta ez nuen liburu hura gehiegi gustatu ez zitzaidala di-

simulatzeko ahalegin handirik egin. Baliteke, gaurtik begiratuta, zintzotasun kritikoarena nire partetiko sedukzio taktika inkontziente bat baik ez izatea. Nire adineko emakume batek badu -eskerrak!- amarru bat baino gehiago bere zakuan, eta gizona kitzikatzeko bide zuzenetako bat bere baitan daukan dominatzaile sen horri lotsagabeki erronka egitea dela ez nintzen ikasi berria. Ez zen hori izan, dena den, Atxagaren lana diplomaziarik gabe tratatzera eramán ninduená. Izatekotan, horretara bultzatu ninduená bere adineko edozein mutil osasuntsuk automatikoki eragiten didan seduzitzeko beharra da, azken urteotan -kontagailua atzeraka hasi zaidanetik- hain ondo ezagutzen hasi naizena. Atxaga horrekiko nire zintzotasun kritikoak, haatik, ez zion irribarrea itzali, ezta bere begi ezin beltzagoen distira lausotu.

Nahikoa bide zitzaion Antsori nik beraien autore *nazionale* ezagutzea gure eztabaidari ordu-ra arte izan ez zuen kutsu berria eransten hasteko. Hurbilagoa.

Ezagutzen nuen ordurako. Baina ez nekien euskalduna zenik -abizenaren jatorria ez nuen

identifikatzea lortu ez baitzuen, preseski, euskalduna-. Bruselako kongresu bazkari batean kointziditu genuen lehenengoz, aurreko urtean. Eta deus gutxi oroitzen dut berak orduan esandakoz. Egia esan, ez dakit hitza hartu zuen ere, *benetan* esan nahi dut, zerbait esateko, eztabaidan sartzeko. Soilik dakit fisikoki segituan erakargarria suertatu zitzaidala. Arraza sendokoa begitandu zitzaidan eta beltzaranegia aukeran. Baina ez zen tipo magrebiarrekoa. Hazpegi finak zituen -ia ezpainik gabea zuen ahoa- eta bazuen alde hotz bat, zurruntasun bat gorputzean, oso europarra egiten zuena. Galesa edo eskoziarra ote zen ibili nintzen une batez. Frantsesez ari zenean zeukan r-a ahoskatzeko moduak ere halako zerbait iradoki baitzezakeen, jatorri zelta arkaiko bat, esaterako. Kontua da nahiago nuela Antsoeren jatorria horrela amestea, Europaren hegoaldearekin asoziatu gabe, arlo erotikora mugatzen den nire arrazakeriaren eraginez edo.

Gero eta bakanago gertatzen den gauza atzerritarrengan, ondo samar moldatzen zen frantsesez, egin genituen lehen hitzek agerian jarri zidatenez. Nire unibertsitateari -Parisko

Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales-igokitu zitzaion nazioarteko ikerketa taldearen kongresua antolatzea urte hartan eta Charles de Gaulle aireportura joan nintzen nire lagun «Frau Professor» Brigitte Shoendorfferren bila. Brigitte-rekin hizketan aurkitu nuen. Biak Ryanair hegaldi batean iritsiak ziren Stansted-etik. Brigittek aurkeztu gintuen eta, Antso ere kongresukoa zenez, nire autoan joatea proposatu nion.

Parisko autobide periferikoaren zirkulazio geldo eta trabatuan sartuta geundela, nongoa zen galdetu zion Brigittek. Buru gaineko ispilu erretrobisorean ikus nitzakeen biak solasean. Bilbotik zetorrela erantzun zuen, esan bezala frantses txukun batean. «Hain zuzen, orain dela hilabete egon naiz Espainian» aldatu zuen gaia Brigittek, oraingoan niri mintzatuz. Antsoren begitarte zimurtzen ikusi nuen, zerbait gehitu edo zuzendu nahi izan balu bezala. Ez zuen ahorik ireki baina.

Grands Boulevards metro geltokitik hurbil dagoen bi izarreko hotel xume baina duinean utzi nituen. Autotik jaitsi eta errezeptziora jo nuen beraien gelak behar bezala erreserbatuta zeudela

ziurtatzeko. Brigittek bere giltza hartu eta urgentziaz dutxa bat hartu beharrean zegoela esanez agurtu ninduen. Errezeptionista asiarrak -adin definigaitzeko emakume bat- telefono dei bati erantzun behar izan zion. Bere giltzaren zain geundela, Antsori esan nion frantsesez ederki ari zela espainola izateko. «Mugakoa naiz» zehaztu zidan, xehetasunetan sartu gabe eta nire jakin-min agerikoegiari diskrezioa edo misterioa nahi zukeen zer edo zer kontrajarriz. Bazitekeen, baita ere, besterik gabe herabetasuna izatea bere jarreraren zioa. Antso nire lan zenbait ordu-rako irakurria zela badakit, orain, eta ez litzateke nire ospe intelektualaren aurrean apaltzen ikusten dudan lehen gizon gaztea. Bata zein bestea izan arrazoia, jarrera iheskor horrek nire interesa bikoiztu baino ez zuen egin.

*Hiri europarrak literaturaren aro postmodernon* izen arranditsua -gauzak dauden bezala subentzioak lortzeko ezinbestekoa- ez nion nik jarria gure kongresuari, baina neuri egokitu zitzaidan sarrera hitzaldi protokolaria egitea. Ez dira

halakoak izaten zailenak. Antolatzaileari ez dagokio ikerlan baten emaitza eskaintzea, baizik eta egitarauan biltzen direnen sintesi prospektibo itxurosoa egitea, kongresuaren goi maila azpimarratuz eta zenbait ardatz teoriko edo kontzeptu giltzarri nabarmenduz. Gure laborategiko inork ez zuen ohorezko betelan hori bere gain hartu nahi, eta ez nuen protesta keinurik egin bileran batean begiradak niregana itzuli zirenean, besteak beste aspaldiko garai lasaienean nabilako lan aldetik, nire katedra aurreko urtean erdietsi ostean. Antsok Michel Houellebecq-en eleberrigintza eta Bernardo Atxagarena zituen aztergai nahiz erkagai, bereziki hiriburu literario-ekiko pertsonaien jarrera eta posizionamendua. Segituan susmatu nuen, hitzaldiaren izenburuarekin batera e-mailez bidali zigun laburpenean zerabiltzan hitzengatik, Pierre Bourdieuren eta neure teorietan oinarritzen zela bere lana. Bizpahiru hitzaldi batera programaturik zeuden Antsok hitz egin behar zuen ordurako, eta horietako bat hierarkia unibertsitarioan nire mailakoa zen ikerle ingeles ezagun batena. Logikak eskatzen zuen ni azken horretara joatea, baina, mun-



duko literatur sistemaren espezialista gisa, behartuta senti nintekeen hain esparru desberdinetatik zetozen bi autore konparatzen zituen Antsoren hitzaldira joatera. Bestalde, Espainiako unibertsitate batean eduki zezaketen Houellebecqi buruzko ikuspegia interesa zekidan zilegi zen. Dena dela, ezin ukatu, hauek *a posteriori* egindako arrazionalizazio hutsak direna, eta egiazko egia dela balakaturia sentitzen nintzela ezezaguna nuen mutil gazte erakargarri horrek nire kontzeptuen gainean eraiki bide zuelako bere lana. Antso erakargarria iruditzen zitzaidan, kontsiderazio fisikoez haraindi, ausardia behar zelako Houellebecq eta euskal idazle bat paraleloki aztertzen hasteko frantses eremuko espezialisten aurrean. Garbi dakusat, gaurtik begiraturata, Antsorentzat jokaldi estrategikoa zela Atxaga, hau da hirugarren mundu literarioko autore erdi-ezagun bat, Houellebecqen moduko mundu mailako izar baten parean ezartzea. Modu bat zen euskal literaturara erakartzeko bestela inoiz interesatuko ez zatekeen jendea. Halere aho biko ezpata zerabilen Antsok, zeren Houellebec-

qi buruz Parisko kongresu batean hitza hartzea ez da arrisku gabeko eginkizuna.

Esan behar dut ederki defenditu zela Antso. Izan zituen zenbait galdera zital nire lankide paristar batzuegandik, hitzaldiaren osteko eztabaidan, baina ahotsean dardararik gabe defenditu zuen bere hipotesia, betiere duina zuen frantsesean bermatuz.

Arrats hartan jatetxe japoniar batean bildurik geunden kongresuaren bikaina osatzen genuen katedratiko eta antolatzaileok. Ezagutzen ez nuen garaipen aurpegia ikusi nion Antsori atea ireki eta nire mahaira hurreratu zenean, Laura Morante aktorearen fotokopia gazteagoa zirudien doktorante italiar batekin batera. Antza, Oberkampf kale *hype*-rantz zihoazen beste kongresukide gazteekin afaltzeko eta, barruan ikusi gintuztenez, agurtzera sartuak ziren. Goizean edo bezperan baino askoz ere erlaxatuago zegoela ezagun zuen Antsok. Hain erakargarria zitzaidan zurruntasun hura galdua zuten bere mugimenduek, eta hazpegiak ere dilataturik zeuzkan -ahoa ezpainak loratzeraino-, *grands crus* batzuk degustatu balituzte bezala hara hurbildu

aurretik. Edo, besterik gabe, hitzaldiak ondo funtzionatu zuelako zegoen hain lasai. Dena dela, *hegoaldetarragoa* begitandu zitzaidan bat-batean, baita sentsualagoa ere. Bere hitzaldi proposamena onartzeagatik eskerrak eman zizkidan, kortesiazko hitzak baino gehixeago zirenak erabiliz, nik uste. Radarra piztuz ulertu nuenez, aurretik elkar ezagutzen zuten berak eta neska italiarrak eta hori pentsatzeak -nahiz ez nuen ziurtasun erabatekorik- neurri batean lasaitu ninduen. Izan ere, zaila zitzaidan irenstea egun bat eta erdi nahikoa izan zutela agerikoa zen konplizitate gradu horretara iristeko. Hipotesi horretan pentsatze hutsak menopausiaren er-tzean sentiarazi ninduen. Gure arteko distantzia lehen munduaren eta hirugarrenaren artekoa baino gaindiezinagoa egiten zuen. Garbi baitze-goen kongresuan bertan elkar ezagutu bazuten zera esan nahi zuela, Antsok beste belaunaldi batekotzat nindukala, *merkatutik kanpo* ikusten ninduela. Bezperan hotelera iristean diskretu eta misteriotzatzat jo nahi izan nuen bere jarrera, bat-batean, interes sexualik ezaren adierazpen gardena bihurtzen baitzen, hori horrela izatera.

Baina ez. Geroxeago egiaztatu ahal izan nuen moduan, aurreko kongresu batetik ziren lagunak *Laura Morante* eta Antso.

Gurekin afal zezaten proposatu nien, nahi baino gehiago salatuz neure burua eta kongresuaren aurrekontua erabat ahantzita. Segituan lankideen begirada luzeak sentitu nituen mahaiazen lau ertzetatik niregana iristen, amaraunaren erdigune bihurtzen nindutela. Eta, halere, aurrera jo nuen, gaur ere harritzen nauen lotsagabekeriaz. Edo inkontzientziaz. Zizka-mizketan baino ez geundela argudiatu nuen. Oraindik erdibetea neukan miso katilua seinalatuz, Antsoaren begi beltzetan inolako bermerik gabe murgildu eta bere esku utzi nuen nire burua. Laura Moranterekin irribarre trukaketa bat nahikoa izan zuten geldituko zirela erabakitzeko.

Biharamun goizeko hitzaldien segida amaigabea hitz bakar bat bera ere asimilatu gabe entzun nuen, nahiz eta hizlarien artean eserita egon, oholtza gaineko mahaian. Bezperakoa nerabilen behin eta berriro nire baitan. Nire jarre-

raz lotsatuta nengoen eta lankideek pentsa zezaketenez arduratuta, nahiz afarian eginahalak egin nituen bat-bateko gonbidapen horren esanahi ezin gardenagoa ahal zen neurrian uhertze-ko. Laura Moranterekiko nire interesa puzten saiatu nintzen, galderak eginez prestatzen ari zen tesiaz, benetan gazte biak gonbidatzea nahi izan banu bezala hastapenetik. Eta, oso mingarria bazitzaidan ere bera horrela umiliatzea eta neure burua ezinbestean zahartzea, Antso gaztetxotzat neukala erakutsi nahi zuten ateraldi zaurigarri batzuk egitera ere behartuta sentitu nintzen.

Gaueko hamaikak eta erdi aldera altxatu ziren biak mahaitik, katedratikook hartzekotan ginen pattarrei uko eginda. Beraientzat *egiazko gaua* hastera zihoala iradoki nahi zuen esaldi pare batekin agurtu gintuzten. Antsok bi afariak ordaindu nahi izan zituen baina nire lankide batek ezetz esan zion, antolakuntzak bere gain hartuko zituela, ez zedila kezkatu. Niregana itzuli eta gonbidapena eskertu zidan Antsok, adeitazunez. Ez nintzen ausartu lankidea begiratzera. Irribarrezail batez erantzun nien bi gazteei. Gau

paristarraren aire hozkirri eta urduriak bete zuen jangela une batez, harik eta alde eginak ziren Antso eta Lauraren atzean atea itxi zen arte. Hamar urte gutxiago izatearren nire seme bieta-ko bat emango nukeen une hartan. Betikoa nuen keinuaz mototsa egitera banindoa bezala adatsa buruaren atzealdean esku biez bildu nuenean, nire besoetako gihar mardultzen hasiek, tentsio-rik gabeek, ardo baten milesimoak bezain zehazki salatzen zutela nire adina pentsatu nuen.

Bezperakoaren hausnarketan harrapatu nin-  
duen kongresuko hitzaldi nagusiak egiten ziren auditorioko lehen lerroan zegoen gizon baten galderak. Ez nuen entzun galdera eta, okerrago zena, ez nekien niri edo albo bietan neuzkan hiz-larietako bati zuzendu ote zion. Errepikarazi egin behar izan nion, lotsaturik. Goiz osoa ameske-rien lanbroan sartuta igaro nuen. Iratzartzeko aurkitzen nuen modu bakarra tarteka nire burua iraintzea zen. Nola senti zezakeen nire ospeko ikerleak, nire eskarmentuko emakumeak, nera-bezaroa utzi berria zuen gizon gazte batekiko halako sasi bihozkadarik? Ez neukan, ez, konpos-tura galtzerik.

Bazkalondorako nire onera itzulia nintzen. Botere emakumea nintzela behin eta berriro ahapeka murmuratuz, mantra indarberritzailea bailitzan, lortu nuen ezohiko ahulezia ahalkegarria uxatzea. Lagundu ninduen baita ere, aitor dezadan, kongresuko egitarauan konprobatzeak ez Antsok ez Laura Morantek ez zutela beste interbentziorik programatuta. Gogoratu nintzen, azkenik, Antsoren hoteleko gelaren erreserba egun hartan bukatzen zela, eguerdian, eta ondorioztatu nuen Euskal Herrira itzuliko zuen hegazkina edo trena arratsaldean bertan hartuko zuela ziurrenik. Bazkaria baliatu nuen bezperako hanka-sartzeagatik barkamena eskatzeko nire laborategiko kideei. Ez zuten azpimarratu nire huts egitea -laguntza europarrak garaiz iritsiak bide ziren eta lasai samar genbiltzan behingoz diru kontuei zegokienean- eta, berriro kongresuko dinamikan sartzea lortu nuen. Horregatik moztu zidan arnasa nire mugikorrean Antsoren ahotsa entzuteak.

Nire laguntza behar zuela zioen, mezu ezin laburrago batean. Tonua lasaia zen. Ez zirudien presazko eskakizuna. Goizeko hamarrak aldera

utzi zuela mezua konprobatu nuen. Erantzuteko beranduegi ote zen, hori izan zen burura etorri zitzaidan lehen gauza. Gauza bakarra. Minutu luze bat behar izan nuen neure buruari beste galdera batzuk egiten hasteko: nondik zeukan nire zenbakia, adibidez, edo komeni ote zen erantzun niezaion.

Hogei minutu iraun nuen deitu gabe. Arratsaldeko hitzaldien arteko lehen kafe pausa baliatuta, fakultatetik irten eta handik hurbil zegoen metro sarrerara joan nintzen deia euritik babestuta egitera. Paris ez zuen ezagutzen ia batera eta, egun pare bat zeukanez, zerbait bisitatzeari bereziki aholkatzen ote nion galdetu nahi zidan. Ez nuen jakin nondik heldu elkarrizketari, eta erantzuteko modu egoki baten bila ibili nintzen eskatu zidan informazioaren bila baino gehiago. «Bereziki?» errepikatu nuen, denbora irabaztearren. «Bai, maite duzun norbaitekin ikusi nahiko zenukeen zerbait». Laura Morantekin ote zegoen jakin nahiko nukeen une hartan, baina errotik debekatu nion neure buruari halako galdera egitea, edo zeharka jakiten saiatzea ere. Baina ez gara inoiz erabat geure burua-



ren jabe. «Ez dakit ba, Parisko klixerromantikostatikaldentzen den zerbait ikusenezaten nahinuke» atera zitzaidan nahigabe, plural eta guzti. «Bakarrik nago. Baina erakutsi nahi bazenit...» bota zidan ezin naturalago. Zuhur edo uzkur, Lauraz galdetzera ausartu nintzen ahotsa ahalnuen neurrian kontrolatuz eta nire bihotz taupadak telefonotik entzun zitzan beldurrez. «Barkatu? Ze Laura?» esan zuen harriturik. Jakina, neska italiarra ez zen Laura deitzen, mentalki hala izendatu nuen arren hasieratik. «Laura ez, Valeria» zuzendu nuen, nik ondo esan eta berak gaizki entzun balu bezala, tonu nahi baino autoritarioagoa erabiliz. «Valeria Napolira itzuli da, oraintxe utzi dut aireportuan». «Baina...» tematu nintzen. «Valeria eta biok lagun onak gara. Pentsatu duzu, beraz, nora eramango nauzun?».

Biharamun goizeko bederatzietan jarri nion hitzordua, Almake zubiaren *rive droite* aldean, handik nora joango ginen iragarri gabe, eta kongresura itzuli nintzen. Ez zuen protestatu, gau hartan bertan elkartzea pentsatua zuela igarribanion ere ahotsean.

Hurrengo goizean berandu iritsi nintzen Almakozubira, nahitara, eta «Zer moduz amaitu da kongresua?» galdetu zidan, telefonoz baino naturaltasun gutxiagoz, apika Diana printzesaren omenezko lore sortez inguraturik deseroso sentitzen zelako. Bezperako bere ausardia edo lotsagabekeria nolabait zigortu nahi izan nituen eta ez zitzaidan modu hoberik bururatu bere jarrera maskulino estereotipatuari iseka egiteko toki horretara eramatea baino. «Metal doratuzko sugar hori New Yorken dagoen askatasunaren estatuak daukanaren erreplika bat da, neurri berekoa. Eta hemen azpitik igarotzen den tunelean hil zirenez Diana eta Dodi, bada, jendeak oroitarri bihurtu du. Beti dago loreztaturik» azaldu nion. «Maitasun debekatuaren sinboloa. Printzesa zuria eta maitale azal ilunekoa», berreskuratu zituen ausardia eta irribarrea. «Ez gara hau ikustera etorri. Zeharka dezagun zubia» gonbidatu nuen, beste azalpenik eman gabe eta bere besoa hartuz, ni ere ausarta izan nintekeela gaztigatu nahiz edo.

«Beste toki batera joatea pentsatua neukan, Quai Branlyn, hortik jarraituz, ireki berri duten Arte Primitiboen museora, euskaldun gisa interesatuko zitzazulakoan. Chirac presidenteak sortutako museoak berreskuratu ditu lehengo Giza-kiaren Museoan zeuden funts gehienak. Badirudi, halere, euskal atala ez dutela integratu toki berrian. Primitibo izateari utzi diozuen seinale?...» kitzikatu nuen. «Primitibotzat gauzkazue oraindik ere, ez dut horretaz dudarik, baina europar primitibotzat, eta gaitz erdi. Hori da funts euskalduna ez transferitzearen arrazoia, ulertu dudanez. Baina esan duzu ez naramazula hara. Nora goaz orduan?». «Iritsi gara».

Zubiaren beste muturrean geunden eta lurpera zihoan eskailera estu bat seinalatu nion. «Sartu, ilunpeari beldurrik ez badiozu». Parisko estoldetako kiratsak laster inguratu gintuen, hiriaren zolan barneratu ahala. «Badago pasealeku erromantikoagorik...» kexatu zen, nire jolasa onartzen zuela adierazten zuen tonu dibertituaz. «Erromantizismoa, izatekotan, gure baitan dagoen zerbait da. Orain zenbait urte -hamarkada ere esan nezakeen- senargai nuenarekin hemen

partekatu genuen gure unerik gozonenetakoa». «*Les Mystères de Paris...*» xuxurlatu zidan burlati, geunden tokiaren literariotasunaren berri bazuela erakutsiz eta aldi berean nire senargai ohiarekikoa iruzkinduz. Ez zidan utzi txartelak ordaintzen, jatetxean nire kontura jan zuela argudiatu. Pasabide luze eta heze batean sartu ginen.

«Nolaz zaude oraindik Parisen?» galdetu nion «zuregatik» erantzun zezakeelako itxaropen lauso bezain zoroaz. «Euskal autore bat argitara dezazun nahi dudalako. Zure argitaletxe handian...». Nire erreakzioaren zain geratu zen, aurpegi serioaz, esaldiari jarraipena eman aurretik. Hotza sentitu nuen bizkarrezurrean hedatzen eta toki hartako zabor usaina nabarmena egin zitzaidan bat-batean. «Txantxetan ari naiz. Askotan gertatuko zitzaizun, ezta?, sasidazle bat edozein aitzakiaz baliatzea zuri eskuizkribu bat pasatzearen. Beharbada oheratzeko proposamenik ere jaso duzu inoiz. Nahiz ez dagoen arrazoi literarioen beharrik zurekin oheratu nahi izateko». Bazezkie, beraz, irakasle izateaz gain banintzela ere Gallimard argitaletxeko *Du monde entier* bildu-

maren irakurketa komiteko partaide. Txango subterraneoan bertan behera utzi eta alde egitea planteatu nion neure buruari haserrearen haserrez. Baina Antsoaren begi urdurietan bere zinizismo baldarrak nekez estal zezakeen ahulezia bat ikusi nahi izan nuen, eta nirekiko erakarpenak eragindakoa izan zitekeela pentsatzeko ahulezia are handiagoa izan nuen. Maldan behera eskailerarik gabe zihoan tunel estuago eta irristakor samarrean sartu ginen. Estoldetako ur marroia, txokolate usteldua bailitzan, zirimolaka genekusan gure alboko kanaletik igarotzen.

Bisita osoan kortesiaz eta umoretsu aritu zitzaidan, Versaillesko jauregia ikustera eramanez banu bezala, une bat lehenago erakutsitako aurpegi zakar eta interesatua berea izan ez bailitzan. Bestalde, uste dut, edo susmoa daukat, estolderia kontu haiek egiazki interesatu zitzaizkiola, ez baitziruditen antzeztuak toki haren historiari buruzko panel handien aurrean egin zituen geldialdi luzeek. «Ohartzeko zara? Erdi Aroan orain baino kutsatuago zegoen Sena ibaia! Ez da harrizkoa, dena hara botatzen omen zuten...».

Zerua goibel zegoen arren eta euria hasita, kanpoaldeko argitasunak begiak txinatartu zizkigun irteeran. Haserrea pasatua zitzaidan. Ez zitzaidan jada hain larria iruditzen Antsoren ares-tiko baldarkeria. Halako toki desegokira eramantzearen ordaina zatekeen, ongi merezia. «Anti-doto bat zor dizut, Antso. Ez zaitut utziko zure Euskal Herri maitera itzultzen Parisen irudi *intestinal* honekin». «Ez, ez. Oso interesgarria izan da. Eta ondo pasatu dut... zurekin». «Japoniarrez eta amerikarrez lepo egoten den hiriko tokirik kurtsienetako batera eramango zaitut orain».

Angelina te saloia ez zegoen aski hurbil oinez bertaratzeko eta garraio publikoak ez hartzearen -gure ibilaldiari xarma kenduko zion beldurrez- taxi baten bila hasi nintzen. Antsok bi solairuko autobus gorri bat ikusi eta, *faute de goût* bat gehiago edo gutxiago, ez geniola jada ezer zapuzteari beldurrik esanez igoarazi ninduen, entzungor agertuz nire protesten aurrean. Berriro ere *rive droitera* pasatu eta autobus sasi-inglesak Concorde-ko obeliskoaren atzealdean utzi gintuen, jomuga genuen kaletik bi pausotara. Rivoliko arkupeetan zegoen te saloia eta ordu laur-

den luze bat itxaron behar izan genuen sartzea lortu aurretik. Giro hozkirriak eta nekeak goseturik, gustura eseri ginen apaindura doratuz kargaturiko saloiko besaulki gurietan. Nire gomendioari jarraiki, bertako espezialitatea, txokolate afrikarra eskatu zuen Antsok, nik te desteinatu bat eta *toast* gurineztatuak biontzat. Kongresua izan genuen hizpide, nor egon zen ongi, nork atsekabetu gintuen, baita Urlia, Sandia edo Berendiari buruzko kutzukeria estrazientifiko ugari ere. Azkenean, ustez eta bide onetik nindoala, *beraien* Atxagaz galderak egitera behartu nuen neure burua, gustura arituko zelakoan euskal literaturaz edo euskaldunez. Nahiko lehor erantzun zidan nazio txikiak sinplifikatzeko joera genuela nazio handiek, elementu bakan batzuetara mugatzeko joera. Atxaga ez omen zen *beraiena*, euskal autore bat baino ez zen, beste askoren artean. «Izotz mendi baten ageriko punta» metafora erabili zuen, hiperbolaren tentazioari ezin eutsirik. Giroa zapuztu nuelako sentazioaz utzi ninduen bere ateraldi garratzak. Eta segituan haserretu nintzen neure buruarekin halako gauza bat pentsatzen hasteagatik, egin ez nuen

huts batengatik errudun sentitzeagatik. «Urduri jartzen nauk, mutiko» esan nion, mentalki. Orduan, bere kasketaldia gainantzeztu nahi izan balu bezala, zigarro paketea atera zuen jakaren sakelatik. Ez nekien probokazio bat ote zen edo zinez ez zen konturatzen han ez zegoela erretzerik, baina kontua da debekatua zegoela esan behar izan niola, edo esatera behartuta sentitu nintzela. Paristar gisa bertako ohiturak errespetarazi nahi izan banizkio bezala. Ekintza horrek andre estu baten papera jokatzeko ari nintzela sentiarazi zidan, edo okerragoa zena, ama batena. Une hartan ohartu nintzen nire seme nagusiak Antsok baino bost urte gutxiago bakarrik zituela. Lehen solairuko komunetara joan nintzen eta, eskuak lehortzen ari nintzela, berriro ere azalpenik eman gabe handik alde egiteko gogoia izan nuen. Egoera groteskoa begitantzen zitzaidan. Neure estiloari ez zegokion pertsonaia bat antzezten ari nintzela sentitzen nuen. Oso deserosoa zen. Antso ohartzeko kontua ordaindu eta saloitik irteteko nituen aukerak kalkulatzeko hasi nintzen. Baina, ez dakit zergatik, gure mahaira itzuli nintzen.



Bere aurpegi onarekin egin nuen topo komu-  
netik itzultzean. Nire lan teorikoa laudorioz esta-  
li zuen. Bourdieuk eraikitako literatur sistemaren  
ikuspegia nazioarteko mailara egokitzen lehena  
izan nintzela esan zuen, eta nire ikerketarekiko  
miresmena aitortu zidan, oraingoan gainantzez-  
penik gabe. Edo hala iruditu zitzaidan bederen.  
Erreferentzia bat nintzen bera bezalako ikerleen-  
tzat, hots nazio txikien literaturak ikertzen zihar-  
dutenentzat. Aitortzaren zintzotasunak eta esku-  
zabaltasunak gizon itxura itzuli zion. Mutiko gaiz-  
ki hezia desagertu eta gizon xarmagarriak gaina  
hartua zuen beste behin ere Antsoengan.

Angelinatik atera eta alboan zegoen beste  
*istitutuzio* paristar batera eraman nuen, gautzen  
ari zuela ia konturatu gabe. Galignani edozein li-  
teraturzale inpresionatzeko eta limurtzeko mo-  
duko liburu-denda da. Antsori azaldu nionez, XVI.  
mendean geroztik liburugintzan zebilen familia  
italiar zahar baten ondorengoek ireki zuten  
1851n, Ingalaterratik Parisera bizitzera etorri zi-  
renean. Ingeleseko liburuetan eskaintza oparoa  
izateaz gain, orotariko liburuak zeuden erakus-  
gai, zurezko habia sakon eta bero batean orde-

naturik. Biok isilik ibili ginen tarte luze batez, eliza batean ibiltzen den moduan, noiz argazki edo arte liburuak orriztatuz, noiz begiradaz liburu errenkada luzeak ferekatuz. «Zergatik ez duzu aipatu euskal literatura zure liburuan?» entzun nuen ezustean, bere ahotsa nondik zetorkidan ez nekiela. Nire atzealdean, ia itsatsita, sentitu nuen, eta ahapeka jarraitu zuen, «...edo katalana? Hots, estaturik gabeko literatura bat guxtienez». Sustoak galarazi zidan erantzuna kalkulatzea eta zera bota nion, ez nekiela, literatura txikiak aipatzeari aski neritzola. Funtsezko desberdintasunik ez nuela ikusten katalana, euskalduna eta Finlandiakoaren artean. Nire teoriari ez ziokeela ezer ekarriko estaturik gabeko literatura bat aipatzeak, problematikak literatur esparru baten neurriari edo zahartasunari lotuta ikusten nituelako, eta ez beste ezeri. «Garrantzirik ez badu, hau da, Finlandiako eta Euskal Herrikoaren artean ez badago funtsezko desberdintasunik, zure teorian eragina izango lukeen aldeirik, orduan zergatik ez duzu Euskal Herrikoa aipatu? Zergatik jo duzu sistematikoki estatudun literaturetara?» tematu zitzaidan, ahotsa gero

eta apalago baina oharkabeen liburutegiko angelu batean zokoratzen ninduela. Erantzuten ez niola ikustean, eta nire begirada guri so zegoen bezero batengan finkatu zela ohartu zenean, atzerapauso handi bat eman zuen, pasabidea libre uzten zidala adierazteko edo.

Atakatik disimulatuki irteteko, aurkitu nuen lehen liburua hartu, ordaintzera nindoala adierazi eta sarrerako kutxarantz jo nuen. «Visa ala eskudirua?» galdetu zidan saltzaileak erosten ari nintzen *Reality principle explained to the children* liburua paper erreziklatuzko poltsa batean sartzen zuen bitartean.

Antso sarrerara iritsi zenean, eskumuturreko ordulariari begiratzeko keinua itxuratzen hasi nintzen, etxera joateko ordua nuela esango niola deliberaturik. Baina ez neraman ordularirik. Kongresuko mahaian ahantzi zitzaidala konturatu nintzen, hizlari bakoitzari zegokion denbora tartea zaintzeko erabili ondoren. Urduritasuna areagotu zidan, hori posible baldin bazen, ordularirik gabe gelditzeak. «Joango gara Concordeko noriara?» proposatu zidan Antsok. Eta erantzuna ematerako, «Hauek zuretzat» esanez, lehenago-

tik ordainduak bide zituen liburu enpaketatuak luzatu zizkidan, irribarretsu. «Nire herriaren beste ideia bat izan dezazun, ez gaitzazun miserabilismo neorruralarekin asimilatu». *Ravel. Portraits basques* zen lehena. «Bazenekien Ravel nazionalista euskalduna izan zela?» egin zidan galdera erretorikoa. «Eta beste hau?» galdetu nion *Oteiza's selected writings* bigarren eskuan hartuta. «XX. mendeko euskal artista handienetakoa» baten testuen bilduma zela argitu zidan. Liburu garesti samarra zen, edizio zaindua. Orriztatzera behartuta sentitu nintzen, opariarekiko errespetuz. Chillidaren izena aipatu nion, euskal arteaz zer edo zer banekiela erakuste aldera, baina «Oteizaren dizipulu traidorea» ebaki zuen, ezpainak okertuz. «Chillidaren moduan sistemaren arauak errespetatu izan balitu, Oteizaren izena Brancusi batenaren parean legoke gaur egun. Baina ETAKoen alde paratzea, Franco artean bizirik zegoela, Sartre bati onartzen baldin bazaio, euskal artistari aldiz... Ba al dakizu Bret Easton Ellis-ek ETAREN aintzazko lerro bat baino gehiago idatzi duela bere *Glamorama*-n?

Euskal idazle batek hori egingo balu kartzelan sartuko lukete bizi osorako».

Haize hotzak hozka egin zigun liburu-dendatik ateratzean. «Zer, noriara?». «Ez dakit... ez nago aski ondo abrigatuta». Bere narruzko jaka erantzi eta sorbaldak inguratu zizkidan. Kasik belaunetaraino babesten ninduen jaka luze bezain pisu hark. «Goazen» esan nuen, neure kolporako.

**Astiro** hasi ginen gorantz. Elkarri begira egon ginen, luzaz, erdi-ilunpeak begiradei ziurtatzen zien anbiguotasunean bermaturik. Gehiago ere eutsiko niokeen gustura bere begiradari, baina Arc de Triompherantz itzuli zituen begiak. Horrela egon zen une batez. Punturik gorenera iritsiak ginen. Noriak geldialdi bat egin zuen. Handik goitik ikusita, bere argi zerrenda paraleloekin, Champs-Élysées etorbideak aireportu bateko hegaldatze pista zirudien. Astinalditxo batek eman zion hasiera beheranzko mugimenduari. Antsok begiak urrunean finkaturik jarraitzen zuen. «Han atzean dagoena Defentsako arku da, ezta?».

«Bai, hori da. Garaipenaren arkuaren jarraipen zuzenean dagoen hura». Ohikoa baino geldialdi luzeagoa egin zuen noriak. Berriro ere, media fin batzuen babesaren baina ez zuten nire zangoetatik hotza gorputzean hedatuz sentitu nuen. Berari itsatsi nahiko nukeen, nola likena enberrari oihan hezean. Baina begirada Defentsako arkuaren finkaturik mantentzen zuen. «Badakizu...» esan zuen, bere buruarekin ari balitz bezala. Esango zuenaren zain geratu nintzen. Hainbeste non ez bainintzen ausartu «zer?» galdetzera, beranduegi baitzen jada, elkarrizketa bizirik mantendu nahi nuela agerian utziko zukeelako «zer» berantiar horrek. Ez zuen beste hitzik ahoskatu noriatik jaitsi ginen arte.

Musu bat eman zidan masailean, lagun onei ematen zaien moduan. Ez zitzaidan iruditu zer-bait gehiagorako gonbidapena musu hura, baina ez zeukan erresuminaren zaporerik, eta ez zirudien, ezta ere, agur bat. Jaka itzuli nion oraindik pixka bat gordetzeko esango zidalakoan baina ez, onartu zidan. «Programa polita izan da niretzat prestatu duzuna, Gisele. Eskerrik asko». «Lurpetik zerurainoko Paris ikusi dugu» gehitu

nuen. Irribarre egin zidan. Horrek bai, agurraren traza zeukan. Autoko giltzen bila irudikatu nuen neure burua, lurpeko aparkalekuan, bakarrik. Edozein aurpegi da estetikoa Parisko argiak fondon dituela, eta halakoa iruditu zitzaidan berea. Ilea doi bat nahasirik zeukan, begiak inoiz baino ilunago. Ahoa ireki nuen: «Zein da autore hori?».

Ulertuko ez balu bezala begiratu zidan. Zehaztu behar izan nion. «Irakurrarazi nahi zenidana». «Irakurrarazi ez, argitararazi» zuzendu zuen, jatetxe japoniarrera Laura Moranterekin batera azaldu zeneko garaile aurpegi berbera luzituz. «Hotelean daukat itzulpena». Desfibrilagailua izan zen «hotela» hitza. Taupada desordenatuak jotzen hasi zitzaidan bihotza. Neure burua kontrolpean neukala erakutsi nahi izan nion, elkarrizketaren hariari eutsiz: «Itzulita dago?». «Gaztelaniara bakarrik. Baina frantsesera neronek itzuli berri dut».

Arestian ez bezala, berak hartu nahi izan zuen taxia. Besoa altxatzen ikusi nuenean, nire autoan joan gintezkeela esan nion.

Antso burua makurtuta errepideari begira ikusi arte ez nintzen ohartu nire Mini Cooper-aren txikitetasunaz. Beldur nintzen arren sabaia jo zezan, azeleragailua lehertuta nindoan, autobus eta taxien karrila behin eta berriro *mailegatuz*. Apenas gurutzatu genuen hitzik hotelera iritsi bitartean, nor bere gogoetan bildurik. «Zoaz gora» agindu zidan atarian, «bigarren solairua» zehaztuz eta bera giltzaren bila zihoala ulertaraziz. Ez nuen ulertu zergatik bidali nahi ninduen bakarrik gora. Ez ginen legez kanpoko ezer egiten ari -Parisen geunden, ez Vatikanon!- eta hura ez zen izen txarreko hotel bat. Beharbada errezepzioan bere atzean jarrita lotsa pasatuko nuen beldur zen -ia nire semea izan baitzitekeen- eta halako une deserosoa aurreztu nahi izan zidan. Edo berea zen lotsa eta ez ninduen *erakutsi* nahi. Kontua da nire biziko lotsa pasatu nuela errezepzioraino iritsi gabe eskaileretan gora abiatu eta errezepzionista asiarrarekin talka egitekotan egon nintzen. Ez bide ninduen ezagutu eta zein gelatan nengoen galdetu zidan emakumeak. Ez neukan gela zenbakirik, jakina, eta ezagutzen ninduela esan nahi izan nion, Antso eta Brigitte Shoendor-



fer neronek ekarri nituela hotelera bi egun lehenago. Brigitte Shoendorfer! Une horretan bertan hotelean egon zitekeen -gogoratu nintzen Parisen gelditzekoa zela, kongresutik landa-, eta gurutza nezakeela pentsatze hutsak izerditan jarri ninduen. Antsok zer edo zer entzun bide zuen errezepziotik ezen orduan azaldu baitzen giltza eskuan zuela. Zurbil nengoen. «Gisele, uste duzu kongresuko akten publikazioa unibertsitateak ordainduko duela?» galdetu zidan, ozen, etendako elkarrizketa bati berriro helduko bagenio bezala. Emakume asiarrak ez zuen nire erantzunik itxaron eta eskaileretan behera desagertzen ikusi nuen, arnasari oraindik eusten niola. Eskuaz sorbalda inguratu zidan Antsok. Orduan bakarrik lortu nuen biriketako aire lizundua botatzea.

Gelako atea ireki eta bere aurretik sartzen utzi zidan. Nire gauzak gelako bigarren ohearen gainean jar nitzakeela esan zidan. Txukun zegoen dena. Bere arropa armairuan zintzilikaturik zeukan -gizonek gutxitan hartzen duten lana-. Biluzteko gogoa sentitu nuen. Niri begira zegoe-la ohartu nintzen. Oraindik ez zuen bere jaka erantzi. Ohe baten ertzean eseri nintzen, berari

begira. Maleta ireki eta karpeta plastifikatu more bat atera zuen. «Hau da» esan zuen. Ez zirudien jaka kentzeko presarik zeukanik. «Zer?». «Ramon Saizarbitoria deitzen da autoreia». «Etorri hona» gonbidatu nuen nire ondoan jartzera. Hurbildu zitzaidan, baina nire parean eseri zen, beste ohean. «Itzulpena hobetu dezaket. Lehen bertsio bat da. Irakurketa komitekoren batek gaztelaniazko bertsioa nahiago badu, ekarri dizut Madrilgo Alfaguarak argitaratutako bertsioaren ale bat». Hilko nukeen.

Hotela bere errealitatean ikusi nuen. Gelako hormetako paperak jatorrizko kolorearen gomuta baino ez zuen gordetzen. Luminarioa barnealdetik euli eta zomorro hilez betea zegoen. Handik alde egitea zatekeen gelditzen zitzaidan duintasun erlikia salbatzeko modu bakarra. Horren ordeztu hitz egiten hasi nintzen, argudiatzen. Bidaia astral batean bezala, nire burua ikus nezakeen Antsori hitz egiten, nahiz ondo nekien nire benetako ni-a neu nintzela, oinak zementuan harrapatuta hizketan ari zen beste hari begira zegoena, ohe hartatik altxatzeko errepikatuegatik gorputzak obeditzen ez ziola. «Badakizu

zenbat idazle bizi den Frantzia literatura idazte-  
tik?» galdetu nion, erretorikaz. «Ehun eta berro-  
geita hamar». Harridura puntu bat ikusi nuen An-  
tsoren aurpegian. Horrek jarraitzeko oldarra  
eman zidan. «Eta badakizu zeinen zaila bihurtu  
den frantses idazle batentzat argitaletxe anglo-  
saxoien katalogoetan sartzea? Ohartzen al zara  
umiliazioa dela gaurko editore frantsesek Frank-  
furteko liburu azokatik maletetan dakarten ge-  
nero nagusia? Gure zenbat liburu itzultzen dituz-  
tela urtero amerikarrek uste duzu, eta zenbat  
kaka estatubatuar irensten ditugu guk ordaine-  
tan, salduko direla baitakigu, gure irakurleek  
erosiko dituztela baitakigu, salmenta horiei  
esker jarrai baitezakegu gure idazleei arnasa  
ematen eta, bidenabar, munduko beste herrieta-  
ko idazleei kasu egiten?» Karpeta morea belau-  
nen gainean pausatu eta jaka erantzeari ekin  
zion. Nire ohera aldatu eta behar bezalako musu  
bat emango zidala amestu nuen, lipar batez.  
Baina ez zen bere ohetik mugitu. Isilik zegoen,  
esango nuenaren zain, jaka bere ondoan tolestu-  
ta eta karpeta belauen gainean. «Ez dago opa-

ririk edizio munduan» laburbildu nuen, sententziaren lehorraz pozik.

Ezekkoa nirea zelako ilusioa ematen zidan esaldi borobil horrekin, azkenean bukatutzat jo nezakeen gure artekoa. Altxatu eta agur esateko indarrak biltzen ari nintzela, nire ohera pasatu eta eskuak hartu zizkidan. Gure eskuei begira geratu nintzen, begirada altxatzeko indarrik gabe. Hotzak zituen. «Gisele. Ez natzaizu oparibat eskatzen ari» esan zidan, ahots lasai eta ziu-rraz. «Oparia ni egiten ari natzaizuna da» gehitu zuen. Neure onera -edo txarrera- braustean itzuli ninduen azken esaldi horrek. Oraindik bereetan zirauten nire eskuak berreskuratu eta erdeinuz komentatu nuen: «Daukadan adinean errefusatu ez dezakedan eskaintza egin didazulakokan zaude, hortaz?». Ezin serioago erantzun zidan. «Ni ez naiz inoren opari. *Hau* da egiten ari natzaizun opari bakarra» esan zuen, karpeta morea nire begien parera altxatuta. «Ez zaizu maila honetako testu askorik iritsiko esku artera urte osoan». Nahasita nengoen. Zeharo. Berriro eztitu zen bere ahotsa. «Ikerle gisa miresten zaitut, eta miretsiko ere oraindik. Besterik da...».

Mingarriegia zitzaidakeen esaldiaren bukaerari itxaron gabe karpeta eskuetatik hartu eta ireki egin nuen.

Uste baino luzeagoa zen. Karpetan sartuta ez zirudien arren, ehun bat folio ziren. Irakurtzen hasi nintzen, baina ez neukan garbi zer egin behar nuen. Antso ondo-ondoan neukan, nire sorbaldaren gainetik bere itzulpena berrirakurtzen. Inoiz ez nuen jasan norbait nirekin batera irakurtzen edukitzea alboan. Irakurtzen jarraitu nezakeen, mugagabe -ordu pare bat behar izango nuen, gutxienez, euskal autorearen *nouvelle*-a bukatzeko-, edo lehen iritzi bat eman eta etxera eramango nuela esan. Zorionez, Antso altxatu eta bainugelara joan zen. «Luzea da...» ausartu nintzen, «...eta benetan ona dirudi» gehitu nuen segituan, badaezpada. «Gau osoa daukagu» esanez itzuli zen, baso bat ur zekarkidala. Animoa eman zidan *gau osoa* horrek, eta aldi berean ulertu nuen *L'Obsession de Rosetti* hura lehen hitzetik azkeneraino irakurrarazi nahi zidala, han bertan. Psikopata baten aurrean nengoe-

la ikusteko gai zen nire gorputz astrala, baina besteak, berrogeita hiru urteko gorputzak, ordea, ur trago bat edan eta irakurketari berrekin zion, otzan.

Testuaren hasierara itzultzeko beharra nukan, egia esan, irakurketaren hasieran -hau da, Antso alboan eduki nuen bitartean, geroztik leihotik teilatuei begira baitzegoen, zigarroa lagun- ez bainuen lortu ondo kontzentratzea. Pixkanaka, halere, idazle horren errepikapenerako joera zela medio, istorioaren haria osatuz nindoan. Bazuen xarmarik, dena aitortu behar badut. Istorioan gizon euskaldun batek emakume espainiar bat seduzitzea lortzen zuen, testu erotiko labur bat idatziz. «C'est quoi votre problème, les basques?», hori zen Eugenia ize-neko madrildarrak protagonista euskaldunari etengabe egiten zion galdera eta, egia esan, ez nuen zailtasun gehiegirik Eugenia horrekin identifikatzeko. Ez dakit Antso ohartua zen *nouvelle*-aren egoera eta gurearen arteko antzekotasunaz. *L'Obsession de Rosetti*-n ere testu bat bihurtzen zen gizon euskaldun eta emakume ez euskaldun baten arteko harremana aldi berean

ahalbidetu eta oztopatzen zuena. Bestalde, hiri-buru handiko hotela zen testuan ere ekintzaren kokagune nagusia. Antsok kointzidentzia aurretik kalkulatua zeukala ere pentsatzera iritsi nintzen, bere bigarren zigarroa bukatu aurretik leihoko kristalean itzali eta irribarretsu begiratu zidanean, haatik niregana hurbiltzeko keinurik egin gabe.

Han zirauen, niregandik lau metrora, orain masaila kristal lausotuan bermaturik, jarrera melankolikoan, bere herriaren etorkizuna nire irakurketaren baitan bailegoen -ni, Gallimard etxe-ko *Du monde entier* bildumako irakurketa komiteko kidea, ni, hainbeste miresten omen zuen literatura txikien kontzeptuaren teorizatzaile ezaguna-, han zirauen, bada, etsita, baina burgoi. Eta jarrera hartan bere burua edertzat zeukalakoan nago; txit estetikoa zeritzon, ziur nago, nirekiko harreman korapilatsu horri. Bere porrotaz gozaten hasia zatekeen. Ezagun zuen gozamen masokista erpuruko atzazalari kezkatu hozka egin eta, segituan, esku bera kopetara eraman eta masajeatzeko zerabilen moduan.

Nire irakurketa doi bat geldotua zela ohartu zen une batean, leioa utziz ondoko ohera gerturatu eta etzan egin zen, zapatak eta galtzerdiak erantzirik. Oin ederrak zituen. Oinek pertsona baten fineziaren froga definitiboa ematen dutela pentsatu izan dut beti. Hasperen egin zuen. Sabaian iltzatu zituen begiak. Ulertu nuen irakurketari berriro ekiteko gonbidapen mutua zela.

**Protagonistak** Victoria izeneko emakume euskaldun kosmopolita baten ezagutza egiten zuen eta, Eugeniak ez bezala, hartaz maitemindu egiten zen. Eugenia madrildarra seduzitzeko balio izan ziola ikusirik -edo sinetsirik-, protagonista saiatzen zen bere testu erotiko laburra berreskuratzen. Horretarako, Eugeniarengana jo beharra zeukan eta honek gizon euskaldunaren benetako helburua zein zen pixkanaka susmaturik, testua erabiltzen zuen xantaia egin eta bere ohera berriro erakartzeko. Paraleloki, autoreak Rosetti margolari ingeles preraphaelitak izandako bere testu zenbaitekiko obsesioaz xehetasunak tarte-



katzen zituen, protagonista eta Victoriaren arteko harremanaren ardatz bihurtuz.

*Nouvelle*-a ondo eraikia zegoen, maisutasunez idatzia, eta zikoizkeria maskulino edo artistikoaren deskribapen ezin zehatzagoa burutzen zuen Rosettiren eta protagonista euskaldunaren figuren bitartez. Irakurtzen ari nintzen orrian hatza utziz, geldialdia egin eta azaleko orrira itzuli nintzen. Autorearen izena ikusi nahi nuen berriro, ziurtatzeko ez nuela aurretiaz ezagutzen. Antsok esana zidan Espainian argitaratua zutela eta, hortaz, bazitekeen noizbait nire belarrietaraino iritsi izana. Baina ez. Saizarbitoria. Izen luze, ahoskagaitz eta gogoraezina. Gizonak ezizen literario baten behar urgentea zeukan. Ez zidan ezer esaten izen horrek. Ez bide zidan inoiz aipatu Gallimard-eko gure kontaktu madrildarrak. Pena. Gaizki saldu zatekeen Espainiako merkatuan, edo kritika txarrak izan zituzkeen. Beharbada *euskal arazoa* zen oztopo, autorearen terroristengandik hurbilegi zegoelako edo. Auskalo. Kontaktuarekin telefonoz hitz egingo nuen hurrengoan galdetu beharko niokeela pentsatu nuen. Bere txostenetan aipatzen zizkigun izen

guztien artean bakanak ziren argitaratzera iristen ginenak eta ez dut uste inoiz argitaratu genuenik aurretik txostenetan agertu ez zen idazlerik. Antsoaren autoreak ez zuen, ona izanagatik, argitaratua izateko aukerarik. Pena sentitu nuen berriro. Oraingoan Antsoarekiko.

Loak hartua zuen. Ohartu nintzen -arestian, ohean etzan zen unean, ez bainintzen ausartu osoki burua itzultzera, bere oinetara mugatu bainuen ikusmira- esku biak bularraldean gurutzaturik zeuzkala, hilda balego bezala, eta eskuek Saizarbitoriaren liburuaren gazteleraizko edizioaren ale bat babesten zutela. Arnas laburra zuen, irregularra. Ametsetan zegokeen. Haur bat zirudien horrela eta ez arestiko psikopata. Hazpegiak erlaxaturik, zena baino are gazteagoa zirudien.

Ulertu nuen ez zuela nirekin oheratzeko asmorik. Ez zuela inoiz izan halako asmorik. Ziurrenik bere buruarekiko erronka bat izan zela dena. Bere iritziz euskal autore hoberena zenari zozion sakrifizioa. Neronek teorizatua nuen literatur mundu sistemaren zentroko -hiriburu literarioko- irakurle aditu bati gutxienez *beraien* Sai-

zarbitoria irakurrarazteko ahalegin heroikoa, nahiz ondo zekien bere baitan ez zegoela itxaropenik inoiz argitaratua izan zedin. Bazekien, hortaz, autorea gustatu arren -eta ziur zegoen gustatuko zitzaidala, arrazoiz- ezetza eman beharko niola, eta ez zidala, ondorioz, maitasuna egin beharko. Ez zela nirekiko zorretan geratuko.

Oheratuko ez ginela jakiteak baretu ninduen. Azken bi egunetan galdua nuen bakea itzuli zidan. Hoteleko gela berriro ere habia epel bihurtu zitzaidan. *Nouvelle*-aren irakurketa bukatu nuen, patxadaz orain, erabat testuan barneraturik, idazkera gozatuz, ona baitzen euskal autore ezezaguna, eta egokia, guztiz, Antsoren itzulpena.

Goizeko ordu bi eta erdiak ziren azken hitzertara iritsi nintzenean. Antsok lo zirauen. Arnasa ia sumaezina zuen. Hoteleko harrabots txikiak nabarmendu egiten zituen gure gelako isiltasunak. Tarteka pizten zen klimatizagailuaren zurrunga itzaltzen entzun nuen. Hortik une batera igogailua martxan jartzen zela ere bai. Telebista

urrun bat, hurrena. Saizarbitoriaren gaztelerazko argitalpenaren alea oraindik bularraldean gurutzurik zeuzkan eskuetatik kentzea pentsatu nuen -ez nekien ondo zertarako, Gallimard-eko norbaiti erakusteko, edo, besterik gabe, etxean gordetzeko, liburu onekin egin ohi dudanez-baina ez nuen Antso esnatu nahi izan. Nire gauzak hartu eta, lotiaren aurpegira hurbildu ondoren, bere usaina bederen nireganatzeko, alde egin nuen.